



ttipi-ttapa



EZKONTZA GEHIGARRIA / 35



23. KORRIKA ATE JOKA

Martxoaren 14an Irunen hasi eta 24an Baionan bukatuko da Korrikaren 23. edizioa. Tarte horretan, eskuz esku ibiliko da Korrikaren lekukoa: martxoaren 15ean Baztandik pasatuko da, martxoaren 19an Leizatik eta Goizuetatik eta martxoaren 24an Bortzirietan eta Xaretan ibiliko da. / 8

AEK

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8aren atarian, emakume pentsiodunei begira jarri da TTIPI-TTAPA eta eskualdeko bertz testigantza bildu ditu. / 15

SINADURAK



AMAIA IPARRAGIRRE

50. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi prest ditu Jeiki abesbatzak / 10



R. OSKARIZ

Lekarozko Lozy's enpresako langileak hitzarmenaren alde borrokan / 44

Aresoko Udaleko kudeketa batzordea baimenaren zain lanean hasteko / 42

Senpereko eta Lesakako mendi lasterketak hilaren 9an eta 10ean / 55



ZOKKETA / 64

ikastola.

ZU?

Aurrematrikulazio epea:
martxoaren 18tik 22ra





NIRE TXANDA

MAITE BIDARTE SOTA

Zein influencerri segitzen diozue?

Hau irakurtzen ari zareten emakume batzuk akaso oroituak zarete Elena Francisen irrati kontsultategiaz, entzule aunitz bildu zituen irratsaioa izan zen. 1947an hasi zen Francis aholku estetikoak eta etxe-garbiketako gomendioak ematen. Gerora, emakumeen kezka sentimentalak erantzuten ere hasiko zen. Influencer bat zen.

«Gizona desleiala bada, izan itsua, gorra eta mutua», edo «bortxatu bazaituzte zerbait egin duzunaren seinale». Horiek ziren, bertzeak bertze, entzuleen kezka lasaitzeko ematen zituen erantzunak. Ez zituen inoiz kontuan hartzen ez emakumeak, ez eta haien zoriona. Soilik egin beharra.

Konsultategiak 1947tik 1984ra arte iraun zuen. Gerora jakin da Francis ez zela inoiz existitu, eta aholku horien gibelean zeudela, Ángela Castells Falangeko *Sección Femeninako* kidea eta 60ko hamarkadatik aitzinera, Juan Soto Viñolo zezenketa kritikoa.

Beraz, erne, segitzen diegun influencerrekin.

«AKASO OROITUKO ZARETE ELENA FRANCISEN IRRATI KONSULTATEGIAZ...»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Toka Noka Xoka

Gizasemeekin toka aritzea zaila zen, emakumeekin noka ia atzenda eta orain, ez bitar sentitzen direnekin, xoka solastatzeko proposamena/eskaria/aukera ere badela irakurri dugu. Hika, zuka edo berorika, ez al litzateke errazago ondokoari errespetuz solastatzea eta belarri prest aditza? Zer iruditzen zaik/zain/zaix? Zer uste dux/dun/duk?

NABARMENTZEKOAK



ANE
ELZAURDIA
KORRIKALARIA



XERMAN
ARBURUA
HERIOTZA

Ongi hasi du mendi lasterketa denboraldia Soronea-Amma taldeko korrikalari beratarak, 10,5 kilometroko VII. Oibar Trail lasterketa irabazi baitu otsailaren 25ean.

Zugarramurdiko lehen intsumitua eta Baztan-Bidasoaldeko Talde Antimilitaristaren sustatzaileetako bat hil da otsailaren 22an, 51 urte bertzerik ez zituela.

GIBELERA BEGIRA



2014-03-06 · TTIPI-TTAPA · 609 zk.

Transmisioari buruz David Anautekin

Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria izeneko liburua kaleratu zuen duela 10 urte David Anaut filologo eta euskara teknikariak. Hizkuntzari lotzen gaituen katea, bortizki etendako transmisio katea eta auzolanen eten eta berreraikitakoa... horiek guztiak bildu zituen liburuan, kontaketei izen-abizenak eta aurpegia jarrita, eta «orain artean azalera atera ez den errealitate bat kontatzeko asmoz». «Frankismo garaikoa izan zen zapalkuntzaren erakustaldirik handiena, baina, aurretik eta gerora ere izan da. Boterea zapalkuntza moduak moldatzen joan da, baina estatuen aldetik helburu bat egon da beti eta zoritxarrez euskara izan da beti kaltetua», azaldu zion TTIPI-TTAPARI.



erran.
eus



Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Berriemaileak

Arkaitz Mingegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberriagarai, Mailalen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerreko Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	47€
Leitza	40€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	110€
Amerika eta Australia	155€



KOLABORAZIOAK

MIREN RUBIO ITURRIA

Lesakar bat Vogue

Lesakan sortutako Ramon Esparzaren bizitza topatuko du *Vogue* moda aldizkaria zabaltzen duenak, kanpoan laudorioak jasotzen baititu sarri herrian zeharka oroitzen denak. Nazioarteko moda munduan izan zuen sonaz idatzi du aldizkariak, bertze izen handi bati lotuta beti: Cristobal Balentziaga Getariako jostunari. Izan ere, elkarrekin bizi eta lan egin zuten Balentziagak eta Esparzak 1950ean Parisen elkar ezagutu zutenetik. Ana Balda ikerlariak dioenez, Rodriguez Aldabe anaia lesakarrek aurkeztuta ezagutu zuten elkar, eta Getariakoak Esparzaren marrazketarako dohaina ikusita, baita gustu ona ere, berarekin lan egitera gonbidatu zuen. Geroztik, ezin ibilbide emankorragoa elkarren ondoan, ikerlariaren hitzetan.

Esparza ez zen Lesakako familia apal batekoa, nekazari edo abeltzainen semea. Eladio Esparza orduko udaleko idazkariaren hirugarren semea zen, kazetaria eta politikaria ere bazena. Horregatik, zortzi anaia-arreba izanagatik ere, Iruñera joan zen batxilergoa ikastera. Ondotik, abokatu ikasketak Zaragozan egin zituen, baina hain zuen marrazketa maite, arte ederrak ere egin baitzituen. Bartzelonan moda ilustratzaile aritu zen, eta Parisko moda munduan sartuko zen gero bete-betean Getariakoaren eskutik. Aibilezia berezia

«LAUDORIOAK KANPOAN, HERRIAN ZEHARKA OROITZEN DENAK»

Balentziaga erretiratuta, jostunaren ekarpenaren zaintzaile eta hedatzailea izan zen Esparza. Egungo jostunaren museoaren ernamuina berari zor zaiola diote. Baina bere kabuz ere baditu meritu aski: Chanel etxearen diseinuen buru izan zen urtebetez, kritikariek estu hartu bazuten ere, bertzeak bertze. Bazenaren seinale.

*Vogue*ko artikuluak zertzelada gehiago ematen ditu, eta bertze hainbertze erreportaje ere aurkituko dituzue Balentziagari eskainitako telesaila dela medio. Gehiago sakondu nahi duenak baditu sarean aski eskuragarri ikerketa artikuluak, horien artean aipatutako Ana Baldarenak. Hala ere, zer pentsatua ematen du ikusteak bertzeek ponpaz bere egiten duten hori nola den hain arrotz sorlekuan. Niregandik hasita.

Bada herrian ikusi zituenik Balentziaga eta haren Lesakako 'maitalea' (harrigarria da oraindik nola inork gutxik deitzen duen bikotekide), baita euren lagunak ere: horien artean Hollywoodeko izarrak (bertze baterako). Beroki horiek, soineko haiek, erranen dizute. Baina banago anitzi Ramon Esparzaren bizitza etxekotuko zaiela pantailaren bidez, aldizkariaren bitartez. Egia da Esparza abizenak badituela bertze hainbertze ertz: karlismoa, gerra, navarrismoa, dirua. Baina izan beharko lukete ere bertzelakoak: joskintza, jakintza, artea. Horiek guztiak ezagutzea ere badelako Lesaka bera hobeki ezagutzea.



ELURRE IRIARTE BAÑEZ

Izanen duzu zer errebisatu

Noizbait hitza hartu izanen duzu bertze norbaiten gaineratik, behar bada kendu diozu edo ez diozu eman, hartzen ez uzten, normaltasun osoz. Edo gutxietsi izanen duzu bertze baten hitza emakumezkoarena delakoz, gaztearena edo zaharrarena, baina emakumezkoarena. Akaso irri egin izanen duzu, ideia erridikulua dela erranez eta beraz pertsona (emakumezkoa) mespretxatuz, jende aitzinean agerian utzi nahian. Segur aski batzar batean erabaki bat hartu izanen duzu denen iritzia aditu gabe, hitza hartzeko zailtasuna duena kontutan hartu gabe, bere zailtasuna politikoa dela ikusi gabe.

Noizbait etxeko lana (garbitzea, sukaldean aritzea, erosketak egitea...) zure lana ez dela pentsatu izanen duzu eta ama, emazte edo etxekidearen kontu utzi, erosoagoa eta errazagoa baita ez ikusiarena egitea. Edo lanak banatu izanen dituzu zure alaba eta semeen artean, indarra mutikoari emanez, garbiketa kontua neskatikoari, opariak edo arropak banatu dituzun irizpide berarekin, irizpide hori politikoa dela ohartu gabe.

Noizbait gizonaren emazte, semearen ama edo aitaren alaba gisa definitu izanen duzu emakumezkoren bat, bigarren mailara pasatuz. Norbaiten zerbait dela erraten ari

«GAUR ERE MARTXOAREN 8A DA, DENOK DUGU ZER ERREBISATU»

onartu gabe.

Noizbait emakumezkoen gauzak direla erran izanen duzu, edo gizonezkoenak, eta erran izanen duzu neskak halakoak direla eta mutikoak bertzelakoak (indartsuak/ahulak, inteligenteak/zozoak...). Eta badela emakumeen musika, emakumeen literatura, emakumeen kirola. Eta horiek musika, literatura eta kirolaren barnean kategoria bereiz bat dutela: rapa eta emakumeen rapa, nobelak eta emakumeen nobelak, futbola eta emakumeen futbola, sailkapena politikoa dela erreparatu gabe.

Noizbait emakumezko bati erran izanen diozu sobera mehar dagoela, edo sobera lodi, edo ipurdi handia duela (edo txikia) edo titi txikiak (edo handiak). Eta aholkuak eman izanen dizkiozu mehatzeko edo loditzeko, gorputzaren begirada politikoa dela onartu gabe.

Eta bai, gaur ere martxoaren 8a da, eta denok dugu zer errebisatu.

11 GALDERA LABUR

ANNE MARTIARENA GAMIO FUTBOL KOMENTARISTA

«Irratian isiltasuna da gure etsairik haundiena»

Nor dugu Anne Martiarena?

Familiarekin egonaldi goxoak egitea eta lagunekin mendiaz disfrutatzea gustuko duen 22 urteko berroetarra.

Zein dira zure zaletasunak?

Kirola egitea eta ikustea gustuko dut, futbola eta esku pilota batez ere. Musika ere maite dut, akordeoia jotzen dut duela 10 urte.

Zein ikasketa egin dituzu?

Kazetaritza ikasi dut Nafarroako Unibertsitatean.

Nondik heldu zaizu futbolarekiko afizioa?

Zaila da azaltzea, etxean ez baitira arras zaleak. Baina aunitzetan aditu dut Berroetako amatxi arras futbolzalea zela; realzalea, hain zuzen. Berarekin elkartzuz gero, a ze derbia biziko genukeen!

Noiz joan zinen lehenbiziko aldiz futbol partidu bat ikustera?

2013an, Nafarroa Oinezetik bueltan Sadarreat joan nintzen lagun batzuen gurasoekin, Betisen aurkakoa ikustera. Ez dut inoiz atzenduko!

Futbol komentaria lanetan hasi zinen abenduan Euskalerrira irratian. Nola sortu zitzaizun aukera?

Nafarroako Kontuen Ganberan ari naiz lanean, eta bi astetik behin gure berriak Euskalerrira irratian plazaratzen ditugu. Nire zaletasuna ezagutu zutenean, aukera paregabea iruditu zitzaien futbol transmisioetam emakume ahotsa edukitzeko.

Zein partidutan aritzen zara?

Osasunak etxean, Sadarren, jokatzeko duen aldi oro. Baita



partidu berezietan ere, Superkopako partidu kontatzeko aukera izan nuen Eñaut Agirrebengoarekin.

Nolako esperientzia izaten arida?

Erronka arras aberasgarria. Beti izan diot errespetu handia mikrofono aitzinean jartzeari, baina talde ederra osatzen dugu Eñauk eta biok.

Zer da zailena?

Zuzeneko batek eskatzen duen etengabeko inprobisazioa. Denok dakigun bezala, irratian

isiltasuna da gure etsairik haundiena.

Zein dira zure asmoak etorkizunera begira?

Graduatu berria naizenez, profesionalki hazteko sortzen diren aukerak aprobeztatu nahi ditut, eta bidenabar, egiten ari naizen bidez gozatu nahi dut.

Eta epe luzera?

Ez diot buelta gehiegi ematen etorkizunari. Nahiago dut momentua bizi eta ateratzen diren aukera guztiak probestu.



Merkealdia
Azken egunak

1951tik
Casa Cambra
Ientzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornoak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toallak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Aio eta milesker

KORO IRAZOKI ARBURUA

Laster bi denda hetsiko dituzte Beran. Fabore ederra egiten duten denda horietakoak dira: Altzateko karrikan oinetakoak erosi ahal izatea luxu bat da; eta Kanttonberri karrikan «denetarik dagoen» denda horietako bat eskura izatea arras praktikoa da. Baina laster horiek gabe geldituko gara. Eta denok galduko dugu: dendako langileek bertze lan bat bilatzen hasi beharko dutelako, eta gainerakook herrian berean eta kotxerik hartu gabe erosketak egin ahal izatea. TTIPI-TTAPAN berriki ezagutu dugu Areson zegoen denda bakarra hetsi dutela. TTIPI-TTAPAKO kolaborazio batean ere afera beraz aritu zen Markel Adin. Arazoa orokorra da. Eta guk nola laguntzen ahal dugu? Hori denok dakigu, gure eskuetan dagoen bakarra eginez: herriko dendei lehentasuna emanez. Momentu honetan Oinatz eta Aranen dendei: aio eta mila esker. Eta orokorrean herrietako dendetako nagusiei: animo aunitz, eta mila esker ere bai, hain hurbil egoteagatik.

Nafarroako mendialdeko banku basamortutzea

GERMAN GORRAIZ LOPEZ OTSAGABIA

Nafarroako Mendialdea basamortu demografiko bat izango litzateke, 3,8 biztanle km²ko populazio-dentsitatearekin (Nafarroako batez bestekoa 68,1 biztanle km²), eta populazio horren % 6,3 adinekoa izango litzateke; beraz, Nafarroako Mendialdea, «aire zabaleko geriatriko» itzela izango litzateke.

Bestalde, baliabideak optimizatzeko Bankaren doktrinaren eraginez, milaka langile aurrez erretiratzera eta sukurtsal kontaezinak ixtera eraman zituen. Horrela, Eskudirua Eskuratzeko Kalteberatasun Indizearen (IVAE) arabera, 36.300 pertsona pasatxo (Nafarroako biztanleriaren % 5,5 inguru)

«egoera ahulean» egongo lirateke eskudirua modu eskuratzeari dagokionez, eta gehienak Nafarroako Laponia deiturikoan biziko lirateke, Ameskoatik Erronkari haraneraino, Urbasa, Andia, Kinto, Malerreka, Artze, Aezkoa eta Zaraitzu barne.

Hala, Nafarroan, 2008. urteaz geroztik, sukurtsalen sarearen % 41 itxi dira, eta, beraz, 145 udalerritako 42.000 pertsona inguru linbo digital batean biziko lirateke. Horretaz gain, % 6,3 adinekoa eta analfabeto digitalak izango lirateke, eta 20 km baino gehiago egin beharko litzukete kudeaketak egiteko eta hirugarren pertsonengana jotzeko kutxazain automatikoak erabiltzeko, eta, bereziki, aipatutako bailaretan, orografia berezia eta neguko bideragarritasuna arriskutsua dela kontuan izan behar da.

Ondorioz, premiazkoa eta ezinbestekoa da Txibiteren gobernuak esku hartzea, banketxeei eskatzeko kutxazain automatikoak jar ditzatela Mendialdeko banku sukurtsalik gabeko herrietan, adineko biztanleek eskudirua eskura dezaten.

Gure txikiek merezi dute

AITZIBER ALDUNTZIN, AITZIBER ALTUNA, IZASKUN OLANO, ESTHER RIAÑO, MAXUX SUKUNTZA, OIHANA ZABALETA, AINHOA CENZANO, MIREN FAGOAGA ETA MIRIAM IPARRAGIRRE

LEITZAKO ITZAIRE HAUR ESKOLAKO LANTALDEA

Jaiotzetik 3 urtera bitarte, pertsonen etaparik garrantzitsuena dela diote, ingurua ezagutzen hasten garen momen-tua, mundua sentitzekoa, etapa honetan bizitza guztirako barruan eramanen ditugun sustraiak eraikitzen dira.

Egun batzuk badira, prentsatik albistea jaso genuela, 0-3 zikloa banatzeko asmoa dutela, beste behin ere, zikloari labankada sartu nahi diote, oraingoan bihotzean, familia, herritar eta hezitzaileoi kezka eta harridura sorraraziz.

Guk herritar, hezitzaile eta familia bezala, ardura daukagu etapa honek

merezi duen denbora, begirada, errekurtsioak eta zaintza eskaintzeko. Urte askotako lana dago honen atzean, Nafarroan egin den bidea izugarria izan da, beste erkidego askorentzat erreferentea da gurea, izan ere, interes ekonomikoen mesedetan beste erkidego batzuk egin dute haustura hori.

Aurten, 2-3 urteko haurren gelan ari gara lanean, une honetan gure haurrak bizitzak emandako aukerez gozaten ari dira eskolan, batzuk, 4 hilabete zituztenetik daude gurean eta beraiantzat konfiantzazko espazioa segurua da. Izan ere, eskaintzen dizkiegun aukerak, bai material, espazio, eguneroko jarduerak, haien benetako beharrak entzunda prestatuta daude. Hau dena eskaintzen dion pertsona, erreferentziatzekoa da, zaintza eta une garrantzitsuak modu pertsonalean eskaintzen dizkiona, haurren babesgune izanik, haien jardunaldi osoan bere presentzia ematen diona.

Ez dakigu nola gauzatuko den, izan ere, hezkuntzako langileok kontutan hartu gabe pentsatutako erabakia izan da eta kezka handia sortu du inguruan, baita galderak ere. Baina argi duguna gauza bat da, zikloaren banaketa gure haurren ongizatearen aurka doala.

Gure txikiek merezi dutelako, egin dezagun haur eskolen aldeko apustua, masifikazioak ekidinez, haien beharrak entzunez, askotariko aukerak eskainiz eta kalitatezko zaintzan haziz. Jarrai dezagun bizitza osasuntsu baterako haziak ereiten.

140 eragilek Elikadura burujabetzan oinarritutako politikak eskatu dizkiote Nafarroako Gobernuari

GOTZONE SESTORAIN

NAFARROAKO ELIKADURA BURUJABETZAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN IZENEAN

Kontuan hartuta Nafarroan nekazaritza sektorea –bereziki ttikiena eta

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

iraunkorrena– desagertzeko bide kezkarrian dagoela, gero eta esku gutxiagotan kontzentratzen ari dela, errentagarritasuna falta dutela eta eredu intentsiboa areagotzen ari dela, Nafarroako ekoizleen hainbat elkartek, ELA edo LAB sindikatuek, kontsumitzaile elkarteek, ingurumen erakundeek, ekologistek eta hainbat udal eta kontzejuk Nafarroan elikadura burujabetzaren aldeko manifestua sinatu dute. Manifestua Landa Garapen eta Ingurumeneko kontseilari Jose Mari Aierdiri ere eman diogu.

Manifestuan egungo elikadura sistema eraldatzeko 60 proposamen baino gehiago bildu dira, eta hauek dira nabarmenenak: abeltzaintza industrialari moratoria bat ezartzea: ez ustiategi berririk, ez handitu daudenak, eta abeltzaintza ekoizpen intentsiboa murriztea, 2030ean egungoa baino % 50 tikiagoa izatera ailegatu arte; 2030era bitarte, pestiziden, ongari kimikoen eta antibiotikoen erabilera % 50 murriztea eta ekoizpen ekologikora aldatzea lurraren % 25era ailegatu arte; aholkularitza, prestakuntza eta laguntza, ustiategi industrialak desintentsifikatzeko, nekazaritza eta abeltzaintza agroekologikorantz trantsizioa eginez; ur azterna tikiak duten nekazaritza eta abeltzaintza ereduak babestea eta sustatzea; higiene eta osasun araudia eskala tikioko ekoizpenetara egokitzea eta tokiko ekoizpenen erosketa publikoa (eskolak, ospitaleak...), batez ere tikiaren, familiarren, irizpide ekologikoen eta sozialen arabera egitea.

Errentagarritasun faltak nekazaritzaren sektorean mobilizazio handiak eragin ditu. Egoera hori azken hamarkadetan aplikatutako politika neoliberalen, merkataritza askearen eta globalizazio ekonomikoaren ondorio da. Horiek dira tokiko biztanleentzako elikagaiak ekoizteari utzi eta agronegozioak kontrolatutako merkatu global espekulatibora bideratutako salgaiak ekoiztearen erantzuleak; horien

ondorioz, nekazariak mundu osoan desagertzen eta bizitza (eta lurrari lotutako nekazaritza) ahalbidetzen duten baliabide naturalak suntsitzen ari dira.

Orain, inoiz baino gehiago, beharrezkoa da nekazaritza eta elikadura politiken norabidea aldatzea, elikadura burujabetzan oinarritutako eredu baten aldeko apustua egitea, eta tokiko nekazaritza eta elikadura sistema justuak eta iraunkorrak sortzea. Politika horiek merkataritza politikez lagunduak izan behar dute, merkataritza askeko negoziazioak geldituz eta merkatuak erregulatuz, nekazariak ekoizpen prezio justuak izan ditzaten eta ekoizpen kostuen azpitik saltzea debeka dezaten.

Orain, inoiz baino gehiago, beharrezkoa da landa eremua eta hiriarren arteko aliantzak eraikitzea, lehen sektorea eta kontsumitzaileen artean eta oro har gizarte osoaren artean, hain beharrezkoa dugun trantsizio agroekologikoa egiteko. Izan ere, elikaduraz hitz egiten ari gara eta honek herritar guztiak interpelatzen gaitu.

Industria kontseilariak egiaz ez badu Nafarroako mendietan proiektu eolikorik nahi, bere esku dauka legeak paratzea haiek galarazteko

CONSUELO DELGADO BEISTEGI ERATSUN

Otsailaren 5ean, harrituta gelditu ginen Industria kontseilariak Bortzerrietako alkateekin bilera egin eta TTIPI-TTAPAN elkarrizketa agertuta. Malerrekan eta Bortzerrietan industrialde eolikoen kontra ari garen kideetako askorentzat, Nafarroako Gobernuak erreakzioz jokatu zuen, ikusita proiektuen aurka zenbat gutun eta informazio eske jaso dituzten Industria eta Ondare sailek Malerrika Bizirik plataformaren eskutik eta berriki Haizeak Bizirik, Arantza Bizirik, Igantzi Bizirik eta Azkuia Bizirik plataformen eskutik.


Gutunok, TTIPI-TTAPAKO artikulua kritikoez eta udal batzuen informazio

eskeek arranguraren bat piztu izanen dute gobernuan, polemika errotik eten nahi izateko, nola eta bilera antolatuta alkateekin eta elkarrizketan publikatuta; herriak lasaitzeko egina da, baina gure iritziz, mobilizazio kolektiboa itzaltzeko asmo argiz.

Kontseilariak ez digu segurtasunik ematen baieztatuz ez dituela «egingarri» ikusten Zelena Renewable enpresaren Irakurriko eta Azkuko makroproiektuak. Emandako bi argudioak ez direlako legezko arrazioak Industria sailean proiektuak baztertzeko. Iritziak baizik: kontseilariari ez zaizkio gustatu gardentasun falta (Zelena enpresa ez da harremanetan jarri ez departamenduarekin eta ez udalekin) eta lurraldetasun falta (Zelenak Madril du egoitza). Kontseilariak ez du plataformen argumentu sendoetako bat bera ere erabili, eta ez da mintzatu plataformekin, gizarte zibila ordezkatzeko dugunok eta gutunen igorleekin.

Gobernuak borondate politikoa baldin badu proiektu eoliko horiek ez onartzeko, onartuko ditu «lurraldera lotuta» aurkez daitezkeen beste batzuk? Horrek ez gaitu lasaitzen.

Proiektu eolikorik ez instalatzeko borondate politikorik baldin badago, gobernuak erarra du: egin halakoak galaraziko dituzten legeak. Bizitza diruaren gainetik defendatzen dugunok eta ekosistemak, biodibertsitatea, oreka naturala, paisaiaren edertasuna, lasaitasuna, osasuna eta gure ogibidea babestu nahi ditugunok dei egiten diogu foru gobernuari: promulga dezala lege bat industrialde eoliko eta fotovoltaiakoak debekatzeko Nafarroako mendian eta landan. Orduan geldituko gara lasai, ofizialki bermea izanen baitugu inolako enpresak ez duela diru goxo pozoituarekin kolonizatuko eta industrializatuko gure lurraldea, landa eta mendia.



Euskaraz harro, euskaraz Korrika

Martxoaren 14an Irunen hasi eta 24an Baionan bukatuko da Korrikaren 23. edizioa. 'Harro herri' da Korrikaren leloa eta, «euskararen aldeko mugimendu zabaldu» eta «euskaraz harro» egitea aldarria. Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu dute aurten

A. LARRETxea

Heldu da euskararen aldeko lasterketa erraldoia, heldu da Korrikaren 23. aldia. Martxoaren 14ko arratsaldean hasiko da Irunen, eta hamaika egunez eta hamar gauetz Euskal Herria gurutzatu ondotik, Baionan bukatuko da martxoaren 24an, 12:30ean. Bertan irakurriko dute lekukoaren barreneko mezua, eta ondotik besta izanen da Baionan. *Harro herri* da aurtengo leloa, eta «konplexuak gainetik» kentzeko deia egin dute, baita «euskararen herria» mugitzekoa ere.

Hain zuzen, mugimenduan ariko da Korrika, Irundik Baionara. Bukarera ailegatu aitzinetik kilometro mordoxka egingen ditu Korrikak, eta hiru aldiz egingen du sartu-atera eskualdean. Ateri eta bihar-munean, martxoaren 15ean, ortziralean, Nafarroa Beheretik, Baigorri barna Izpegin sartuko da lekukoa. 226. kilometroa izanen da Baztango lehenengoa, 13:16 aldean Izpegiko lepoan. Erratzu, Arizkun, Elbetze, Elizondo eta Iurrita gurutzatu, eta Baztanen 37 kilometro egin ondotik, 17:05 aldean Artesiagan utzi-ko du eskualdea Korrikak.

Hurrengo egunetan Nafarroan eta Araban ibili ondotik, martxoaren 19an, asteartean Leitzan izanen da Korrika. 1.284. kilometroan sartuko da Leitzako lurretan, 16:05 aldean. Leitzako herrigunea gurutzatuta, Goizueta alderako bidea hartuko du. 18:38an ailegatuko da Goizuetara, eta handik Hernanira aldera egingen du. Denera 39 kilometro



Korrikaren ibilbidea eta eskualdeko herrietako ordutegia. TTPI-TTAPA

**HIRU ALDITAN
GURUTZATUKO DU
KORRIKAK
ESKUALDEA**

**KORRIKA
KULTURALEAN
HAINBAT EKITALDI
IZANEN DIRA**

osatuko ditu eskualdean eta 20:10 aldean sartuko da Gipuzkoara. Tartean, bi herrietako herritarrez gain, aresoarrek eta aranoarrek ere hartuko dute lekukoa, bertzeak bertze.

Bortzirietara, aldiz, martxoaren 24ko goizaldean ailegatu-ko da Oiartzundik barrena. 2.675. kilometroan sartuko da Korrika Nafarroara, Aritxulegi parean, 01:43 aldean. Handik Lesakara 03:25 aldean ailegatuko da. Bera gurutzatu ondotik, Lizuniagan barna Xaretarako bidea hartuko du, eta 04:45ean sartuko da Lapurdira. Bortzirietako tartean aranztarrek, etxalartarrek eta igantziarrek ere hartuko dute lekukoa eskuetan. Xaretan 21 kilometro osatu-ko ditu Sara eta Senpere artean, eta goizaldean, 06:59ean Senpere utzi eta Baionarako bidea segituko du lasterketak.

Kultura sustatuz

Korrika ez da lasterketa hutsa, euskara kultur arloan sustatzeko helburua ere baitu, eta horren barrenean, aitzineko egunetan hainbat kultur ekintza izanen dira eskualdean. Horieta-ko batzuk egin dituzte jada, baina, heldu den egunetan ere egingen dituzte bertze hainbat. Horien artean, bakarrizketak, pailazoen emanaldiak, antzerkiak, bertso afariak, kontzertuak... izanen dira herriz herri. Kultur ekitaldien eta Korrika Ttikien berri ERRAN.EUS atarian aurkituko duzue. Gainera, Arantzan egingen dute aurten Korrika nagusiaren prestaketa, martxoaren 10ean, KorrikArantzaz izenpean. 6 kilometro inguruko ibilbidea osatu-ko dute eta aranztarrek eramanen dute lekukoa eskuz esku.

Azterketak Euskaraz omendua

Korrikaren balioekin bat egin, eta euskararen alde egindako lana aitortzen dio edizio oro AEK norbanakoren edo elkar-terren bateri, eta 23. aldian

Azterketak Euskaraz kolektiboak hartu du aitortza hori. Seaskako ikasleek, gurasoek, irakasleek eta bertze hainbat kidek osatzen dute kolektiboa eta aldarrikapen argia du: Seaskako ikasleek Frantziako hezkuntza sistemak ezartzen dizkien azterketa euskaraz egiteko eskubidea izatea.

Urtarrilaren 25ean egin zioten omenaldia kolektiboari, Hondarribiko Itsas Etxea auditorioan egindako ekitaldian. Bertan izan ziren Seaskako eta Korrikako ordezkariak, eta baita Azterketa Euskaraz kolektiboari buruzko *Oihaletxea* dokumentala sortu duten Lander Garro zinegilea ere. Dokumentalean kolektiboak egindako borroka bildu dute, bertako hainbat kideren testigantzak jasoz. Telebistan eman ondotik, Youtuben ikusten ahal da.

Gaur egun, oraindik ere Seaskako ikasleek arazoak dituzte Frantziako Gobernuak ezartzen dituen azterketa ofizialak osoki euskaraz egiteko. Seaskako irakasle Laida Mugikak azaldu duenez, «ikastolan 3 urtetan hasten direnetik baxoko edo brebetako momentura arte dena euskaraz egiten dute, eta ez da normala ondotik azterketak frantsesez egin behar izatea».

Kolegioa bukatzen dutenean ikasle denek egiten duten azterketa da brebeta, eta duela gutxi arte osoki euskaraz egiteko aukera zuten ikasleek. «Matematikako euskaraz egiten zuten, eta baita historia eta geografiako ere», azaldu du Mugikak. 2017ko hezkuntza erreforman, ordea, zientzietako azterketa bat gehitu zioten horri. «Lehen urtean hutsune bat izan eta euskaraz zuzendu zituzten, baina, geroztik frantses zuzentzaileek zuzenduak izan dira. Iaz lortu genuen euskaraz zuzentzea». Aurtengorako, trabak izanen direla aurreikusitako dute: «Orain erran digute azterketetako galderak frantsesez izanen direla berdintasunaren ize-



Seaskako eta Korrikako ordezkariak omenaldian. KORRIKA



Zugarramurdiko herritarrek 2022ko Korrikan lekukoa eskuetan dutela. KORRIKA

nean. Aurrera pauso bat eta atzera beste bat», laburbildu du.

Baxoan, zailago

Are gordinago da lizeoa bukatzean egiten dute baxoa azterketaren egoera, hor ere aldaketak izan baitira denboraren joanean, eta ez onerako denak. «Duela 20 bat urte historia eta geografia azterketak euskaraz egiten zituzten ikasleek, eta 2012tik baita matematika ere». 2020an gobernuak egindako erreformak, ordea, aldatu egin du egoera: «Gaur egun kontrol jarraitua dute, hau da kontuan hartzen dituzte urte osoan ikastetxean egiten dituzten azterketak, eta ondotik bukaerako frogak fi-

losofian eta bi berezitasunetan izaten dituzte, eta ahozko bat ere izaten dute». Eta hor dago arazoaren funtsa, azaldu duenez: «Matematika eta historia berezitasun dituen ikasle batek orain azterketak frantsesez egin behar ditu, eta hori atzerapauso bat da, lehen euskaraz egiten zituelako. Eta bertze ikasgai batzuetan zuzenean ezin izan dute inoiz azterketa euskaraz egin». Horren aitzinean, eskaera argia dute: «Guk galdetzen duguna da guttienez berezitasun bat euskaraz egitea eta ahozko handian, presatu behar dituzten bi gaietako zati bat behintzat euskaraz izan dadila».

Urtero borroka eginagatik, gaur gaurkoz egoerari buelta

AZTERKETAK EUSKARAZ KOLEKTIBOAK OMENDU DUTE

AZTERKETAK EUSKARAZ EGITEKO ZAILTASUNAK DITUZTE IKASLEEK

ematen zail ikusten duela onartu du: «Baxoarena bereziki aski zaila da, azterketa biziki inportantea baita, eta momentuz ez dugu erantzun baikor handirik ukan». Frantziako Gobernuaren jarrera deitoratu du: «Parisen auziaz hitz egiten dugularik Bordeleko kudeatzen duela erraten digute, eta Bordeleko errektorretzan Parisera bidaltzen gaituzte». Hala ere, baikor da: «Esperantza badugu, bestela ez ginatke borrokatuko».

«Emaitza onak»

Zailtasunak zailtasun, eta azterketa frantsesez egin arren, ikasleek «emaitza onak» lortzen dituztela dio Mugikak. Emaitza horiek, lortzeko, ordea, Seaskako ikasleek lan gehiago egin behar izaten dute: «Kurtso osoa euskaraz egiten dugu, ikasleek badute hiztegi berezi bat, ohitura batzuk... eta gero azterketan frantsesez egiteak estresa eragiten die». Emaitzaz harago, ikasleei azterketak frantsesez egiteak eragiten dien ezinegona nabarmendu du: «Injustizia sentimendu bat izaten dute, ez dute ulertzen dena euskaraz ikasi dutenek zergatik azterketak egin behar dituzten frantsesez, euskararen kontrako mespretxua sentitzen dute».

Korrikak egindako aitortzarekin «kontent» dira kolektibokoak: «Inportantea da Korrika bezalako ekimen batek gu kontuan hartzea gure borroka Euskal Herrira hedatzeko, borroka ezagutzeko eta Euskal Herriko sostengu hori sentitzeko». Omenaldiaren oroitzapen polita du: «Biziki polita izan zen eta dokumentalean ongi biltzen da zertan den borroka, ikasleen sentimenduak...». Eta orain lana egitea egokitzen zaie. «Ikasle batzuk berriki Parisen izan dira diputatu batzuk eskaturik azalpenak ematen. Eta azterketak hurbildu ahala hasiko gara ekintzak egiten gu entzunarazteko».



Jeiki abesbatzako kideak 2023ko urrian Peru Harrin eman zuten kontzentuan. AMAIA IPARRAGIRRE

Mende erdia bete du Jeiki abesbatzak

Urteurren potoloa bete dute leitzarrek eta ekitaldi bakarra ez, lau antolatu dituzte ospatzeko. Lehenbizikoa martxoaren 17an izanen da; Iruñeko Aizaga abesbatzarekin eta Sinfonía Navarra orkestrarekin batera kontzertua eskainiko dute 19:00etatik aurrera Leitzako elizan.

ENERITZ IRAOLA LEITZA
1974. urtean sortu zuten Leitzako Jeiki abesbatza. Mende erdia pasa da geroztik. Ahots batzuk joan dira, berriak etorri eta tartean, badira hasieratik koruko kide direnak ere. Berrogeita hamar urte hauetan, azala aldatu da, baina mamia ez. Musika maitatzea da, baldintza. Ilusioa, beste hainbeste urtean kantuan segitzeko giltza.

Leitzan zegoen abesbatza baten errautsetatik sortu zuten Jeiki abesbatza. Berrogeita bost ahotsek osatzen zuten

hasiera hartan taldea eta tartean zen Joxe Mari Azpiroz, abesbatzako kidea eta gaur egungo Jeikiko lehendakaria. «Ilusioa eta konpromisoa» dira abesbatzaren hasierako urteei buruz hitz egiterakoan gehien aipatu dituen hitzak: «musika zaleak ginen denak, baina inolako musika ikasketa gabeak. Ilusio handia genuen, lanerako gogoia eta orduak eskainita, maila oso altuan ibili ginen hasieratik».

Florencio Irurtia *Pontxitozen* orduan abesbatzako zuzendaria, «berak sortu zuen abes-

batza eta ezin liteke Jeikiren historia azaldu, gizon horrek abesbatzaren alde egindako lan guztia azpimarratu gabe». Hogeita hemezortzi urtez bera izan zen Jeikiko zuzendaria.

Hasierako urteak

Lehenbiziko hamar urteak, «oso biziak» izan zirela azaldu du Azpirozek. Hainbat lehiaketetan parte hartu zuten: «*Pontxitok* uste zuelako horrek abesbatzari hazteko aukera ematen ziola». Sariak ere eskuratu zituzten: «1979an Ejea de los Caballerosen egindako

abesbatzen lehiaketa irabazi genuen. 1982an eta 1983an Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan laugarren postuan sailkatu eta euskal abesbatza onenaren saria lortu genuen. 1981ean Arezzon (Italian) abestu genuen eta 1983an Llangollenen (Galesen) ospatutako abesbatzen lehiaketan polifoniako bigarren saria irabazi genuen».

Emanaldi ugari

Abesbatzen lehiaketetatik aparte, hainbat eta hainbat kontzertu ere eskaini zituzten: «Iruñeko Gayarre antzokian hiru aldiz abestu genuen eta 1982an Loiolako Basilikan Rossiniren *Petite Messe Solennelle* obra eskaini genuen Javier Bello Portug zuzenduta». Obra zaila da eta ikasteko prozesua ongi gogoan dute abesbatzako kideek: «*Pontxitok* kaseteetan banaka grabatu zituen ahotsak eta hilabete eta erdian lortu genuen ikastea. Espainiako Futbol Mun-

diala zen orduan eta ez genuen partida bakar bat ere ikusi». Euskal Herrian, berriz, «Bilboko Arriaga antzokian, Lizarrako Erdi Aroko jaialdian, Oiartzunen, Pasaian...» aritu ziren kantuan.

Abesbatzari eutsi

1983. urtea inflexio puntua izan zen Jeikirentzat: «maila horretan segitzea ezinezkoa zela ikusi genuen. Exijentzi maila oso handia zen eta zertxobait lasaitzea erabaki genuen». Hori bai, kantatzeari uztea ez zuten behin ere burutan izan: «herriko elizkizunetan, ezkontzetan, hiletetan... abesten genuen. Ez ginen kanpora ateratzen, baina horrela eutsi genion abesbatzari».

Proiektuari bultzada

Duela hogeit hamar urte, proiektua berrartu eta bultzada eman zioten Jeikiri: «orduan hasi ginen berriz ere burubelarri lanean». Haendl, Bach, Schubert, Mozart... konpositore ezagunen obrak landu zituzten «eta 2008an Mozarten Requie-ma lehenbizikoz Leitzan abestu genueneko oso berezia izan zenguretzat». Ongi gogoan ditu Carmen Azpirozek *Pontxitoren* hitzak: «kontzertua bukatu genuenean, 'orain lasai hil naiteke' esan zidan. Ederra izan zen benetan». Paraje berezietan abesteko aukera ere izan dute etapa berrian: «Leitzalarrean, Itzaietan, Chillida Lekun eta 2012an Zugarramurdiko lezeetan eman genuen *Pontxitok* zuzendutako azkeneko kontzertua».

Zuzendari aldaketa

Nekane Piñuelak hartu zuen orduan abesbatza zuzentzeko ardura: «2012tik 2023ra arte bera izan da Jeiki abesbatzako zuzendaria». Zuzendari berri bat iristen denean, abesbatza bat guztiz alda daitekeela uste duen arren, «Jeikik bere esentzia beti mantendu» izan duela dio Azpirozek, «baina eboluzio bat egon zela esan dai-



Joxe Mari Azpiroz, Jeiki abesbatzako lehendakaria. E.IRAOLA

teke. Ordura arte, batez ere, Errenazimenduko obrak abesten genituen. Hasiak ginen Mikel Laboa, Lete, Lertxundiren abestiak ere lantzen, baina Nekanerekin garai berrietara egokitu genuen gure errepertorioa». Hala ikasi zituzten: «*Lau teilatu, Itsasoa gara...* baita teknika berriak ere. Euria ari duenaren soinua egin dugu kanturen batean, dantzatu...». Batekin zein bestearekin hizkuntza ez da inoiz

muga izan: «latinez ziren hasierako obra gehienak. Gero euskaraz, errusieraz, ingelesez, alemanieraz, italieraz... abestu izan dugu. Nola esan behar den ondoan idatzi eta moldatzen gara».

Abesbatzako kide kopurua izan da bide berriak lantzeko arrazoiak: «desoreka handia dago emakume eta gizonezkoen artean. Gaur egun, berrogeita lau gara koruan eta hamalau baino ez gara gizo-

nezkoak. Hori ikusita, azkeneko emanaldietan izan dira emakumeek bakarrik abestu dituzten kantuak».

Pandemia

Espero ez zuten egoera bati ere aurre egin behar izan zioten 2020an: «pandemia etorri zen eta egoera kritikoa izan zen abesbatza askorentzat». Beraiek harro esan dezakete «eustea» lortu zutela, baina ez zela erraza izan aitortu du: «esfortzu handia zen, entseguak musuko bereziekin egiten genituen eta kantatzeko itogarria zen». Abesten segitzeko gogoa gailendu zen, ordea, traba guztien gainetik.

Zuzendari berria

2023ko urrian zuzendu zuen azkeneko kontzertua Nekane Piñuelak. Vinaixa Gartzia hernaniarrak hartu du orain lekukoa: «Peru Harrin egin genuen kontzertua ikustera gonbidatu genuen, proposamen bat egin eta segituan eman zigun baiezkoa». Azaro hasieran egin zuten lehendabiziko entsegua elkarrekin eta lanean ari dira geroztik.

Konpromisoa

Asteban bitan izaten dute hitzordua Leitzako Udalak uzten dien lokalean, «eskertzekoa da udalak beti eman izan digun laguntza. Gaur egun, Leitzako Herri Aretoan elkartzen gara». Bertan hasten da magia, «milaka orduko lana. Abesbatza bat ez baita oholtzara atera eta kantatzea, askoz gehiago da. Ordu asko, anekdota asko... bizipen asko. Nire kasuan bizitza oso bati lotutako bizipenak dira».

Urteurreneko ekitaldiak

Abesbatzaren 50. urteurrena ospatzeko zerbitu berezia egitea bururatu zitzairen eta «argi izan genuen halabeharrez musikarekin lotua egon behar zuela antolatzen genuenak». Duela bi urte hasi ziren antolaketa lanekin eta «lau ekitaldi izanen dira azkenean». —>

50. urteurreneko ekitaldiak

- **Martxoaren 17an:** Jeiki abesbatzaren, Iruñeko Aizaga abesbatzaren eta Sinfonía Navarra orkestraren emanaldia Leitzako elizan, 19:00etan.
- **Maiatzaren 4an:** Jeiki abesbatzaren eta Iruñeko Orfeoia-aren emanaldia elizan.
- **Ekainaren 15ean:** Jeiki abesbatzaren, Lesakako Musika Bandaren, Leitzako txistularien, Aurrerako dantzarien, Leitzako Konpartsaren, gaitarien eta bertsolarien emanaldia herriko plazan.
- **Irailaren 21ean:** Jeiki abesbatzaren eta Iruñeko Ganbara Abesbatzaren emanaldia Herri Aretoan.

* Emanaldietarako sarrerak egunean bertan, saioa hasi baino lehenago, jarriko dituzte salgai hamabost euroren truke.

→ Lehenbizikoa martxoaren 17an izanen da 19:00etan Leitzako Elizan: Iruñeko Aizaga abesbatza eta Sinfonía Navarra orkestrako kideekin *Fauré-ren Requiem*a interpretatuko dugu». Ekitaldira sartzeko hamabost euro ordaindu beharko dira.

Iruñeko Orfeoia

Maiatzaren 4an Iruñeko Orfoiarekin emanaldi berezia eskainiko du Jeikik. Ekitaldi horretarako harriari buruzko kantu bat sortzeko eskatu diogu konpositore bati, harritzko txalapartarekin joko dituzte zati batzuk eta orduan egingen dugu estreinaldi ofiziala». Ez da izanen emanaldiko berezitasun bakarra: «Leitzako txistulariek ere parte hartuko dute eta bi kanta elkarrekin abestuko ditugu Jeikik eta Iruñeko Orfoiak. Kanta horietako bat Vinaixa Gartzia zuzenduko du eta bestea Igor Ijurak, Iruñeko Orfeoiko zuzendaria.

Ekainean festa

Ekainaren 15ean, Jeikiren bueltan festa handia antolatuko dute, «herri osoa jai giroan sartzea nahi genuke». Leitzako plazan emanaldi berezia eskainiko dute eta gonbidatu bereziak izanen dituzte: «Lesakako Musika Bandak, Leitzako Jeiki abesbatzak, Leitzako txistulariek, Aurrerako dantzariak, Leitzako erraldoi eta buruhaundien konpartsak, gaiteroek eta bertsulariek parte hartuko dugu». Jeikiko abesbatzako kide izan diren guztiarekin ere zerbait berezia prestatu nahi dugu: «berrogeita hamar urte hauetan, 120 lagun inguru ibili gara Jeikin».

Iruñeko Ganbera abesbatza

Udazken atarirako gorde dute Jeiki abesbatzaren urteurreneko azken ekitaldia izanen dena. Irailaren 21ean, Iruñeko Ganbera abesbatza gonbidatu dute eta Leitzako



Jeiki abesbatzakoak Llangollenen egindako lehiaketan 80. hamarkadan. UTZITAKOIA

Herri Aretoan eskainiko dute kontzertua.

Erakusketa Herri Aretoan

Horretaz gain, erakusketa bat antolatzeko asmoa ere badute Leitzako Herri Aretoan: «urte hauetan guztietan ateratako argazkiak jarri nahi ditugu ikusgai eta bilketa lana egiten ari gara. Txapelketetan erabiltzen genituen garai bateko jantziak ere ikusgai jarri nahi ditugu».

Ekitaldien gastua

Maila honetako ekitaldiak antolatzeak, gastu ekonomiko bat ere badakar berekin. Horri aurre egiteko Nafarroako Gobernuak ematen duen aukera baliatu eta Mekna kanpainan aurkeztu dute proiektua. 150 euroko ekarpenak eskatu dituzte eta dagoeneko 115 lortu dituzte: «horrek diru poltsa bat osatzeko aukera eman digu». Ekarpena egiten dutenei

errenta aitortpena egiten dutenean % 80a itzultzen dietela azaldu du: «guk 150 euro jasotzen ditugu, baina jendearen poltsikotik 30 euro ateratzen dira». Aurten laguntza eman dietenei esker tzeko, «lau emanaldietarako sarrerak oparituko dizkiegu». Abesbatzak antolatu ditza keen ekitaldi desberdinak finantzatzeko garaian, bide bat ireki diela ikusita, «aurten ere proiektua bultzatuko duten laguntzaileen bila ari dira».

Etorkizuna

Abesbatzako kideak etorkizunera begira jarriak daude eta orain arte bezala bizirik nahi dute Jeiki. Horretarako, taldekide berriak lortzea izanen da erronka handiena: «berrogeita lau gara gaur egun. Emakumeak gehiago dira. Gizonezkoetan oso eskas gabilta, 14 gaude. Desoreka badago eta adinean gora goaz. Asmatu behar dugu jendea erakartzeko». Ez dira aukera txarra urteurreneko ekitaldiak, musikaren harra barruan duenari dantzaz jartzeko. Ateak irekita dituzte abesbatzan: «ikusi, etorri eta proba dezatela zer den hau».

Vinaixa Gartzia, zuzendari berria

Duela lau hilabete hartu zuen Nekane Viñuelaren lekukoa Vinaixa Gartzia hernaniarrak. Leitzara ailegatu zenean: «oso batua dagoen koru batekin» topo egin zuela nabarmendu du: «denek zentzu berean arraun egiten dute. Nabari da proiektuarekin segitzeko ilusioa dutela». Ez du nolana hiko erronka onartu: «zuzendari bakoitzak badu bere estiloa, lan egiteko modua... abesbatza bakoitzak ere bai. Talka antzeko bat dago hasieran eta elkarlanak funtziona dezan, konfiantza da gako». Zuzendariaren egitekoa, «abesbatza entzun eta hobetzeko moduak ematea da, dituzun erramintak aplikatzen jakitea».



Azaroan hasi zen. KRONIKA

«Asteko hitzordu kuttunak dira abesbatzako entseguak»

AINARA DE MIGUEL JEIKI ABESBATZAKO KIDEA

«Oreka, pasioa, ilusioa, emozioa, bibratzea» hitz horiekin definitzen du Jeiki abesbatza Ainara De Miguel leitzarrak. Ez hori bakarrik, kantuan hasten direnean, «mundua gelditu» egiten dela dio. Azpimarratu du, «asteen zehar ditudan rol guztiak ahaztu eta musika dantzan hastea, sentitzea, kuttunen artera biltzea, notak eta ahotsak, etxekoen ahotsak, denak batera...» hori ere badela abesbatzako kide izatea.



UTZITAKO ARGAZKIA


Iaz hasi zen Jeikin, baina bizitza osoa darama musikari lotuta, «hogei urtez aritu nintzen Leitzako Asketa abesbatzan kantuan eta urteak neramatzan korua utzita». Musikaren harra barruan, «abesbatzako giro hori faltan sumatzen» zuela aitortu du eta hala, berriz hasteko aukera ikusi zuenean, ez zuen zalantzarik izan: «Jeiki abesbatzan hasi nintzen». Ez da damutu emandako pausoaz. Geroztik, «asteko hitzordu kuttunenak dira entseguak eta kontzertuak emozioen kedadak».

Urteurren ekitaldi potoloa dute esku artean, lau ekitaldi denera, eta lantzen ari diren «obra zoragarria» dela nabarmendu du De Miguelek. Ez da gutxiagorako, «berrogeita hamar urte betetzea ez da nolana hiko urteurrena. Edozein proiektu ezin dezake esan horretara ailegatu denik». Arrakastaren funtsa, abesbatza definitzeko erabiltzen dituen hitzetan dago.

«Entseguetako anekdota tikiak bizigarriak dira abesbatzarentzat»

KEPA MATEORENA JEIKI ABESBATZAKO KIDEA

Etxekoen bultzada behar izan zuen Kepa Mateorenak zalan-tzak alboratu eta Jeiki abesbatzan hasteko. Hogeita bi urte daramatza bertan kantuan eta argi dio: «ez zait batere damutzen. Oso gustura nago». Abesbatzak, «sozializatze» aukera ematen diola nabarmendu du: «musikarekin zerbait desberdina bizitzeko tartea. Oso ongi moldatzen gara gure artean eta bizipen kolektibo hori ere uste dut garrantzitsua dela». Herrian bertan, gustuko duen hori egiteko «aukera ezin hobea» eskaini dio Jeikik eta entseguetarako behar den denbora ateratzea erraza ez den arren, «merez du, dudarik gabe». Abesbatzan hainbat aldaketa izan dira urte hauetan guztietan. Mamia, ordea, mantendu da: «giro ezin hobea izan dugu beti. Entseguetan anekdota tiki asko izaten dira eta horiek bizigarriak dira abesbatzarentzat». Hori izan da, akaso, hainbeste urtean abesbatzak lanean segitzeo sekretua: «pandemiari ere aurre egin genion eta, nire ustez, horixe izan da abesbatzaren lorpen handienetakoa». Oroitzapen bereziak gogora ekartzeko eskatutakoan «Leitzalarrean naturaren erdian» eskaini zuten kontzertua «izugarri berezia» izan zela dio. Abeslari bezala, berriz, Mozarten requiema kantatu zutenekoa mugaria izan zen beretzat. Urteurreneko ekitaldiek ere utziko dute arrastoa: «herriari ospakizun berezi bat eskaini nahi diogu. Nik uste kontzertu eta ekitaldi bereziak izanen direla. Bada ospatzeko nahiko motibo».



UTZITAKO ARGAZKIA

«Kantuan aritzea arnasa hartzea bezala da niretzat»

CARMEN AZPIROZ JEIKI ABESBATZAKO KIDEA

Hamazazpi urte zituela sartu zitzaion musikarako harra barrenean: «gogoan dut negua zela. Etxe bateko sarreran *Navucoren koruak* ikasten ari ginen. Kanta horrek badu zati bat lau ahotsetara kantatzen dena. Denok batera kantuan hasi ginenean, ez zait behin ere ahaztuko zer sentitu nuen. Orduan maitemindu nintzen koruaz eta musikaz». Luze iraun dio maiteminak. Jeikiko kide beteranoenetako bat da: «abesbatzak bizitza ematen dit». Egun

osoan, ahapeka kantuan aritzen den horietakoa omen da: «ez dut askorik behar. Kantuan aritzea arnasa hartzea bezala da niretzat». Abesbatzan topatu du gustuko tokia: «giro oso ona izan dugu beti, umore oneko pertsonak gara eta elkar ongi hartzen dugu». Entseguetan kontzertuetan baino gehiago disfrutatu eta hitzordu horiek «sokratuak» dira beretzat: «konpromiso handia eskatzen du eta ongi antolatzea, baina koruak aukera eman digu emakumeoi



E. IRAOLA

bestela guretzat hartzen ez dugun denbora hartzeko». Jeikiren eboluzioa bistakoa izan dela uste du. Ongi gogoan ditu hasierako urteak: «hutsetik hasi

ginen. Kantatzea gustuko genuen, besterik ez. Dena belarriz ikasten genuen, errepikapenaren errepikapenez». Ez zen hori muga izan Mozarten *Requiema* edo Rossiniren *Petite Messe Solennelle* ikasteko. Orduak eskainiz ikasten joan dira «eta jakiteak segurtasuna ematen du». Bidaiazteko aukera ere izan du, «1981ean Arezzon (Italia) eta 1983an LLangollenen (Galesen) izan ginen. Etxetik urruti egiten genuen lehenbiziko bidaia luzea zen askorentzat. Oroitzapen oso politak ditut». Urtetako esperientzia bizkarrean eta ilusioa agerian uzten du bere hitz bakoitzean: «musikak duen efektua da hori».

Errigoraren 'Eutsi gureari' udaberriko kanpaina abian

Eskaerak egiteko epea irekia da dagoeneko eta martxoaren 13a izanen da azken eguna

TTIPI-TTAPA

Nafarroa hegoaldean euskara sustatzeko helburuarekin, Errigorak hasi du udaberriko kanpaina. Martxoaren 13ra arte eros daitezke oliba olio birjina estra, ardoa, kontserbak, arroza, fruitu lehorrak, pasta eta lekalesortak ekoizleen prezioan eta euskaraz etiketatuta.

Eutsi gureari da aurtengo udaberriko kanpainaren funtsa, «egindako bideari begiratu, oinak gaurko lurretan sentitu eta aurrera pausak emateko deia» egin dute kanpainaren antolatzaileek.

Azken urteetako eskema errepikatuko dute aurtengoan ere: urte guztirako eskaerak egitea da planteatzen dutena eta, hortaz, oliba-olio birjina estra bortz litroko bidoietan eskainiko dute eta gainontzeko produktuak 12 unitateko sortetan, arroza eta dilista eta txitxirio lehor ekologikoak izan ezik; horiek 6kiloko lotetan banatuko dira. Horrekin batera, hainbat berrikuntza ere izanen dituzte: ardo bereziak, ardo gorenak eta ilar gorrien kontserba ekologikoak eta ez ekologikoak.



Hainbat kontserba erosteko aukera daude udaberriko kanpainan. ERRIGORA

Eskaerak *errigora.eus* webgunean egin behar dira. Sarean eskaerak egiteko gai ez direnek telefono bidez, Hego Euskal Herritik +34 848 87 12 23 eta Ipar Euskal Herritik +33 532 09 35 45 zenbakira deituta egin dezakete. Banaketa apirilaren azken astean eta maiatzaren lehenengoetan egitea aurreikusia dute eta, salbuespenak salbuespen, produktu guztiak salbuespen, produktu guztiak aldi berean banatuko dituzte. Eskaera egiterakoan norberak

aukeratu behar du produktuak biltzeko puntua eta bertan zehaztutako egun eta ordutegian pasa beharko da biltzera.

Lehiaketa

Errigorako bi saski zozketatuko ditu TTIPI-TTAPAK ERRAN.EUS atarian egindako lehiaketan parte hartzen dutenen artean. Zozketan parte hartzeko, parte hartzaileek ongi erantzun beharko dituzte galderak, eta asmatzaileen artean egingen da zozketa.

Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13



errigora.eus

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



errigora



Emakume pentsiodunek ere duintasuna nahi dute

Nafarroako azken datuen arabera, emakumezkoen pentsioak gizonezkoenak baino 500 euro baxuagoak dira, eta guttieneko pentsioa kobratzen dutenen artean % 66 emakumezkoak dira. Agerikoa da generoen arteko aldea

G. PIKABEA

Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan, emakume pentsiodunei begira jarri da TTIPI-TTAPA, pentsioetan ere agerikoa baita genero arrakala. Zenbakiak dira testigu. Konparazio batera, aurtengo ilbeltza-

ren leko datuen arabera, 131.742 pentsiodun daude Nafarroan. Horietatik % 48,2 emakumezkoak dira eta bana bertze hila-betero 1.298,71 euro hartzen dituzte. Gizonezkoek hartzen dutena dezente kopuru altuagoa da: gizonezkoek bana bertze

hilabetean 1.812,22 euro hartzen dituzte, 513,51 euro gehiago.

Espainiako Gobernuak gutxieneko pentsioak igo ditu, baina oraindik ez dira pentsiodunen mugimenduak behin baino gehiagotan eskatutako 1.080 eurora ailegatu. Baztan-Bi-

dasoko Pentsiodunen Mugimenduen hasierako aldarrikapena ere hori bera izan da eta Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari pentsioa hamalau ordainsaritan 1.080 eurora osatzeko eskatu die. Helburu horrekin Berako, Lesakako, Sunbillaiko, Baztango eta Doneztebeko udaletan mozioak aurkeztu ditu eta denetan onartu dituzte. Hor ere bada bertze datu deigarri bat. Egun, Nafarroan 51.366 lagunek hartzen dute guttieneko pentsioa eta horrek ere emakumeen aurpegia du; % 66 emakumezkoak dira.

Pentsiodunen egoera hizpide hartuta, eskualdeko bertz emakumezko pentsiodunekin bildu da TTIPI-TTAPA. →

«Aurreztu duen autonomia duin bizi daiteke baina bertzela nahiko lanekin»

ELIXABET BADIOLA LEON DONEZTEBEN BIZI DEN DONOSTIARRA

«Denboraldi labur batez bulego batean» lan egin zuen Elixabet Badiolak. Ondotik, «Donostiako Udal Aurrezki Kutxan helduen hezkuntzan» aritu zen eta aldi berean, «filosofia ikasketak» egin zituen. Duela 34 urte, ordea, Donostiako bizitza alde batera utzi, eta senarra eta bi alabekin, Donamariara etorri zen bizitzera. Senarra eta biek zabaldu zuten Donamariako Benta, «lehenbizi jatetxea eta gero hotela». Aitortu du bere bizitza «etengabeko borroka» izan dela: «oso gazterik ezkondu nintzen, lana, ikasketak, bi alaba... Donamariara etorri ginenean dena martxan paratzea ere zaila eta gogorra izan zen. Niretako ez da deus erraza izan bizitza honetan, baina gauzak egiteko gogoarekin eta esfortzuekin aitzinera egin dugu».

Literaturari lotuta

Bere ibilbidea ez du horretara mugatu eta «azken hamaika urteotan lau eleberrir argitaratu ditut. Donostian bizi nintzenean olerki liburu bat ere argitaratu

nuen». Hainbertze maite duen pasio horrekin segitzen du orain ere: «Gaur egun idazten segitzen dut. Elizondon idazketa tailer batean parte hartzen dut, baita Doneztebeko literatura tailerrean ere. Donostian Luisa Etxenikerekin bertze literatura ikastaro batera ere joaten naiz».

Hain zuzen, Doneztebeko tailerrean «emakumeek idatzitako liburuak irakurtzen» omen dituzte, eta momentu honetan literaturako Nobel saria hartu duen Annie Ernaux idazlearen *Emakume izoztua* liburuak dute esku artean. Hango aipu bat ekarri nahi izan du gogora: «Ama izan eta bere ibilbide profesionala garatu nahi duen emakume baten zailtasunak kontatzen ditu eta bada gustatu zaidan esaldi bat: *Ugalketa eta garapen profesionala antagonikoak dira, kontrako noranzkoan doazela eta kontziliaezinak direla*». Badiolaren ustez, «argi adierazten du egoera». Horren harira, «libreago bizi izan diren bertze emakumeen liburuak irakurriz aunitz ikasten ari direla» gaineratu du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Emakume pentsiodunak

Emakume pentsiodunen egoera ere hizpide hartu du: «Batzuek lan eta soldata egokia izan dute eta jubilatuta, duin bizitzen ahal dira; bertze batzuk ez dute etxetik kanpo lanik egin eta menpekotasun ekonomiko ikaragarria duten senararekiko». Bere irudiko, «horiek dira mailarik baxuenean daudenak. Senarrak soldata ona baldin badu eta harekin harreman ona baldin badute, ongi, baina ongi moldatzen ez badira, zer?». Eta autonomoen «egoera hagitz txarraz» ere aritu da: «Aurreztu duenak pixka bat dezente bizi-tzeko aukera izanen du, baina aurreztu ezin izan duenak nahiko lan. Badira bizitza osoa

beraien negozioa dedikatu eta aldi berean etxeko lanez eta zaintzaz arduratu direnak, eta orain gelditu zaien pentsioarekin ezin dira duin bizi». Hala, aunitzek kobratzen duten «miseria» eta «bizi duten drama» salatu nahi izan ditu. Ez da hori bakarrik. Pentsiodun aunitz «ekonomikoki seme-alabei laguntzen ari direla» ere aipatu nahi izan du, «seme-alaben soldata baxuekin ezin dutelako bizi. Beraz, pentsioa alde guzietara zabaltzen da». Are gehiago: «Antiojo batzuk, plantilla batzuk edo bertze edozein gauza behar baduzu, 800 euroko pentsioarekin bizirautea drama bat da».

Bide batez, emakume pentsiodunei «jakin-mina eta ikasketeko gogo mantentzeko eta harremanei eta afizioei tokia eginez beraien burua errespetatzeko» deia egin nahi izan die, «familiarrekin eta lagunekin gozatzeaz gain, bakarrik egoten ikasketo eta gozatzeko. Gauden adinean bakarrik egoteak aunitz erakusten ahal digula uste dut». Berari dagokionez, «nire biziaz gozatzen segitu nahi dut, nire familiarekin eta nire lagunekin, neure buruan eta gainerakoetan sinesten segituz».

«Beti garbi izan dut nire jornala eta nire gauzetarako askatasuna nahi nuela»

GURUTZE AZKARATE IANTZI ZUGARRAMURDIN BIZI DEN ANIZTARRA

«Nik beti garbi izan dut nire soldata izan nahi nuela, ez nuela senarraren bizkar bizi nahi». Halaxe aitortu du Gurutze Azkaratek, eta halaxe egin du.

Gaztetxoa zela Batxilergoa ikasi zuen, «lehenbiziko bi urteak herrian egin eta kolegiara Zaragozara bidali ninduten lehengusu batekin». Handik Bartzelonara jo zuen: «Ez nuen argi zer egin nahi nuen. Aitak bazituen hiru arreba Bartzelonan moja eta hara joan nintzen, urtea pasatu nuen». Euskal Herrira bueltan, «Donostiara joan nintzen administrari ikasketak egitera eta hura akituta, Bidarraira, frantsesa lantzeko». Segidan lan mundura salto egin zuen: «Hostal Baztanen udan hamar urtez harreran aritu nintzen eta

neguan zazpi urtez Candanchuko hotel batean». Ezkonduta utzi zuen kanpoko lana: «Zugarramurdira ezkondu nintzen eta hasmentan ez nuen lanerako aukerarik ikusi. Gainera, bi haur izan nituen eta lehenbiziko urteak haiekin pasatu nituen».

Berak, ordea, garbi zekien zer nahi zuen: «Gaztetatik garbi nuen nire jornala nahi nuela, eta «Correosen ordezkapenak egiten hasi nintzen. Tarte horretan seme-alabak etxe batean uzten nituen. Ordu batzuetako afera zen». Ez du atzendua emazteki batek aurpegiatutakoa: «Kanpora lanera ateratzeko etxeko gauzak aise uzten nituela erran zidan». Haurrak «lehenbizi Sarara hasi ziren eskolara, gero Senperera kole-



UTZITAKO ARGAZKIA

giora eta Hazparnera lizeora. Senarrak eramaten zituen eta nik arratsaldetan hartu, eta lana bilatzeko ez nuen erraza izan. Haurrak koskortzen hasi zirelarik, iparraldean lanean hasi nintzen, eta azken hogeitaz urteak han egin nituen etxeko lanetan. Igual zitzaidan zer lan egin, nire irabaziak nahi nituen». Honela dio: «Garai hartako jendea nahiko matxista zen, baina nik jen-

de matxistari ez diot sekula kasurik egin. Nire gauzak egiteko askatasuna nahi izan dut beti eta ikastaroetara, lagunekin kontzertuetara, bertso saioetara, filmak ikusterara... joan izan naiz. Ez dut sekula trabarik sentitu, baina izanda ere, aitzinera egin izanen nuen». Gaur egun ere orduan bezain aktibo segitzen du: «pintatzea maite dut, musika, kantatzea eta antzerkia ere bai, mendian ibiltzea ere gustuko dut, nahiz eta orain belauneko arazoengatik ezin dudana, eta denaren gainetik irakurtzea dut gustukoena».

Iparraldean lanean arituta eta Hegoaldean «senarraren gurasoak jubilaturakoan baserriko lanean parte hartuta», bi tokitatik hartzen du pentsioa eta «kontent» da hartzen duenarekin. Baina badira protestarako arrazoiak: «Emaztekiak beti zapatuak izatea ez da onartzen ahal. Borrokan segitu behar dugu».

«Mutiko gazteek kezkatzen naute, ez baitira berdintasunaren aldekoak»

ANDONE GARDE SAHARRA GARTZAIN

«Emazteki izateagatik bidea zailagoa den? Bai, noski! Alde batetik, kanpoan lan egin eta etxera etorritakoan lanean segi. Hori barneratu dugu eta lan zama beti emaztekiendako izan da. Bertzetik, gizonkiek baino soldata baxuagoa izan dugu». Andone Garderen hitzak dira eta «behingoz egoera hobetzeko beharra» agerian utzi nahi izan du.

Bere kasuan, eskolan ibili zen: «urte batzuek interna Mugairin eta hiru urtez Bilbon». Handik laster, «20 urterekin ezkondu eta bi ume izan nituen». Bateko eta bertzeke lanetan ibili zen, eta 28 urterekin «Elizondoko zahar etxean sartu nintzen. 2019an erabateko erretiroa hartu nuen». Datu bat eman du: «35-36 urte egin ditut zahar

etxean, eta horietatik 33 borrokan. Hasi ginelarik egun bat eskas libratzen genuen eta egun osoa lan egiten genuen, ez xatarrik, ez eskularrurik... Pixkanaka, borrokatuz, baldintzak hobetzea lortu genuen». Duela 15-16 urte publikoa zena ez pribatizatzeke egindako borroka ere ez du atzendua: «Denak kontra ginen, baina pribatizatu zuten. Aldaketa handia izan zen, txarrerako». Eta orain, baidakor da berriz publikoa baita: «Onerako izanen da. Baztanek bere zahar etxea behar du, ez sosa bertzerik nahi ez duten kanpoko bertze norbaitekudeatua». Gaia hizpide hartuta, «animoak» bidali dizkie zahar etxeko langileei, eta «jendearen babesa» ere eskatu du, «lan gogorra da eta ez da ulertua».



UTZITAKO ARGAZKIA

Zahar etxetik kanpo, berdintasunari dagokionez «egoera okertzen» ari dela dio: «Gazteek kezkatzen naute, ikusten eta aditzen dudana, ez baitira berdintasunaren aldekoak. Kezka handia sortzen dit mutiko gazteek neskak eta andreak errespetatzen ez dituztela ikusteak». Horrekin batera, «oraino gizonkiek aise baldintza hobeak» dituztela kritikatu du: «Gizonkiek nahi dutena

egiten ahal dute, eta emaztekiei beti bertze begi batzuekin begiratzen digute. Oraino bada terrazan edo kanpoan jarrita bazaude, horregatik gaizki sentiaraziko zaituen jendea».

Pentsioen alorrean ere, murrerago ikusten ditu emaztekiak: «Bizi guzian gizonkiek gehiago ordaindu diete, eta ez dutenez geldialdirik egin, pentsio altuagoa dute. Emazteki aunitzek umeak edo gurasoak zaintzeko lana utzi dute eta bertze aunitzek ez dute lan ordaindurik egin eta deus gabe gelditu dira. Bada diferentzia ederra, eta alargun geldituta, zer erranik ez». Horregatik uste du «pentsio duinak izateko oraino aunitz borrokatu» behar dela, eta gehiago ere erran du: «ez da aski borrokatzen».

Egoera ikusita, «berdintasun gehiago» eskatu du: «Ea egoera hobetzen den eta behingoz emaztekiak bakean lasai bizitzen ahal garen».

«Mundu hau pixka bat aldatu nahi badugu, zerbait egin beharko dugu»

MARI KARMEN ETXEBERRIA ELIZALDE GOIZUETA

Aski gaztetatik ikasi du zer den lana Mari Karmen Etxeberriak. Haurra zela besteak zaintzea tokatu zitzaion, eta zaintzan ez ezik, fabrikari eta eskolako garraioan aritua da, besteak beste. Duela hiru urte erretiratu zen: «Gaur egun, jubilatuta, libertate gehiago dut. Gurasoak zaintzen urte batzuk egin ditut, baina orain gehiago mugitzen naiz. Beti oso parrandazalea izan naiz eta hala segitzen dut».

Hamar urte baino ez zituela, baserrira joan zen, «gazteagoa zen lehengusuari eskolara joaten laguntzeko». Hamaika urterekin, berriz herrira bueltatu zen, «tailerra eta autobusak zizuten izeba-osaben etxera. Gurasoak baserrira joan ziren, atona gaixotu zelako, eta ni

herrian gelditu nintzen izeba-osabekin. Lau urte zituzten, berehalaxe bosgarrena etorri zen eta umeak paseatu, enkarquak egin... ibiltzen nintzen».

Hamazazpi urterekin altzari fabrika batean hasi zen, eta «36 urtera arte» aritu zen. Ondoko urteetan, ordea, «etxe aldetik» ibili zen: «Bi alaba izan nituen eta...». Berriz bueltatu zen karpoko lanera eta «Aranoko eta Goizuetako baserrietako haurrak eskolara eramateko garraioan laguntzaile» eta «bospasei urtez neskato bat zaintzen» ibili zen.

Batean eta bestean lan egiteak pentsioa hartzeko bidea eman dio eta «senarrak eta biok kobratzen dugunarekin ongi bizi» direla dio. Baina jakitun da denak ez daudela egoera berean: «Bizia



UTZITAKO ARGAZKIA

asko garestitzen ari da eta pentsio asko ez dira nahikoak gastuak ordaintzeko; zer esanik ez alokairua ordaindu behar bada».

Gainerakoan, bere bidean ez du trabarik sumatu emakume izateagatik: «Fabrikari aritu nintzenean, emakumezkoak eta gizkonezkoak berdinduz kobratzen genuen». Halere, ezagutu ditu bestelako egoerak: «Eskola hamalau urterekin utzi nuen.

Gure atak bi ahizpa zaharrenak josten ikastera bidali gintuen, nahiz eta niri ez gustatu. Anaiek herritik atera eta pixka bat gehixeago ikasteko aukera izan zuten, baina guk ez. Gure ataren pentsaera hori zen».

Berdintasunari erreparatuta, gaur egun «egoera pixka bat aldatzen ari dela» ikusten du, baina «oraindik aldatzeko gauza pila daude». Gehiago ere bai: «Denetarik kasuak izan dira, baina oraindik ere agerikoa da gizonen eta emakumeen arteko aldea. Ez dakit behin ere lortuko den berdintasuna».

«Zer egina badela» ikusita, urtero bezala, martxoaren 8an «zeozer morea jantzita» kalera ateratzeko asmoa du Etxeberriak: «Mundu hau pixka bat aldatu nahi badugu, zerbait egin beharko da. Protestarik gabe, ez dugu deus lortuko, eta hori emakumeen egunean bezala, gainerako guztietan».

«Etxean geldituta ez dugu deus lortuko, egoera hobetzen saia gaitzen»


LIRIA ASENSIO GOMEZ SORTZEZ BIZKAITARRA BERAN BIZI DA

la bere ibilbide profesional guzira ostalaritzari lotua egin du Liria Asensiok. Sortzez bizkaitarra da, baina 53 urte daramatza Beran. Batxilergo ikasketak Bordelen (Frantzia) egin zituen: «Nire asmoa Bordelen unibertsitatean segitzea zen, baina atak Beran lurra erosi, etxe bat egin eta Botxo ostua ireki zuen. 20 urterekin Berara etorri behar izan nuen». Hasieran, «hiru urtez frantseseko klaseak eman nituen, baina atak Botxon lana egin behar zela erran, eta hor hasi nintzen. Jubilatuta arte hor aritu naiz, eta nirekin batera, senarra. Semeek ere probatu zuten, baina ez segitzea erabaki zuten». Gaur egun, ostua errentan emana dute.

Bikotekideak eta biak bidea elkarrekin egin dute, «lana eta

semeen zaintza partekatuz. Herri mugimenduan ere elkarrekin ibili gara eta hala segitzen dugu». Alde horretatik ez du generoen arteko alderik nabaritu: «Gure etxean denak hagitz feministak gara». Baina oro har, «zaintza, automatikoki, emakumeen esku gelditzen dela» ikusi du; «soldatetan ere bada aldea, baina jendea ez da hainbertze solastatzen soldatatz». Bertze desberdintasun bat ere sumatua du: «euskaratik ikasteko taldeetan, kultur ekitaldietan... gizonak apenas ikusten dira. Baina gero zerbait eskatu edo erabaki bat hartu behar denean, emakumeengan konfiantza edo ausardia falta sumatzen dut».

Gaur egun, Baztan-Bidasoko Pentsiodunen Mugimenduan dabil buru-belarri, eta «pentsio



UTZITAKO ARGAZKIA

ttikiena dutenak emakumeak» direla erakusten duen datu bat eman du: «Nafarroan 50.000 lagun baino gehiagok 1.080 eurotik beheitiko pentsioa dute eta horietatik % 66 emakumeak dira». Autonomoen egoera ere ez da ona: «Gu biok autonomoak gara eta ostatuaren errentari esker ongi bizitzen ahal gara. Bertze aunitz okerrago daude. 500 edo 600 euro kobratuko dituzte». Horrek sortzen duen

ezintasuna ikusita, Baztan-Bidasoko Pentsiodunen Mugimenduarik 1.080 euroko guttieneko pentsioa bermatzeko eskatu dio Nafarroako Gobernuari, «adibidez, norbaitek 800 euro kobratzen baditu, 1.080ra artekoa gobernuak ordaintzeko». Helburu horrekin, mozioak ere aurkeztu dituzte eskualdeko hainbat udaletan eta denek onartu izana «eskertu» du. Aldi berean, «borrokaren beharrez» aritu da: «Etxean isilik, negarrez edo kekuka gelditzen bazara, ez duzu deus aitzinatuko. Baina mugitu eta jendearekin solastatzen bazara, lagundu eta parte hartzen baduzu, agian lortuko duzu». Aitortu digu «triste» iruditzen zaiola «gehien behar dutenak ez mobilizatzea», baina bera konbentzita dago zein den bidea. Honela mintzatu da, bereziki emakumeei zuzenduz: «Ez lotsatu, animatu eta atera karrikara egoera hobetzeko borroka egitera».



Bortz eta zazpi hilabete artean irauzen dute lanek. TTPI-TTAPA

Martxo hondarrean hasiko dira lanak Kanttonberrin

Lanak hiru fasetan egingen dituzte auzoko ezaugarrietara ahalik eta hobekien egokitzeko eta eragina minimizatzen

A. LARRETXEA

Otsailaren 20an esleitu zuen udalak Kanttonberriko hornidura, saneamendu eta euri-uren sareak eta zerbitzuak berritzeko obren kontratua 1.283.041,71 euroan. Aste Santu aitzinetik prestaketa lanetan hasiko da lanak egingen dituen enpresa eta makinaria astunarekin apirilaren 2tik aitzinera hasiko dira. Lanen iraupena bortz eta zazpi hilabete artekoa izanen da.

Auzoko eguneroko bizitza ahalik eta hobekien mantentzea lehenetsi dute. Horregatik, enpresak auzora hainbat bisita

ta egin ditu, proiektua auzoko ezaugarrietara ahalik hobekien egokitzeko. Obrek inguruan sortzen dituzten eraginak minimizatzen dituzte, proiektua lau fasetan egingen dute: 1. fasean ur zikinen kolektorea eta ekialdeko karrika, 2. ean mendebaldeko karrika eta 3. fasean Kanttonberri karrika, hegoaldea lehenik eta iparraldea gero.

Hasi aitzinetik, auzoko merkatariekin eta bizilagunekin bilduko dira. Egin beharreko obrak azalduko dituzte, baita faseen ordena eta iraupena ere. Bilera fase bakoitzaren hasieran egingen dute.

Oinherri egitasmoarekin bat egin du udalak herri hezitzailea lortzeko bidean

A. LARRETXEA

Udalak eta Oinherri Herri Hezitzaileak sustatzeko Euskal Herriko elkarteak, lankidetzarako bide berri bat hastea erabaki dute. Horretarako, Beran Herri Hezitzaileen filosofia sustatzeko abiapuntua, hezkuntzaren arloa modu zabal batean landuko duen elkargunea osatzea izan daitekeela aurreikusi dute, Berako ikastetxeak, udalak, hezkuntza ez formaleko eragileak, guraso elkarteak eta herrigintzako eragileak protagonista izanen dituena. Behin elkargunea osatuta, berau sustatuko duen talde eragile bat egituratuko dute, Bera Herri Hezitzailea egitasmoan sakontzeko helburuarekin.

Bera Herri Hezitzailean eragin dezaketen eragile nagusiekin diagnosi partekatu bat

egitea da asmoa: erronkak identifikatzea, lehentasunak adostea eta plangintza partekatu bat definitzea. Horretarako, Oinherri Herri Hezitzaileak sustatzeko elkarteak aholkularitza eta bidelaguntza emanen dizkio udalari.

Hiru saio egingen dituzte, bakoitza bi ordutakoa. Lehenengo, martxoaren 6an egingen dute eta bertan herriko hezkuntza arloaren argazki bat egitea izanen da saioaren helburua.

Bigarrena, apirilaren 10ean izanen da eta hezkuntzatik herri estrategia aberasteko dauden aukerak aztertuko dituzte.

Azken saioa martxoaren 8an izanen da, eta helburua elkarguneari forma ematen izanen da maiztasuna, funtzionamendua eta bertzelakoak zehaztuz.

Martxoaren 8aren bueltan hainbat ekitaldi antolatu ditu Goldatzek

A. LARRETXEA

Martxoaren 8an 17:30ean burukoak egiteko tailerra egingen dute Toki Onako estalpean, 19:00etan brindisa Auzoan eta 20:00etan Bortzirietako manifestazioa Altzaten hasita. Ondotik, emakumeen afaria izanen da Espidobaitan. Mar-

txoaren 23an, 13:00etan *Poppera*, *Aferra* eta *Utopia* emanaldia izanen da Beralandetan 13:00etan Katakuko elkarteak eta Goldatzek antolatuta.

Berako Udalak 12:00etan elkarretaratzea deitu du herriko etxeko plazan, eta Toki Onan 10:30ean egingen dute.

SUKALDEKO ETA KOMUNEKO ENTZIMERAK EGITEN DITUGU

info@marmolesamezti.com - www.marmolesamezti.com

Irueña Irun errepedisa, z/g. OROÑOZ-MUGAIRI

T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295

Ansonea MUS TXAPELKETA

Ortziraletan, otsailaren 23tik ekainaren 7ra

*apirilak 12 ozen ezik.

SARIAK

Lehenengo saria **1.200 €**
Bigarren saria **600 €**
Hirugarren saria **300 €**
Laugarren saria **150€**

*Puntuak saio bakoitzean banatuko dira.

Saio bakoitzeko SARIAK

Lehenengo saio: **Bildotsa eta bi botila txanpain**
Bigarren saio: **Bi botila ardo eta bi gazta erdi**
Hirugarren saio: **Bi txuleta eta bi botila ardo**

Laguntzaileak: **carrho**, **SAGARDIKO edariak**, **VENTA GORRI**, **SHAZIDOR**

Agerra Mendi Taldea Goizuetara joanen da martxoaren 17an

Martxoaren 14a izanen da izena emateko azken eguna, eta ordainketa irteeraren egunean egin beharko da

A. LARRETxea

Agerra Mendi Taldearen urteroko irteera klasikoetako bat izaten da Goizuetara antolatzen duena. Aurten ere antolatu dute, eta martxoaren 17an, igandea, izanen da.

Irteeran parte hartzeko hiru aukera izanen dira: Agerratik oinez abiatzea, Agiñatik oinez abiatzea edo Goizuetara autobusez joatea.

Agerratik ateratzen direnek 07:00etan duten hitzordua elkartean, eta denera 29 kilometroko eta 1.150 metro positiboko ibilbidea osatu behar-



Mendizaleak Goizuetara bidean.

ko dute, eta denera 7 ordu inguruko ibilbidea izanen dela aurreikusi dute. Agiñatik ateranahi dutenak, aldiz, 08:15ean elkartuko dira Agerrako elkartean eta bertatik Agiñara joanen dira autobusez. Ibilbidea autobusez egin nahi dutenek, aldiz, 11:00etan dute hitzordua Agerra Mendi Taldean.


Goizuetan Oxeguarda jate-txean izanen dute otordua, eta gero denak elkarrekin itzuliko dira autobusez. Bazkaria eta autobusa egunean berean ordaindu beharko dira.

Irteeran parte hartu nahi dutenek martxoaren 14a baino lehen eman beharko dute izena, eta hiru bide dituzte horretarako: agerramendi@gmail.com helbidera mezu bat idaztea, 647 29 61 04 zenbakira mezu bat bidaltzea edo Agerra Mendi Taldearen elkartean apuntatzea.

Elkarreak ez du bere gain hartuko gerta daitekeen edozein istripuren ardura.

Maratoi erdirako izen ematea martxoan 11n

Apirilaren 14an egingen dute XVIII. Berako Mendi Maratoi Erdia eta VIII. Gazte Trail lasterketa. Manttale Mendi Lasterketa Taldea proba horiek prestatzeko lanean ari da, eta martxoaren 11n irekiko dute izen ematea 15:00etan. Modu telematikoan egin beharko da, pb-organisation.com helbidean.



Ainara Urrutia iazko lasterketan.

Etorri gu ezagutzera!

Sagrado Corazón Jesúsen Bihotza

BERA

Partetik hartzetik parte izatera.

948 63 00 09
640 07 43 06
info@jesusenbihotza.com



ROSA MARI ETA JOSE ANTONIO ERRANDONEAK UTZITAKOAK

Munduko ziklokros txapelketatik 50 urte

Otsailaren 24an bete ziren 50 urte Munduko ziklokros txapelketa Beran jokatu zenetik. Gure Txokoa elkartea izan zen antolatzailea eta mundu osotik etorri ziren txirrindulariak lehiatzera, eta baita ehunka lagun ikustera ere. Albert Van Damme belgikarra izan zen irabazlea profesionaletan.

'Bizkarsoro' filma martxoaren 22an Kultur Etxean

Bor-Bor Bortziritako Euskaltzaleen Mugimenduak Korrikaren bueltan *Bizkarsoro* pelikularen emanaldia antolatu du herrian martxoaren 22rako, ortziralea. Goizean ikastetxetako ikasleentzat izanen da emanaldia, eta 19:00etan publiko orokorrarentzat.

Berako bestak antolatzeko bilera martxoaren 12an

Herriko bestak abuztuan izanen badira ere, herritarrek dagoeneko hasiak dira aurtengo bestak prestatzen. Horretarako, martxoaren 12an, asteartea, Beralandetan elkartuko dira lehenengoz 18:30ean. Herritar denak deitu dituzte bilerara.

Baztan-Bidasoko XXXVII. Bertso Paper Lehiaketa martxan

Apirilaren 22an irekiko dute bertsoak bidaltzeko epea, eta maiatzaren 3ra arte bidaltzen ahalko dira

A. LARRETxea

Bortziritako Bertso Eskolak eta Berako Kultur Batzordeak XXXVII. aldiz antolatu dute Baztan-Bidasoko Bertso Paper Lehiaketa. Bertsoak apirilaren 22tik maiatzaren 3ra arte aurkezten ahal dira.

Baztan-Bidasoan bizi diren herritarrek parte hartzen ahal dute lehiaketan eta euskarazko, jatorrizko, argitaratu gabeko eta bertze lehiaketaren batean saritu ez diren bertsoak bakarrik onartuko dituzte. Norberak aukeratu beharko du gaia, doinua eta neurria. Parte hartzaileak lau kategoriatan banatuko dituzte.

A kategorian, 2013an edo ondotik jaiotako haurrek parte hartuko dute eta guttienez bertso bat edo bi koplak osatu beharko dituzte. Lehenengoak trofeoa eta 50 euroko saria izanen du eta bigarrenak trofeoa eta 30 eurokoa.

B kategorian, 2010etik 2012ra sortutako gazteak sarituko dituzte. Kategoria horretan, guttienez bi bertso edo lau koplak egin beharko dituzte. Sariari dagokionez, lehenda-

bizikoak 100 euro eta trofeoa hartuko ditu, eta bigarrenak trofeoa eta 70 euro.

C kategorian, 2006tik 2009ra jaiotako gazteak sarituko dituzte, eta horiek guttienez lau bertso egin beharko dituzte. Lehendabizikoak 150 euro eta trofeoa hartuko ditu eta bigarrenak 120 euro eta trofeoa.

D kategorian, helduenean, aldiz, 2005ean edo lehenago sortutakoek hartuko dute parte eta guttienez zortzi bertso egin beharko dituzte. 200 euro eta trofeoa hartuko ditu lehendabizikoak eta bigarrenak 150 euro eta trofeoa.

Bertsoak bi modutan entregatzen ahalko dira, paperean Berako Kultur Etxera bidalita edo posta elektronikoz bidez.

Epaimahaia Bortziritako Bertso Eskolak izendatuko du, eta horren erabakia ezin izanen da gibelera bota. Gainera, sariak hutsik utzi ahal izanen ditu, edo aipamen bereziak eman. Sari banaketa maiatzaren 24an, ortziralea, eginen dute 17:00etan Kultur Etxean eta sarituek beren bertsoak kantatuko dituzte.

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Alizate, 17 · BERA

MARITX
INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIAL
PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 · Legia, 23 - BERA

ONLUR
REFLEXOLOGIA
Bera

- Nerbio-sistema zentrala eta periferikoa orekatzen ditu.
- Gorputzaren funtzionamendu egokiari laguntzen dio.
- Immunitate-sistema sendotzen du.
- Odol-zirkulazioa aktibatzen du.
- Antsietatea guttitzen du.
- Estresa hobetzen du.

+34 623981988
Oinlur
oinlur@yahoo.com

Bortzirietako

HERRI ESKOLA PUBLIKOAK

AURREMATRIKULAZIOA: MARTXOAREN 18TIK 22RA.



Oraina eta etorkizuna eraikiz



Bortzirietako
eskola
publikoak





34 bazkide bildu ziren otsailaren 17ko batzarrean. BETI GAZTE

231.760 euroko aurrekontua onartu du Beti Gaztek

1.584 bazkide ditu elkarteak, inoiz baino gehiago, eta hauen kuotak bi euro igoko dira 2025. urtean

AITOR AROTZENA

Beti Gazte elkartearen 2024ko Ohiko Batzaraldi Orokorra egin zuten otsailaren 17an. 34 bazkide bertaratu ziren eta bilerarako aurreikusitako puntu guztiak aho batez onartu zituzten. Tartean, 2024rako aurreikusitako ekitaldiak onartu zituzten, baita horiek aitzinera eramateko 231.760 euroko aurrekontua ere, joan den urtekoa baino 39.760 euro handiagoa.

Horrez gain, bazkideen kuotak eguneratzea proposatu zen eta hau ere onartu zuten. Horrela, 2025ean bi euroko

igoerazainan dituzte bazkideen kuotek, elkarteak sustatzen dituen kultur eta kirol ekitaldiak ziurtatzeko. Horrela geldituko dira prezioak: jubilatuek 19 euro, helduek 29 euro, jubenilek 22 euro eta infantilek 16 euro. Zortzi urtetik beheitikoentzat doan izanen da, orain arte bezala.

230 FUTBOLARI ARI DIRA NAFARROAN ETA GIPUZKOAN KONPETITZEN

1.584 bazkide

Guztira, 1.584 bazkide ditu orain Beti Gaztek, joan den urtean baino 39 gehiago eta inoiz izan duen kopururik handiena. Kirolarien kopurua ere inoiz baino handiagoa da 2023-24 denboraldi honetan. Horren adibide da, futboleant, hiru talde berri dituztela: emakumeen alebin-benjamin mailako bi (Nafarroako Ligan) eta gizonezkoen kadete lehen mailako bertze bat (Gipuzkoako Ligan). Denera 230 bat futbolari ari dira Beti Gazteren izenean konpetitzen. Horri gehitu behar zaizkio sokatirako lizentziak, baita mendikoak eta txirindularitzakoak ere. Gainera, arlo guztietan emaitza onak eta Munduko Txapelketetan ari dira (sokatira taldea munduko txapeldun, Uxuri Portu eta Luziano Mitxelena txirindulariak...).

2024ko ekitaldiak urterokoak izanen dira, eta berezitasun bezala, aurten Mendi Itzulia antolatuko du Beti Gaztek ekainaren 9an. Ekainaren lehen Beti Gazte Eguna izanen da eta horren aitzinetik, Beti Gazte Astea. Azkenik, futbolaren koordinazioan aldaketak izan dira. Xabi Maritxalarrek utzi du koordinazio lana eta Igor Gurrutxaga eta Ainara Otxoteko sartu dira. Orain, Oier Iantzi eta Beñat Maia dira futbol 8ko koordinatzaileak, Igor Gurrutxaga kadete eta infantil mailakoa eta Juan Joxe Irazoki jubenil eta erregionaleko taldeena.

Argazki zaharrak biltzeko deialdia egin du udalak bando bidez

A. AROTZENA

Badira hilabete batzuk herri-talde bat Lesakako fototeka (argazki zaharren bilduma) osatzen hasi zela. Udalak laguntzen du eta horretarako bandoa ere argitaratu eman du berriki. «Fototeka horretara gure herriko oroimen eta gogo grafikoa bildu nahi dugu, hau da, Lesaka zein lesakarron argazkiak bildu, digital bihurtu eta sarean partekatu nahi ditugu» dio udal bandoak.

Argazki zaharrak etxean izan eta ekimena lagundu nahi dutenek aski dute herriko etxera joatea. Astelehenetan, 09:30etik 13:00etara udaletxean izaten da honetan ari den lan taldea, baina, bertzela, udaletzeko bulego orduetan utz daitezke argazkiak, astelehenetik ortzegunera 07:30etik 15:00etara eta ortziraletan 07:30etik 14:00etara.

Argazkien kopia digitala egiten dute udaletxean bertan kontu handiz, argazkia utzi duenari originala itzuliko zaio eta nahi izanez gero kopia ere emanen zaio, argazkiaren inguruan pixka bat solastatu eta utzi duenaren baimenarekin, herriko bertze argazkiekin batera partekatuko dute, «zeintzuk garen, nondik gatozen eta norat goazen» ikasteko.



LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

INGURUNE BERRI BAT ZURE IRRIBARREARENTZAT
astelehenetik ortziralera
08:00-13:00
15:00-20:00
larunbatetan goizez

Iturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA
Tel. **722 662 478** | lidera@hortzklínika.es
@liderahortzklínika



Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailak jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Emakumearen Egunaren harira hainbat ekintza prest

Xulufriak Sare Feministak solasaldi-merienda, kontzentrazioa eta afaria eginen ditu eta udalak elkarretaratzea deitu du

A. AROTZENA

Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, ortziraletan honetarako egitarau zabala prestatu du Xulufriak Lesakako Sare Feministak. 17:00etatik 19:00etara solasaldi-merienda izanen da eta 19:00etan kontzentrazioa. Ondotik, Beran eginen den Bortzirietako mobilizaziora joanen dira. 21:30ean afaria izanen dute Kasinon.

Aitzinetik, Lesakako udalak ere elkarretaratzea deitu du ortziralean 12:00etan Plaza Zaharrean.

Korrikaren bueltan

Martxoaren 24an, igandean 01:43 aldera sartuko da herrian Korrika, aldi honetan Oiazun aldetik, Agiñan barna (herri-gunean 03:25 aldera izanen da) eta horren inguruan zenbait ekitaldi antolatatu dituzte. Erraterako, Bor-Bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimenduaren eskutik *Bizkarsoro* filma ikusgai izanen da martxoaren 17an, igandean 18:00etan Harriondoan. Korrika Ttikia, berriz, martxoaren 22an eginen dute herriko ikastetxeek.

Tantirudantza jaialdia martxoaren 16rako antolatu dute

Tantirumairu Euskal Folklore taldeak antolatutako Tantirudantza jaialdia martxoaren 16an eginen dute.

Tantirumairuk aurten gonbidatu dituen Lezoko Murixka, Zumaia Txori Txiki Dantza Eskola eta Altsasuko Etorkizuna taldeko dantzari tikiak

karrikaz karrika ibiliko dira, larunbatean 11:00etan hasita eta 12:15 aldera Zubigainekoa dantzatuko dute herriko dantzari tikiak. Gero, denak batera emanaldia eskainiko dute plazan. Bazkalondan, 17:00etan *Jira Bira Kalejira* saioa izanen dute plazan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Goiuri Urria Nafarroako txapeldun iaz

2023a urte emankorra izan zen Goiuri Urria Yecora, 14 urteko motor gidari lesakarrarentzat. Moto-kroseko *cross country* modalitatean kadete mailako Nafarroako txapeldun izan da eta Euskal Herriko eta Aragoiko txapelketetan hirugarren. Argazkian, iazko hainbat sarirekin ageri da Goiuri Urria.



BETI GAZTE

Arbolaren Eguna Beti Gazteren eskutik

Arbolaren Eguna egin dute berriz ere, Beti Gazte elkarteak, Irain eskolaren, Tantirumairu ikastolaren eta udalaren laguntzarekin. Otsailaren 24an joan ziren Gardelkobagoetako eremua prestatzera (argazkian) eta otsailaren 29an joatekoak ziren eskolako eta ikastolako ikasleak arbolak landatzera.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
 Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
 info@tabernaedariak.eus
 www.tabernaedariak.eus

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA

Txotx denboraldia irekia!
 Ortzegunetik igandera irekita,
 eguerditik aitzinera.

Egin erreserba!!

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) · TEL. 948 63 72 12

Emakumearen Egunaren harira hainbat ekitaldi prest

Etxalarren eginen dute Bortzirietako Emakumeen XIV. Mendi Itzulia, elkarretaratzea, trikiti-salda-poteoa eta bazkaria

IRUNE ELIZAGOIEN

Emakumeen nazioarteko egunaren harira, martxoaren 8an, 17:30ean proiektzioa izanen da Pello Apezetxea Kulturgunean eta ondotik elkarretaratzea plazan.

Ez dira horrekin bukatuko emakumearen nazioarteko egunaren harira antolatutako ekitaldiak. Etxalarren eginen da aurten Bortzirietako Emakumeen XIV. Mendi Itzulia. Martxoaren 8aren bueltan antolatzen den mendi itzulia, igandean, martxoaren 10ean izanen da.

Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak antolatu du mendi itzulia eta Bekolandako aparkalekuan paratu dute hitzordua 09:00etan. Mendian itzulia egin ondotik elkarretaratzea eginen dute 13:00etan plazan. Ondotik, 13:15ean trikiti-salda-poteoa eginen dute eta 14:00etan bazkaria Larraburua elkartearen.

Bazkarirako izen ematea 722 69 30 78 zenbakira idatzi edo deituz edo berdintasuna@bortziriakberd.eus helbidera idatziz. Bazkariak 25 euroko prezioa du.

Erik Igoa Nafarroako buruz buruko txapelkunorde

Nafarroako buruz buruko pilota txapelketaren finala jokatu zuen otsailaren 24an Erik Igoak, lehen mailako alebinitan. 18-17 galdu zuen Lagunak taldeko Elizalderen kontra, Labrit pilotalekuko final lehian. Binaka Arkupeko finala jokatzea zuen larunbatean.



Elizalde eta Igoa Labriten.

Altxatako urteko batzar orokorra martxoaren 17an

Urteko batzarreko deialdia luzatu die bazkideei Altxata elkarteak. Hitzordua martxoaren 17an izanen da, 12:45ean Pello Apezetxea Kulturgunean. 2023ko kontuak azaldu eta egitasmoak errepasatzeaz gain, presazko junta berritzea egin beharra dago.

Gazteak Oartzungo Ordo Zelai sagardotegira

Martxoaren 16an Oartzungo Ordo Zelai sagardotegian bazkaltzeko aukera izanen da, gazteek antolatuta. Autobusa 13:30ean aterako da eta 03:30ean itzuliko da Hernanitik. Izena emateko orria Elutsa ostatuan dago hilaren 10a arte (20 euro).



EDURNE ARTOLA

BTT ibilaldia antolatzeko bilera

Otsailaren 23an egin zen antolaketa bileran, maiatzaren 4ko BTT ibilbidearen azalpena eman eta lan taldeak egin ziren. Antolatzailerak eskerrak eman nahi dituzte lanerako prest hurbildu zirenei; hala ere, oraindik norbait prest egonen balitz, BTT taldekoekin harremanetan jartzen ahal da.



IRUNE ELIZAGOIEN

EHko mus txapelketaren kanporaketa

Otsailaren 17an, Elutsa ostatuan jokatu zen Euskal Herriko XV. Mus txapelketako kanporaketa. 6 bikotek hartu zuten parte eta Benantxio Elizagoien eta Mattin Zelaieta izan ziren garaile, Unai Otazo eta Jabier Galarregiri finala irabazita. Benantxio eta Mattin Iruñean izanen dira larunbatean.

ELUTSA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENUAK PINTXOAK - BOKATZE RAZIOAK

Anduetzeta, 13 - ETXALAR T. 948 635 191

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

Jardunaldi zatituarekin segitzea erabaki dute eskolan

Hogeita hamaika boto jardunaldi jarraia ezartzeari ezezkoa emanaz eta hamabi boto, berriz, baiezkoa emanaz

ANA ETA ITZIAR

Hurrengo lau urteetan jardunaldia zein izan den aukeratzeko bozketa egin dute eskolan. Otsailaren 19an, 20an eta 21ean Edukabote plataforma bidez bozkatzeko aukera izan zen eta otsailaren 22an, berriz, presentzialki. Jardunaldi jarraia edo zatikatua nahi zuten aukeratu beharra zen. *Eskolaldi zatitutik eskolaldi jarraitura aldatzearen alde zaude?* Galdera honi botoa emateko 44 haurren ordezkoak zeuden deituak. 31 boto jardunaldi jarraia ezar-

tzeari ezezkoak izan ziren eta 12 boto, berriz, baiezkoak. Beraz, honekin lau urtez jardunaldi zatituaren aldeko proposamenak irabazi du. Herriko neska-mutikoak, beraz, 16:00ak arte ariko dira orain arte bezala eta asteen egun batez 14:00ak arte.

Duatloiaren data aldaketa

Igantzi Biltokik adierazi duenez, Mendi duatloiaren data aldatu egingen da aurten. Orain arte buruilean izan baldin bazen ere, aurten apirilaren 21ean izanen da.

Baratzondoko urteko bilera martxoaren 9an

Baratzondo Jubilatutako Elkarteak urteko batzarra egingen du martxoaren 9an, larunbatean 20:30ean. Gaien artean junta berritzeko bozketa ere egingen dute. Bertzalde, martxoaren 2an, Arkupe elkarteko Igantzi eta Lesakako 78 bazkidek bazkaria egin zuten Baratzondon.

Elizatea birmoldatzeko lizitazioa abian

Elizatea eraikina birmoldatzeko kontratuaren lizitazioa argitaratu zuen udalak otsailaren 14an. Eskaintzak aurkezteko epea martxoaren 15ean bukatuko da. Obrak urtebete baino gehiago darama geldirik, hura eraikitzen zuen enpresak porrot egin baitzuen.



UTZITAKOA

Txoperena eta Iribarren txapeldun

Otsailaren 16an Biltokin hasi zen mus-tximista saioan Anuntxi Txoperena Matxikote eta Axun Iribarren izan ziren garaile. Ondotik, otsailaren 23an Euskal Herriko XV. Mus Txapelketako kanporaketan ere Anuntxi Txoperena eta Axun Iribarren nagusitu ziren. Iruñean ariko dira larunbatean.



ARTXIBOKOA

30 urte eta gero, berriz Easo Abesbatza

30 urteren ondotik Easo Abesbatzak kontzertua eskainiko du Igantzin bigarrenegiz. Martxoaren 16an, larunbatean, 20:00etan izanen da. 1993ko abendu hartako gozamina oraindik ongi gogoan dute igantziarrek eta prest daude maila goreneko Donostiako abesbatzari behar bezelako harrera egiteko.

<p>ANTZUZELAI S.L.</p> <p>BERA - T. 948 63 13 17 info@antzuzelai.com www.antzuzelai.com</p>	<p>HARGINTZA FATXADAK TXIMINIAK ZOLAK TAILLA ARTISTIKOAK OBRAK</p>		<p>Arduro arropa-denda etxeko osagarriak lenteria</p> <p>Aitzate, 30 BERA T. 948 630 136</p>
--	--	--	---

<p>Jauzena</p> <p>Denda. 948 631 217 T. 630 136 863 Julio Caro Baroja, 6 - BERA jauzena@bera@gmail.com</p>	<p>Elektrizitate lanak orokorrean Erreformak, etxe berriak Lantegietako mantentze-lanak</p> <p>Eguzki-panelen instalazioa eta dirulaguntzen gestioa</p>	<p>ola SAGARDOTEGIA</p> <p>www.olasagardotegia.eus bisitatu gure online dendak!</p> <p>102 Meaka auzoa 20304 IRUN - T.943 623 130</p>	<ul style="list-style-type: none"> Bertako sagarrek in egindako sagardoa Euskal Sagardoa J.D. eta sagardo ekologikoa Asteartetik larunbatera afariak. Bazkariak ostiral, larunbat eta igandetan. Sagardotegi menuarekin egin txotxi!
---	---	--	--

Dena prest igandean KorrikArantza hartzeko

Igande arratsaldean Bordalarrean barna euskararen alde lasterka egingen dute herritarrek

NEREA ALZURI

Iragarri bezala, igandean, martxoaren 10ean, Korrika perpendikularra edo aranztarrek KorrikArantza izena paratu dioten hitzordua egingen dute herrian. Korrika nagusian ibiliko diren furgonetak berotzeko saioa izanen da, baina horren bueltan, ekitaldi polita antolatu du herriko korrika batzordeak.

17:30ean hasiko da euskararen aldeko KorrikArantza lasterketa: Aterpe izanen da abiapuntua. Ondotik, Martixenean barna Goienburura joanen dira eta Meaka aldera hartuta, Gai-ko bordarako bidea egingen dute. Handik Bideberrira jaitsi eta herrira bueltatuko dira. Tarte horretan, hainbat herritarren eskutatik pasatuko da lekukoa. Lasterketa bukatuta, plazan ekitaldia egingen dute, eta bukatzeko merienda.

KorrikArantza baino lehen, eguerdian, herri bazkaria egingen dute Aterpean.

Bezperan gehiago

Bezperan, martxoaren 9an, bi bakarriketa izanen dira: 13:00etan Aterpean Antton Telleria, Iker Plazaola eta Asier K ariko dira, eta 19:00etan *Erdaldun berrien kluba* ikusteko aukera izanen da eskolan. Martxoaren 15ean, berriz, *Bizkarsoro* filma ikusgai izanen da 19:00etan Baskulan.

Emakumeen Nazioarteko Eguna

KorrikArantza asteburu honetako hitzordu nagusietako bat izanen da, baina ez dugu atzendu behar ortziralear, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela, eta hala, egun horretan, 12:00etan elkarretaratea egingen dute plazan.



ESKOLAK UTZITAKOA

Zuhaitz landaketa

Aurten ere aroarekin lotuta, udalarekin elkarlanean, zuhaitz landaketa egin dute eskolako ikasleek, gaztainondoak berreskuratzeko egiten ari diren egitasmoaren barne. Joan den otsailaren 21ean, 80 bat gaztainondo landatu zituzten Gaiko bordatik goiti, Bulatsegi aldean.



TTIPI-TTAPA

25 bat neska-mutiko futbolean

Ikasturte honetan ere neska-mutiko kuadrilla ederra ari da Osasuna fundazioaren futbol eskolan parte hartzen. Bi taldetan banatuta, ortziralear arratsaldetan herriko frontoian egiten dute hitzordua eta Joel Gil lesakarra dute entrenatzaile.



AINHOA ALZURI

Iturria eta Otxandorena musean nagusi

Euskal herriko XV. Mus Txapelketako kanporaketa egin zuten otsailaren 17an Ekaitza Elkarteak. Sei bikote aritu ziren. Irabazleak Patxi Iturria eta Josune Otxandorena izan ziren; eta txapeldunordeak Mikel Oteiza eta Markel Jorajuria. Irabazleek larunbatean Nafarroa mailako finalean parte hartuko dute.

NPB-PACeko dirulaguntzak eskatzeko aukera

Nekazaritza Politika Bateria-tuaren (NPB-PAC) dirulaguntzaren barne, herriko larreen aprobeitxamendu eskaera aurkezteko epea irekia da. Interesa duenak behar duen azalera martxoaren 12ra arte eskatzen ahal izanen du herriko etxean.



Solasik politena lehiaketa antolatu du Bor-borrek

Hitz, erranairu eta gisakoak biltzeko lehiaketa antolatu du Bor-borrek eta martxoaren 17ra arte hartzen ahal da parte

TTIPI-TTAPA

Amatxi-aitatxien solasetako aunitz galbidean direla ikusirik, hitz, erranera, erramolde eta gisakoak biltzeko lehiaketa antolatu du Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimenduak. Sariketan Bortzirietako edozein herritarrek parte hartu ahal izanen du. Parte-har-tzaile bakoitzak nahi hainber-tze hitz, solas, erranera, erranairu... bidali ahal izanen du, eta hiru bide izanen ditu horretarako: Instagram, Facebook eta galdetegi bat betez. Sareetan #solasikpolitena traola

erabili beharko da, eta @bor-boreuskara aipatu egin beharko da. Lanak baliagarriak izateko, otsailaren 19tik martxoaren 7ra bitarte parte hartu ahal izanen da.

Irabazleak martxoaren 23an, Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimenduak Korrikan hartuko duen kilometroan lekukoa eraman ahal izanen du, eta Korrikako petoa ere jasoko du opari. Irabazlearen izena Bor-borrek izendatutako epaimahai batek erabakiko du, eta martxoaren 17a baino lehen jakinaraziko du.

Gurasoentzako tailerra hilaren 18an Gizarte Zerbitzuen eskutik

TTIPI-TTAPA

3 eta 18 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoentzako solasaldia antolatu du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak. Arrisku eta babes faktoreez, heziketa estiloiez eta nerabezaroko ohi-ko zailtasunez ariko dira. Martxoaren 18an Berako Beralandetan izanen da, 17:30etik 19:00etara eta Suspertu programako teknikariak gidatuko du. Izena info@bortziriakgz.eus helbidera edo 639 72 40 02 zenbakira idatziz eman eman behar da.

Gainera, mankomunitateak webgunea berritzeko konpromisoa hartu eta lankidetzaz abiatu du UNAF elkartearekin online tailerrak egiteko.



UTZITAKOIA

Elkarrizanez 2.910 ordu eman ditu boluntario lanetan

Bortzirietako Elkarrizan Laguntza Emaile Taldeak Batzar Orokorra egin zuen otsailaren 20an. Azaldu zuten, iaz 2.910 ordu eman zituzten boluntario lanetan: etxeko laguntzan, kantuan, helduen alfabetatzean, garraioan... Bilera ha-maiketakoaren bukatu zuten.

BERA LESAKA

Agenda 2024

MARTXOA
APIRILA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

MARTXOA	
24 <small>MARTXOAREN ARTE</small>	ESKULTURA ERAKUSKETA PELLO ULAZIA 16:00-20:00 larumbat eta igandeetan (Ikastolako areto nagusia) Antolatzailea: Lohiaga Ikastola BERA
8 <small>ORTZIRALEA</small>	EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA LESAKA Antolatzailea: Xabierriak, Lesakako Sare Feminista
8 <small>ORTZIRALEA</small>	EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA BERA
9 <small>LAGUNBATA</small>	MERKATUA BERTAKO EKONIZLEEN MERKATUA BERA 10:30-13:30 Beralandeta
10 <small>IGANDEA</small>	V. MENDI LASTERKETA LESAKA Antolatzailea: Beti-Caste Elkarte
12 <small>ASTEARTEA</small>	BERAKO BESTETAKO BILERA IREKIA BERA 18:30 Beralandeta
15 <small>ORTZIRALEA</small>	KALEJIRA LESAKAKO MUSIKA BANDA LESAKA 20:00
16 <small>LAGUNBATA</small>	TANTIRUDANTZA LESAKA Goizez kalejira, zuhigainekoa eta dantza emanaldia plazan eta arretsaldean ikusizkizuna.
17 <small>IGANDEA</small>	FILMA BIZKARSORO LESAKA Berriondo Kultur etxea Antolatzailea: Bor-Bor
22 <small>ORTZIRALEA</small>	FILMA BIZKARSORO BERA 19:00 Kultur etxean Antolatzailea: Bor-Bor
22 <small>ORTZIRALEA</small>	FERMIN DONEA LESAKAKO JUBILATUEN ELKARTEA LESAKA Andra Mari Egoitza
23 <small>LAGUNBATA</small>	KONTZERTUA RUDIGER BERA 19:00 Kultur etxea Sarrera 10€
23 <small>LAGUNBATA</small>	HAUR KANTARIEN TOPAKETA LESAKA Antolatzailea: Giltzari Alesbotza
27 <small>ASTEAZKENA</small>	MUSIKA ESKOLAREN KONTZERTUA LESAKA 18:00 Berriondo
30 <small>LAGUNBATA</small>	MERKATU TTIKIA LESAKA 10:00 Bihotxo plaza
MARTXOA-APIRILA-MAIATZA	
HITZALDIA ETA TAILERRAK "HIL ARTE BIZI" LESAKA Bideratzailea: Nere Erkiaga Martxoak 21: Aurkezpen hitzaldia 18:30ean Apirilak 11, 18, 25 eta maiatzak 2: Tailerrak 18:00tan Lekua: Etxekontako bidea, udal aretoa	
MARTXOAREN 26TIK APIRILAREN SERA LESAKA TURISMO BULEGOA ETA BURDINAREN MUSEOA ZABALIK	

Haurren Minbiziaren Eguna gogoan izan dute eskolan

Otsailaren 15ean izan zen nazioarteko eguna eta gaiari buruzko hausnarketa eegiteko probestu zuten Adanorekin bat

MAIDER PETIRENA

Otsailaren 15a Haurren Minbiziaren Nazioarteko Eguna da, eta Sunbillako eskolan, egunari keinua egin nahi izan zioten. Ikasleekin gaiari buruzko hausnarketa egiteko probestu zuten, baita bakoitzaren esperientziak, kezkak eta galderak partekatzeko ere. ADANO minbizia duten haurren eta senideen Nafarroako elkartearen zer den eta egiten duen lana ere modu berezian landu zuten.

Hitzordua borobiltzeko ADANO elkarteak bidalitako idatzia irakurri eta patioan lazo handi bat irudikatu dute ikasleek. Adierazi dutenez, «piratatxo guztiei, baita haien familiei ere, gure animorik handienak bidali nahi dizkiegu». Elkartasun keinu ederra, dudarik gabe.



Elkartasun keinu polita egin zuten.



JON ANZIZAR

Euskal Herriko mus txapelketa

Hamar bikotek jokatu zuten Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa. Finalean, Mikel eta Iban Garbalenak irabazi zieten Ines Obregonzori eta Txetxu Salazari. Bi bikotek Iruñean izanen dira. Hirugarren Jon Mitxelena eta Mikel Etxekolonea eta laugarren Lourdes Galarregi eta Nerea Mitxeltorena.



UTZITAKOA

Koldo Herrera Arnedon garaile

Arnedoko IV BTT Sendas de Isasa proban egin zuen debuta Koldo Herrera Urroz herritarrak otsailaren 25ean eta 23 urtez azpikoen kategorian garaile izan zen (6. postua sailkapen orokorrean). Igor Agestak arazo mekanikoak izan zituen eta 66. postuan akitu zuen proba M40 kategorian.

Ulibeltzak elkartearen batzarra egingen dute martxoaren 15ean

M. PETIRENA

Sunbillako Ulibeltzak elkarteak urteko batzarra egingen du martxoaren 15ean, ortziralean 19:30ean hasita egoitzan. Gai zerrendari dagokionez, azken aktaren irakurketa, elkarterako mugikorra, bestak, mailegua, kuotak, ordainketak di-

ruarekin, bazkide berria eta junta berria aztertuko dituzte, galdera eta eskarien txandaren aitzinetik. Eguneko akta irakurri eta, hala erabakitzen bada, onartuko dute, azkenik. Gaien garrantzia dela eta, ahalik eta bazkide gehien biltzeko deia egin dute.



Martxoaren 8an karrikara ateratzeko deia egin dute

Udalak, ikastetxeek, eta mugimendu feministak antolatu ditu ekintzak egun horretarako

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean karrikara ateratzeko deia egin dute hainbat eragilek. Goizean institutuan lilamaratoia egingen dute. Ondotik, 16:30ean hasita merienda eta eskulanak egingen dituzte guraso elkartearen eskutik eskolan.


17:30ean Jon Abril idazle beratarrak idatzitako *Isildutako eskuak* liburuaren aurkezpena izanen da liburutegian, eta 19:00etan batukada eta manifestazioa egingen

dituzte mugimendu feministak deituta. Ondotik, eguna borobiltzeko, trikipoteoa eta afari autogestionatua egingen dituzte.

Horren aitzinetik ere, hilaren 6rako *Bestak eta ohi-turak. Eta Malerrekan zer?* jardunaldia antolatua zuen eskualdeko mugimendu feministak Elgorriagako ostatuan 18:30ean. *Festa dezagun gaurdanik geroa* dokumentalaren proiektzioa ematekoak ziren eta eta ondotik solasaldia egitekoa zuten bertarutatukoekin.

Saioa San Miguel Nafarroako txapelkun taldeka

Saioa San Miguel herritarrek sasoi bikainean segitzen du. Iruñeko Grupoempleo Pamploña Atletico taldearekin ari da egun, eta berriki Nafarroako 20 urtez azpiko klub arteko txapelketa irabazi du. Espainiako Txapelketan ere ariko da.



San Miguel taldekideekin. UTZITAKOA

Martxoan ere izanen da zer egin eta zer ikusi Donezteben

OIER ZULAIKA

Hurrengo egunetan ere zer egin eta zer gozatua izanen da herrian. Aitzineko aldizkari batean aipatu bezala, antzerkia eta literatura lotzen dituen Literarte jaialdiko hainbat ekintza egingen dituzte liburutegian. Horieta lehenengoa martxoaren 4an egitekoa zuten, Annie Ernauxen *La mujer helada* liburuaren irakurketa dramatizatua.

Jaialdiaren barrenean egingen duten hurrengo ekitaldia martxoaren 21ean, ortzeguna egingen dute, hau ere liburu-

tegian. *Los finales no escritos* izenpean, ikuskizuna egingen dute.

Ez da liburutegian izanen den ekintza bakarra, martxoaren 8an Jon Abril idazlearen *Isildutako eskuak* liburuaren aurkeztuko baitute 17:30ean.

Horrez gain bertze hainbat ekitaldi ere izanen dira: martxoaren 9an, 12:00etan korralaren emanaldia izanen da eta 13:00etan emakumeen arteko aizkora apustua izanen da. Martxoaren 16an, aldiz, omenaldia egingen diote Mariano Torrobari.



OIER ZULAIKA

'Negu hurbilak' filmaren estreinaldia

Otsailaren 24an aurkeztu zuten zineman Zubietan grabatu eta zubietarrak protagonista dituen *Negu hurbilak* pelikula. Joaldunak eta pelikulako protagonistak ere bertaratu ziren eta aretoa jendez lepo bete zen pelikulaz gozatzeko. Ondotik, afaria izan zuten Santamarian.

Errekako kirolariak emaitza onak lortzen ari dira pilotan eta judoan

OIER ZULAIKA

Errekako kirolariak maila bikaina ematen ari dira judoan zein pilotan. Errekan judoan ari den, baina sortzez Legasakoa den Gaxuxa Zelaieta Eulate martxoaren 9an Madrilen jokatu den Espainiako Txapelketarako sailkatu da.

Pilotari dagokionez, Iker Anzizar Nafarroako lau eta Erdiko pilota txapelketako finalean aritu da Labriten kadeeten mailan. Txapelketa ederra osatu du, baina, finalean Pablo Aldaz ultzamarraren kontra galdu zuen.

Zorionak bie!



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11





Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
E. zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es



Loreontziak herriko kanposantu inguruan. ARKAITZ MINDEGIA

Mendian eta kanposantu inguruan zaborra

Edukiontzia eta Malerrekako Garbigunea eskura izan arren, batzuk oraindik ez dituzte hondakinak behar den lekuan uzten

ARKAITZ MINDEGIA

Azken egunetan gure herriko bazterretan, mendian eta kanposantu inguruan zaborra botata agertu da. Mendian toloak, aspiradore eta etxeko tresna zaharrak, kableak bota dituzte eta herriko kanposatu inguruan lore ontziak, beraien lurrarekin botata ere. Lotsagarria da horrelako gauzak ikusi behar izatea oraindik, inguruan edukiontzia izanik eta Malerrekako garbigunea martxan edukita. Ea jendarteak gauzak bere lekuan uzten dituen eta ez hor barrena zabaldua, denen mesederako.



Toldoak eta tresnak mendian.

Arkupeak mus txapelketa

Otsailaren 23an Tresanean jokatuako Arkupeak elkarte-ko mus kanporaketan Zubietan, Elgorriaga eta Iturengo 5 bikotek parte hartu zuten.



PULUNPA ESKOLAK UTZIA

Ikasleak English Week egitasmoan

Pulunpa eskolako seigarren mailako ikasleak *English Week* egitasmoan ibili dira otsailaren 19tik 23ra. Beraiek prestatutako programazioan gauza dibertigarriak eginez aritu dira irakasle batekin. Urte batzuetan eskolatik bertze herri batera joaten ziren, baina aurtengoan eskolan aritu dira.

Erdizko harrobiari buruzko solasaldia martxoaren 6an

Otsail hasieran Magnak Erdizen egin nahi duen harrobiaren baimena UGPS bidez tramitatzea onartu zen. Erdiz Bizirik plataforma alegazio teknikoak prestatzen ari da abokatu eta teknikariek eta alegazio partikularrak ere egin daitezke. Martxoaren 6an, asteazkenean 19:30ean herriko etxeko ganbaran gai honen bueltan aritzeko hitzaldia antolatu du udalak. Erdiz Bizirik plataformako kideak gerturatu dira. Egun horretatik aitzinera aukera izanen da alegazioetan sinatzeko.

Emakumearen Eguna eta ekitaldiak Aurtitzen

Martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Egunean, eskualdean antolatuko diren mobilizazioetan parte hartuko dute herriko emakumeek. Horrez gain, bai Aurtitzen baita Iturenen ere, mahaiaren bueltan elkartuko dira herri-tarrak. Bertzalde, martxoaren 9an Aurtitzen larunbat arratsalde bikaina pasatzeko aukera izanen da. Pulunpa eskolako guraso elkarteak eta jantokiko gestoreak antolatuta, haurren tailerrak, talo jatea eta Trikidantz taldearen erro-meria izanen da.

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6

31700 ELIZONDO

T. 948 581 300 - F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1

31780 BERA

T. 948 631 108

Eliza Karrika, 22

31740 DONEZTEBE

T. 948 450 395 - F. 948 451 304

Eltzeta, 20

31770 LESAKA

T. 948638077



Herriko joaldunak eta musikariak Doneztebeko kalejiran. UTZITAKOA

Joare soinu artean estreinatu dute 'Negu hurbilak'

Iruñeko Golem zineman otsailaren 23an eta Donezteben 24an egingako estreinaldietan izan dira Zubietako joaldunak

FERMIN ETXEKOLONEA

Isolamenduari, itxaroteari eta nortasun irrikari buruzko filma da *Negu Hurbilak*, eta ihesaldi baten historia kontatzen du. Zubietan egin zituzten errodaje lanak eta, hain zuzen, bertako herritarrak aritu ziren antzezle lanetan, gehienbat Anita Hualde, Ba-tixta Santesteban, Ibai Juanikorena, Markos Juanikorena eta Beñardo Iparragirre. Haiekin batera, Jone Laspiur-2021eko Emakumezko aktore berri onenaren Goya sari-duna- izan da aktore profesional bakarra, neska protagonistaren azalean.

Ekain Albite, Mikel Iburguren, Nicolau Mallofré eta Adriá Roca zuzendariak osaturiko Negu Kolektiboaren lehen fikziozko lana da honakoa, eta Maluta* films eta Cornelius Films izan ditu ekoizle.

Estreinaldi jaialdia Donezteben

Otsailaren 23an, ostiralean egin zuten estreinaldi ofiziala Iruñeko Golem zinemetan eta bertan izan ziren Zubietako joaldunak. Beste zinema ko-



Joaldunak Iruñeko estreinaldian.

mertzialetan ere egun horretan estreinatu zuten. Larunbatean, berriz, Donezteben egin zuten estreinaldi jaialdia eta hemen ere ez zuten hutsik egin Zubietako joaldunek, trikitilari eta pandero-joleek eta beste hainbat zubietarrek. Joare soinu eta musika doinu artean ibili ziren Donezteben, jendez gainezka zegoen zinean filma ikusi eta gero, errodajearen erabilitako hainbat tresna eta gailuren erakusketa ere izan zuten, Zubietako plaza irudikatzen zuen maketan. Ondotik, 60 bat lagun bildu ziren Santamaria jatetxean egindako afarian. Filmaren egileak zubietarrekin eskertuak eta, aldi berean, zubietarrak egileekin eskertuak azaldu ziren.



UTZITAKOA

Euskal Herriko mus txapelketa

Jexux Santesteban eta Josetxo Elizalde nagusitu ziren otsailaren 16an estalpean jokaturako Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketan, finalean Ezekiel Baleztenari eta Pedro Elizalderi irabazita. Bost bikote aritu ziren. Larunbat honetan Iruñean ariko dira herriko txapelak.

Domintxeneko bikoteak 50 urte ezkondurik

Domintxeneko bikoteak, Lucio Juanikorenak eta Maribel Elizaldek 50 urte ezkondurik bete zituen otsailaren 23an. Familia hurbilarekin, semearekin eta alabarekin, eta lau bilobekin, giro politean ospatu zituzten urrezko ezteiak. Zorionak!

Emakumearen Eguneko afaria ospatzeko asmotan

Martxoaren 8ko Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzeko afaria egiteko asmoa dute herriko emakumeek. Errandonea eta herriko ostua itxita, ez da aukera handirik herrian, baina estalpean egingen dute seguruenik.

ORBELA
SERKIDUNA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

744 484 361
ttipi-ttapa

RESERVA
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK
Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36

Emakumeen egunaren harira mendi itzulia

Larunbatean, mendi itzuliaz gain, paella jatea eta bingoa egingen dituzte herritarrek

TTIPI-TTAPA

Ostiral honetan, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna izanen da eta hori oroitzuz, larunbat honetarako hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

Hasteko, 11:00etan mendi itzulia egingen dute. Frontoitik abiatuta, buelta zirkularra egi-

nen dute eta erraza izanen dela aurreratu dute antolatzaileek. 14:00etan mahaiaren bueltan bilduko dira eta paella jatea egingen dute ludotekan. Parte hartzeko ez da izenik eman behar. Arratsaldean, berriz, bingoan aritzeko aukera izanen da 17:00etatik aurrera.



JAIONE ZABALO

Araztegia martxan

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak, NILSA sozietate publikoaren bitartez, araztegia egiteko lanak lizitatu zituen joan den urtean eta lanak akituta, dagoeneko martxan da herritarrei zerbitzua ematen dien araztegia.



JAIONE ZABALO

Inauteriak giro ederrean

Otsailaren 17an inauterietako eguna izan zen. Goizean goiz trikitilariekin etxez etxe kalejira ibili ziren. Arratsaldean, batzuk baserrietako kalejira egin bitartean, haurrentzako futbol liga eta taloak izan ziren frontoian. Gauean borobildu zuten ospakizuna Barranka Jatetxean, 50 bat lagun bildu baitziren afarian.



JAIONE ZABALO

Hamaika bikote mus txapelketan

Euskal Herriko XV. Mus Txapelketako kanporaketa otsailaren 18an jokatu zuten ludotekan. Guztira hamaika bikote bertaratu ziren eta bi bikote sailkatu dira Nafarroa mailako finalera: Oier Zulaika eta Laurentx Etxegoien izan ziren nagusi bigarrenak, berriz, Iban Vinagre eta Ioritz Oiartzabal.



BAZKARI BEREZI BAT? ONGI ETORRI GURE ETXERA

ventabrok.com

SUTONDO
PARRILLA

Euskal Herriko gastronomiaren zaporeak parrilla usain gozoarekin.

IBARDIN - BERA
Tel. : +34 948 631 111

Legasarrek eta oiztarrek ere agurtu dituzte inauteriak

Ezurrako herritarrekin batera, aurten inauteriak ospatzen azkenak izan dira Legasan eta Oizen

TTIPI-TTAPA

Batean ez bada bertzean, mozo-
rro besta izan da nagusi azken
hilabetean. Legasan eta Oizen
ere ez dituzte ospatu gabe utzi,
eta eguraldia lagun ederki ibili
ziren otsailaren 16an eta 17an.

Legasan, eskolako lagunak
izan ziren inauteriak ospatzen
lehenbizikoak, otsailaren 16an.
Olinpiadak gaitzat hartuta, ikas-
leek eta irakasleek ikuskizunak
egin zituzten eta ondotik, hiru-
garren zikloko ikasleek ikasle
guztiendako bazkaria prestatu
zuten elkarteetan. Horrez gain,
puxkak biltzen ere aritu ziren

eta kuadrillatxo politak afaldu
zuen Kuku elkarteetan. Bihara-
munean, 134 lagun bildu ziren
herri bazkarian. Segidan, Jalis-
ko eta Jontxu DJak aritu ziren.

Oiz ere giro ederrean

Oiztarrek ere ederki ospatu zi-
tuzten inauteriak otsailaren
17an. Goizean indarrak hartze-
ko gosalduta ondotik, eskean
ibili ziren Modesto akordeoi-
lariarekin. Eguerdian bazkaria
izan zuten eta arratsaldea ere
eskean pasatu zuten. Afalduta-
koan, bestan segitu zuten gor-
putzak aguantatu arte.



Kuadrilla ederra bildu ziren Oizen inauterietan. UTZITAKO ARGAZKIA



Legasako inauterietan, goian ikasleak eta behegian bazkarian. N. MEOKI ETA A. GRAJIRENA



ARANTZA
HOTELA

Izu menua

NAFARROAKO ZAINZURI NATURALAK
PLANTXA ERARAN MAIONESAREKIN

NAFAR ERRIBERAKO ORBURUAK ARRAULTZA
GORRINGO ETA PARMESANO GAZTAREKIN

SORBETE TXUPITOA

ASTEKO HARAGIA EDO ARRAINA

ETXEAN EGINDAKO POSTREA

ESKAINZA BEREZIA: **48€** LEHEN **65€**

Egin erreserba +34 654 318 949 telefonon
edo info@arantzahotela.com helbidean

AIENISA ALDUA, 10 - ARANTZA

PREZIOA PERTSONAKO. EDARIA EZ DAGO BARNE. ERABILGARRITASUNAREN ARABERA ETA ALDEZ AURRETIKO ERRESERBAZ, GARAIAREN ARABERA, MAHAKIDE GUZTIENTZAKO MENU BERBERA, BORTZIRETAKO, MALEKREKOKO, BAZTANGO, XARETAKO ETA LEITZALDEKO HERRITARRENTZAKO ESKAINZA. *ALERGIAREN BAI BADIGUZE EDO ELIKAGAREN BATEK KALTE EGITEN BADIGUZE, ESKERTZEN DIGUZUEGU 48 ORDU LEHENAGO JAKINARAZTEN BADIGUZUE, MODU HONETARA MENUAK MOLDATZEKO AUKERA IZAN DEZAGUN.



Etxalarko lehenengo hiru sailkatuak sariak eskuetan. UTZITAKOIA

Mus eta partxis txapelketako finalak erabakiak

Martxoaren 14an jokatuko dituzte Donezteben herriz herriko mus eta partxis txapelketako finalak.

TTIPI-TTAPA

Sunbillan ez bertze herrietan dagoeneko jokatu dituzte mus txapelketak, eta Etxalarren eta Igantzin baita partxisekoak ere. Herri bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuak ariko dira martxoaren 14an Donezteben jokatuko dute finalean.

Herriz herri hauek izan dira mus txapelketako irabazleak. Beran Juan Carlos Altzuguren eta Juana Maria Armis; Legasan, Narbarten, Oieregin, Oronoz-Mugairin, Arraiozen, Almandozen, Berroetan, Anizen eta Zigan, Anizko Martin Luis Gamio eta Berroetako Pedro Maria Gamio; Igantzin, Salvador Etxarte eta Jose Javier Urtxegi; Arantzan, Juan Miguel Almandoz eta Xatur Larralde; Labaienen eta Saldiasen Labaiengo Martin Saldias eta Pello Miren Tellexea; Elizondon, Elbeten, Iruritan, Lekarozen eta Gartzaizen egindako txapelketan Elizondoko Juan Angel del Moral eta Iruritako Martin Gamio; Baztangoizako kanporaketan Amairuko Ramon Jauregi eta Angel Mitxelena;



Parte hartzaileak musean. UTZITAKOIA

Leitzan Jose Etxeberria eta Juan Carlos Erbiti; Donezteben Joakin Illarregi eta Jesus Mangado; Iturenen eta Zubietan Pedro Jesus Santesteban eta Jose Francisco Mutuberria; Eratsunen Jose Luis Eskudero eta Emilio Hernandezena eta Etxalarren Benantzio Elizagoien eta Pedro Berrueta.

Igantzin eta Etxalarren mus txapelketaz gain, partxis txapelketa ere egin zuten. Kasu horretan ere, herri bakoitzeko lehenengo hiruak sailkatu dira finalera. Igantzin Kontxita Vicente eta Anunciacion Txoperenak irabazi zuten eta Etxalarren Mercedes Santestebanek eta Maria Isabel Berruetak.



Berroetako irteeran parte hartu duten elkarteko bazkideak. UTZITAKOIA

Otsaileko mendi irteera Berroetan egin dute elkarteko mendizaleek

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 20an, hilabeteko hirugarren asteartero bezala, mendira joateko elkartu ziren elkarteko 58 mendizale. Baztanen zuten hitzordua para-tua, eta Berroetan elkartu ziren 09:00etan. Eguraldia lagun izan zuten, eta 9 gradurekin hasi zuten mendi itzulia.

Iturburutik atera ziren eta Larraburun gosaldu ondotik *Xuitxeko haitzetara* igo ziren. Gero Salaburdiñetara jaitsi ziren eta, azkenik, Trinitaten barna kotxeetara itzuli ziren bueltan.

Eguraldi eguzkitsuari esker inguru guztia ikusten zen: Mendaur, Saioa, Alkurruntz, Larhun... Irteeran parte hartu zuten bazkideek izugarri gozatu zuten. 12 km eta 4 ordu eskas ibili ondotik, Oronoz-Mugairiko Urgain jate-txean bazkaldu zuten. Hurrengo irteera Etxalarren izanen da.

Horrez gain, aitzineko al-dizkarian aipatu bezala, bizikletan irteerak egiteko taldea ere sortu nahi dute. Ateraldiak astean behin izanen dira, maiatzetik urrira bitartean.

Hainbat ikastarotan murgilduta daude elkarteko bazkideak

TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteak hainbat ikastaro ditu martxan. Horien artean berriki egin duten kimaketa ikastaroa. Donezteben 20 lagunek hartu zuten parte ikastaroan, Beran 14k eta Elizondon bertze 14k.

Horrekin batera, hainbat herritan Rural Kutzaren Ruralvia aplikazioa erabiltzen ikasteko ikastaroa egingen dute. Ikastaroaren data aldatu dute eta Beran martxoaren 11n izanen da azkenean, Beralandetan, 16:00etatik 19:00etara. Elizondon eta Leitzan ere egitekoa

dute ikastaro bera. Elizondon Arizkunenean izanen da martxoaren 20an 16:00etatik 19:00etara eta Leitzan martxoaren 27an ordutegi berean udaletxeko Batzar Aretoan.

Horrekin batera, elkarteak oroitarazi nahi du apirilaren 4an egingen dutela Euskal Kantuen Egunerako eta maiatzaren 5etik 15era Benidormera egingen duten bidaiarako izena emateko aukera badela oraindik. Interesatuak bulegora deitu beharko dute, bi zenbaki haue-tara: 948 45 08 78 edo 618 56 78 37.

Ezkontza

Dena prest zuen egun berezirako

Urteekin aunitz aldatu diren ospakizunak dira ezkontzak, eta mota guztietakoak egiten dira gaur egun: zeremonia jendetsu dotoreak, familiarekin ospatzeko besta ttiki eta intimoak, ongi pasatzeko ekitaldi informalak... aukerak amaigabeak dira.

Nolanahi ere, ezinbertzekoa da dena ongi prestatzea egun berezi honetarako, eta horretarako, hainbat elementu izan behar ditugu kontuan: loreak, jantziak, lekua, musika, argazkilaria, makillajea, dekorazioa... baita ondotik etorriko den eztei-bidaia ere. Bai, badakigu gauza aunitz direla, baina lasai egon, eskualdean

eta inguruan hainbat motatako zerbitzuak eskaintzen dituzten komertzio eta langileak ditugulako, ezkontza egunean deus ere falta ez dadin.

Urtero bezala, hurrengo orrietan horietako batzuk bildu ditugu; neurria egindako soineko bat bilatzen dutenek aukera paregabeak dituzte inguruan, Iruñea hurbilago dutenentzako nahiz Donostiara joatea nahiago dutenentzako. Musikari faltarik ere ez dugu, baita lore-dendak, argazkilariak, arropa-dendak, jatetxeak, bidaia-agentziak...

Ezkontza perfektuarekin amesteari utzi eta hasi zure ezkontza eguna prestatzen!



Karma
ESTETIKA

Dotore azken joerekin:
Gure ukitu aditua zure egun berezirako

Altzate, 33 BERA Tel.: 948 630 904



ETIEM
RAMON SANJURJO

ROBERTO VICENTTI
CERIMONIA
JAVIER CABÁS

MERCHE MODA NOVOS

Serapio Múgica, 11 • 20302 IRUN • T 943 612 626 • www.capelettimercheirun.com • 



«Soinekoa zerotik sortzeko prozesuan asko disfrutatzen da»

IRAIA OIARTZABAL GETARY ATELIERRA - DONOSTIA

Duela hiru urte sortu zuten Getary ateliera Iraia Oiartzabalek eta Ane Areitiok. Oiartzabalek 10 urteko esperientzia zuen jostintza lanetan bere markapean, eta Areitio finantzen munduan aritua bazen ere, moda zuen pasioa. Pasio horrek elkarturik, konfinamenduan abiatu zuten bi lagunek marka sortzeko ideia.

«Ezkontzako soinekoen bilduma bat saltzen hasi ginen, baina jantzi bakoitzean eskua sartzen bukatzen nuen beti, pertsonalizatu ahal izateko». Orduan konturatu ziren ongi ulertzen zutela elkar, eta batak orratzarekin eta besteak zenbakiekin, elkarren lana osatzen zutela.

«Lanean bakarrik aritu ondotik, norbait nahi nuen ondoan, nire maila berean egotea, eta Anek pertsonekin gertutik lan egiteko ohitura zuen. Orduan erabaki genuen gure lanak uztea ateliera sortzeko. Bizitzan hartu dugun erabakirik onena izan zen».

Norberaren neurria

Gaur egun ezkongaietzako eta gonbidatuetzako neurria egindako soinekoak sortzen dituzte. «Bezero bakoitzaren beharretan zentratzen saiatzen gara, horregatik, urtean bezero gutxi hartzen ditugu, batez ere ezkongaiak». Horretarako, «bezeroak urtebeteko aurrerapenarekin etortzea gustatzen zaigu, denbora izateko».

Lehenengo hitzorduan «elkar eza-gutzen dugu eta *brainstorming* baten bidez hainbat ideia mahaigaineratzen ditugu, bezeroak gustuko duena definitzeko. Bere gorpuzkerari, keinuei eta jokabideari erreparatzen diogu, eta lehen zirriborroa sortu eta materialak aukeratzten hasten gara».

Soinekoarekin bortz proba egiten dituzte: «lehenbizikoa kotoizko tela batekin egiten dugu, eta erabakigarriena izaten da ideia orokorra egiteko. Bezeroaren neurria egiten dugu, bere gainean markatzaileare-



kin eta guraizearekin forma emanez, bere gorputzak eskatzen digunaren arabera». Xehetasunak aurrerago lantzen dituzte; «erabakiak probaz proba hartzen ditugu, elkarrekin, ezusterik izan ez dezaten».

Ezkontzako soinekoen munduak bere joerak izan ohi ditu, «eta diseinu batek arrakasta izaten badu, urte asko irauten ditu». Hala ere, «jendeak horrelako soineko bat bizitzan behin egiten du normalki, eta argi izaten dute zer nahi duen. Joerak baino gehiago baloratzen da norberak gustukoa izatea, fisikoarekin ongi gelditzea eta izaerarekin bat egitea».

«Disfrutatze prozesua»

Azaldu duenez, «ezkontzen sektorea oso anitza da, eta ezkongai bakoitzak bere soinekoa bilatzen du, ezaugarri propioekin. Normalean lehenbizikoa aldiz egiten duten prozesua da, eta bezeroak, lagunek eta familiak asko disfrutatzen dute. Giro ederra sortzen da denon artean».

Hala ere, «kontziente gara prozesu hau ez dela mundu guztiarentzat, horregatik, inportanteena bezeroarekin hasieratik ondo ulertzea da. Zeretik sortutako soineko bat ikusteko gaitasuna eta gogoia izan behar du; prozesuan konfiantza izan behar du».



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

- EGUNEKO MENUA
- SAGARDOTEGI MENUA
- KARTA
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK ...

- 160 lagunendako jangela •
- Bazkalondoa nahi bertze luzatzeko aukera •
- Auto eta autobusendako aparkalekua •
- Haurrendako jolasparkea •
- Kottelarako leku aproposa •

Eskatu gure ezkontzetako menua!!

T. 948 625 472 | Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

«Musika bezeroaren arabera moldatzea da nire lana»

XABIER ALBERDI DJ XABIFEST



Osabaren Azkoitiko Joseba jatetxean abiatu zuen dj ibilbidea duela 18 urte Xabier Alberdik. «Kintako afarietan musika jartzen hasi nintzen, eta hortik urtebetera, 19 urterekin, lehen ezkontza egin nuen. Asko gustatu zitzaidan, baita jendeare ere, eta ordutik ez naiz gelditu. 35 urte ditudan arren, 160 ezkontza baino gehiagotan aritu naiz. Hainbat estilotako jendearentzat egin dut lan, eta bildutako esperientziak gaur egun ditudan oinarri sendoa eta ikuspegi zabala eman dizkit».

Esperientzia horri esker, «eskaintzen dudana zerbitzua gertuko eta anitza da; denetik eta denentzat jartzen dut». Ezkontzez gain, «orotariko ekitaldiak musikatu eta dinamizatzen ditut; kinta edo urtebetetzeko bazkari eta afariak, herrietako edo auzoetako festak, enpresa bazkariak, festa pertsonalizatuak...».

Kalitatea du lanaren oinarri; «azken belaunaldiko baliabideekin egiten dut lan: audio eta argiztapen sistema indartsua, kemakina, pantailak proiektorearekin... musika garbi eta ozen entzuten denean izugarritzko festa sortzen da, eta horrek markatzen du diferentzia. Gainera, gaur egun ezkontza askotan bideoak proiektatzen dituzte eta kalitatearekin ikustea eta entzutea inportantea da».

Ohitura berriak

Urteekin ezkontzak «asko» aldatu direla dio; «lehen musika orkestraren esku egoten zen, eta ospakizunak formatu motzagoa izaten zuten; 20:00etako bukatzen zen». Orain, berriz, «askotan zeremonia jatetxean bertan egiten da, eta festa 23:00ak arte luzatzen da, gozatzeko denbora gehiagorekin». Horrez gain, «dj batek edozein kanta jartzeko aukera du, edozein estilokoa. Hori ezinezkoa da orkestra batentzat, instrumentuek dituzten mugengatik».

Aitortu duenez, «ni musikaria naiz dj-a baino lehenago; pianoa, gitarra, saxofoia, harmonika... jotzen ditut eta solfeo ikasi dut. Horregatik, asko baloratzen dut zuzeneko musika. Baina onartu behar dut dj izateak beste eremu batzuetara iristea ahalbidetzen didala. Adibidez, musika elektronikoa eta klasikoa, trikitixa, rock gogorra edo artista konkretu baten kantak jartzeko aukera ematen dit».

Egun handirako prest

Ezkontza eguna bizitzako egunik garrantzitsuena dela diote batzuk, eta noski, ezkongaien dena ongi ateratzea nahi dute. Hori dela eta, «horrelako egun berezi batean lasaitasuna ematen dizun norbait aurrean izateak asko balio du, lana ongi eza gutzen duena eta proposamen eta aholkuak emanez laguntzen duena. Horrez gain, gure hizkuntza erabiltzeko aukera badago, askoz hobeto bezeroarentzat eta niretzat!».

Azaldu duenez, «ezkongaien lehenbiziko kontaktua normalean telefonoz egiten dugu, eta nire lan egiteko era azaltzen diet, edozein zalantza erantzunez. Nirekin lan egitea erabakitzen dutenean, ezkontzari buruz hitz egiteko elkartzeko gara eta nolakoa izango den prestatzen hasten gara: zeremonia, luntxa, ezkongaien sarrera, opariak, detaileak



HEMEN DAGO ZUEN AMETSETAKO BIDAIA

TAKA TUKA
bidaiak

Eztegarra pasealekua, 30 A
31780 BERA (Nafarroa)
Tels.: 948 630 451 / 948 630 641
info@takatukabidaia.com
www.takatukabidaia.com

EZKONTZA

LORE SORTAK
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK

ZU

**lore denda
dekorazioa
osagarriak**

Altzate, 33
31780 BERA

zuloredenda@hotmail.com
Tel.: 948 625 786



2024-2025eko
EZKONTZAK!



IGOR APARICIO
- ARGAZKILARIA -

info@igoraparcio.com | 639 828 621

eta berezitasunak, dantzatzeko musika... bezeroaren arabera moldatzea da nire lana».

Izan ere, «ezkontza bat egun eta leku horretan dagoen jende konkretua biltzeko modu bakarra da, eta horrek giro berezi eta errepikaezina sortzen du. Horri erantzuten diot nik, bertan dauden guztiak ahalik eta ondoen pasa dezaten».

Musika denen gustura

Prestaketak inportanteak dira, baina ezkontzaren egunean edozertarako prest egon behar du dj-ak. «Egunean ere jendeak kantak eskatzen dizkit, eta normalean, leheneago edo geroxeago, denak jartzen ditut. Kanta horiek sesioan ondo txertatzea da nire lana».

Azaldu duenez, «denetik» jartzen du, «lau ordu edo gehiagoko dantzaldiak denetik jartzeko aukera ematen duelako: rantxera edo pasodoblelik hasi, euskal musikatik pasatu eta gehienbat *patxango*an ibiltzen naiz, beti aurrera eta atzera. Rocka, popa eta abar entzuten dira, eta festa go-

rantz doan heinean, egur pixka bat jartzea ere gustatzen zait, adibidez, lehen hemen inguruan zegoen Txitarro eta horrelako diskoteketan entzuten zen musika elektronikoa eta bakalaoa. Jendeari asko gustatzen zaizkio eta saioari bizitasuna ematen diote».

Noski, saioa ezkongaien eta gonbidatuen gustuen araberakoa izaten da, «eta ez dira bi saio berdin ateratzen. Ezkontza bat bertan dagoen pertsona guztienezko da, gazte zein zahar, eta denentzako martxa izatea da nire helburua». Musika estilo asko nahastean, «jende guztia hurrengo kanta zein izango den ezin asmatuz egoten da. Edozer entzutea espero dute, datorrenari irekiak, eta abestia dantzatzeko gogoz egoten dira».

**«GIRO BEREZIA ETA
ERREPIKAEZINA
DU EZKONTZA
BAKOITZAK»**



DJ

Animatu eta prestatu zaitezte zuen egunik garrantzitsuena topera bizitzeko!

XABIFEST

XABIER ALBERDI

EZKONTZAK ETA OROTARIKO EKITALDIAK

AUDIOA ETA ARGIZTAPENA

658 747 682

xabifest@gmail.com

«Mundu guztiak izan beharko luke bere jantzi bakar eta berezia»

JOSEBA HUARTE JOSEBA HUARTE ATELIER - IRUÑEA



Ttikitatik gustuko izan du eskuz jostea Joseba Huartek, hala ere, «argi nuen Arkitekturako ikasketak egin nahi nituela. Baina azkeneko momentuan iritziz aldatu eta Moda diseinuko karrerara sartu nintzen. Titulazio bikoitza egin nuen: hemengoa eta britaniarra». Lau urte horietan «hainbat atelietan lan egiteko zortea izan nuen, ezkontzen munduan erreferentziazkoak diren diseinatzaileekin batera. Horri esker, ezagutzak lortzeko eta hainbat teknikan trebatzeko aukera izan nuen».

Ezkontzetako modaren afizioa «ezustean» etorri zela onartu du: «pandemia ondotik hiru urtetako ezkontzak pilatuak ziren, eta jende aunitzek idatzi zidan ekitaldirako jantziak egiteko eskatuz. Geroztik, ez diot utzi honetan lan egiteari».

Konpromisorik gabe

Emaztegarientzako, amabitxientzako, gonbidatuentzako... soinekoak diseinatzeko dituzte Huartek. «Tratu hurbila eta xumea» eskaintzen dituzte atelietan; «ezinbertzekoa baita bezeroa eroso sentitzeko eta bere ideiarekin modu aberasgarrian lan egin ahal izateko».

Lan egiteko modua «berdina da beti: hainbat hitzordu izaten ditugu bezeroarekin bere ideiak ezagutzeko,

nolako ezkontza izanen den, aurrekontua erabakitzeke, materialak aukeratzeko... eta honekin hiru diseinu aurkezten dizkiogu hautagai, gutxi gorabeherako prezioarekin. Zeretik egindako diseinuak dira, bezeroaren gustu eta beharrei egokituak. Hori guztia dohainik egiten dugu, gure lan egiteko modua ikus dezaten, eta pentsatzeko denbora uzten diogu, inongo konpromisorik gabe».

Azaldu duenez, «soineko bat egiteko prozesua guztiz desberdina da zuzenean erostearekin. Norberak aukeratzen du uneoro nolako izanen den: eskotea, maukak, telak... bezeroaren gainean sortzen da jantzia eta berarekin batera aldatzen da, probaz proba». Gainera, «zeretik lan egitean, aukera posible guztiak soinean jarrita ikus ditzakegu erabakiak hartu ahal izateko».

Soinekoak denen eskura

«Kalitatezko material eta osagarrien aukera zabalarekin» egiten du lan; «horri esker, edozein aurrekonturi egokitu gaitzeko. Mundu guztiak izan beharko luke eskubidea bere armarian jantzi bakar eta berezi bat edukitzeko». Gainera, «soinekoak ditugu erakusgai, material bakoitza moztua eta landua nola geldituko den ikusi ahal izateko».

Jantzi bat sortzeko «sei hilabete inguru behar izaten ditugu, baina hilabete eta erdiko epearekin ere lan egin izan dugu». Horretarako, «norberaren buruarekin leiala izatea da garrantzitsuena; bezero bakoitza berezia da eta estilo, gorputz eta nor-tasun propioa dauka. Bakoitzak bere estilo eta gustuak jarraitu behar dituela azpimarratzen dugu beti. Aunitzetan ez dute argi zer nahi duten, eta prozesua osoan orientatu eta laguntzen ditugu».

«Gurekin solastatzera eta gure lan egiteko modua ezagutzera gonbidatzen zaituztegu!».



JOSEBA HUARTE
ATELIER

Andregaietzako eta gonbidatuentzako diseinu pertsonalizatuak neurria.

Zure estiloko jantzia sortuko dugu

josebahuarteatelier.com
T. 622914691
Gaztelu plaza, 28 | IRUÑEA

Zaldúa
argazkilariak

Elizondo
948 580 491

Zaintzari buruzko lanketa berezi bat jarri dute martxan

Herrian zaintzaren egoera zein den identifikatzeko parte-hartze prozesu bat egiten ari dira Matia Fundazioak gidatuta

TTIPI-TTAPA

Zaintzaren gaia erdigunean jarri nahi izan du Leitzako Udalak: «gai honen inguruan herrian kezka handia dagoela ikusita, erantzun bat emateko momentua dela uste dugu».

Prozesua aurrera eramateko Matia Fundazioa izanen dute bidelagun, «zaintzaren gaia gertutik ezagutzen dute. Diagnostikoak egiten ohituak daude eta beraiek duten esperientzia baliatuko dugu. Asmoa tokian tokiko beharretara egokitzen den zaintza eredia ezartzea da».

Diagnostikoa

Lehenbiziko pausoa diagnostiko bat egitea izanen da: «nola zainduak izan nahi dugun jakiteko, zer den garrantzitsua bakoitzarentzat, zein indargune ditugun identifikatzeko, zer behar dugun ikusteko... Leitzako ekosistema bat osatzeko, abiapuntua zein den jakin behar dugu».

Horretarako, parte-hartze prozesu bat jarri dute martxan: «herriak esanen du zein zaintza eredu behar eta nahi duen». Herriar guztiei egin diete parte hartzeko deia, baina

lanketa hasteko talde motore bat sortu dute dagoeneko: «Gizarte Zerbitzuekin, Osasun Etxeko ordezkariekin, zaintza ematen duten pertsonekin, zaintza jasotzen dutenekin eta herriko hainbat eragilerekin elkartu gara».

Parte-hartzea

Otsailaren 28an egitekoa zuten parte-hartze prozesuko lehenbiziko bilera. Horretarako, zuzenean galdetu zieten herriarrei nola zainduak izan nahi duten: «oso oinarritzko galdera da, bere barruan gauza asko biltzen dituen. Zaintzak ezin du denontzako berdina izan. Bakoitzak bere beharrak ditu eta horretara ailegatzeko, pertsona jarri behar da erdigunean».

Parte-hartze prozesuaren ondotik, «ikusiko dazere dagoen eta zein bidetatik landu behar den gaia. Galdera konkretuen inguruan erantzunak biltzen saiatuko gara».

Aurrerak kantu bazkaria antolatu du martxoaren 9an

Aurrerako dantzariak kantu bazkari antolatu dute. Hainbat musikari eta abeslari gonbidatu dituzte eta dantzariak ere parte hartuko dute ekitaldian. Kantu-poteoan hasiko dute eguna, luntxa Illarregi anaiek girotuko dute eta, tartean, bingo musikatu ere egingen dute.

Palestinareri babesa emateko hainbat ekimen prest dituzte

Palestinaren aldeko elkartasun kanpaina abiatu zuten martxoaren 3an eta diru bilketa egiteko asmoa dute hila-bete osoan. Apirilaren 13an, Atekabeltz herrigunean, Palestinaren aldeko erresistentzia jaialdia antolatu dute, egun osoko gitarauarekin.

Martxoaren 8aren bueltan hainbat ekitaldi antolatu dituzte eragileek

TTIPI-TTAPA

Emakumeen Nazioarteko Eguren bueltan hainbat ekitaldi antolatu dituzte herriko eragileek. Hasteko, Lañaidek taldeak kafe tertulia antolatu du Atekabeltzen 17:30etik aurrera. Martxoaren 7an Leitzako Berrintasun Batzordeak, *Sasiak*

eta haziak dokumentala eskaini eta mahai-ingurua antolatu du Herri Aretoa 18:00etan. Martxoaren 8an, Amazabalgo ikasleak kalera aterako dira eta 12:00etan manifestazioa egin eta bukaeran batukada egingen dute. Denok Bat Guraso Elkartearen eskutik heldu da egu-

neko beste proposamena. Martxoaren 8an, 18:00etan, *Txanogorritxo* Rockantzezlan izanen da Herri Aretoa. Sarrerak hamar eurotan eskura daitezke eta Guraso Elkarteko kide direnek merkeago izanen dituzte: zazpi eurotan (haurrek) eta zortzi eurotan (helduek). Eguna bukatzeko, 19:30ean manifestazioa izanen da plaza abiatuta, Lañaidek taldeak deituta.

Jeiki abesbatzaren emanaldia martxoaren 17an

50. urteurrena ospatzeko, emanaldi berezia eskainiko du Jeiki abesbatzak martxoaren 17an. Iruñeko Aizaga abesbatzarekin eta Sinfonía Navarra orkestrarekin batera kontzertua eskainiko dute elizan 19:00etatik aurrera. Sarrera 15 euro ordaindu beharko da.

Giro ederra Arkupeaken bazkarian

Leitza, Areso eta Berastegiko Arkupeak elkarteko kideek bazkaria egin zuten otsailaren 25ean. Ehun lagundik gora bildu ziren eskolako jantokian eta bazkalondoan, dantzan erre zituzten jan-edanak Jose Angelekin.



ENERITZ IRAOLA

Torrearock elkartasun jaialdia martxoaren 23an

Torrearen 30. urteurrena ospatzeko Torrearock jaialdia antolatu dute martxoaren 23an. Herri aretoa izanen da eta 18:00etatik aurrera: Rotten XIII, The Clayton, Neskatasuna, Herdoil eta Üzkuluz DJ ariko dira. Sarrerak Torrean daude salgai 20 eurotan.

'Letrak kalera' ekimena egingen dute martxoan

Herriko idazle eta egileen lanak ikusgai jarriko dituzte komertzioetan eta errezitaldi bat ere antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Literatura kalera ateratzeko bideen bila hasi zen duela urtebete inguru laukote bat: «literaturaren bueltan txirrinta sortzea zen asmoa». Ez zuten nolanihi egin nahi, «kanpoko idazleen lanak hartu beharrean, herriko idazleei egin nahi genien tokia». Horretarako, zerbait argitaratu duten leitzarren zerrenda osatzea izan zen lehen-biziko lana: «Euskara Batzordean duela urte dezente zerrenda bat osatua zuten. Zerrenda hori eguneratu eta hogeita hamar bat egile bildu ditugu: guztiak noizbait euskaraz libururen bat publikatu dutenak».

Horri zabalkundea emateko, herriko komertzioengana jo zuten: «herritarrek idatzitako lanak beraien komertzioetan hilabete batez ikusgai jartzeko prest egonen ote ziren galdetu genien eta hirurogei komertzioak baiezkoa eman ziguten».

Zerrenda eskuetan, idazle edo egile horiei egin zieten proposamena: «idazle izenak pisu handia izan dezakeelakoan egile deitzen diegu ekimenean parte hartzen dutenei. Hamar

bat lerrotako lanak idazteko eskatu genien: genero, gai, neurri aldetik... libreak». Harrera bikaina izan zuen proposamenak: «hogeita zazpi egilek parte hartu dute. Komertzianteen erantzuna ikusita, bakoitzari bi lan idazteko eskatu genien eta, tartean, badira bost lan aurkeztu dituztenak». Martxo bukarara arte, herriko komertzioetan egonen dira ikusgai: «asmoa da erosketak egin bitartean, herri-tar batek idatzi duen zerbait irakurtzeko modua izatea».

Emanaldia martxoaren 20an

Ekitaldi berezi bat ere egingen dute udaberri hasieran. Martxoaren 20an, errezitaldi bat antolatu dute Herri Aretoan 20:00etan, «hogeita bat egilek eman dute baiezkoa. Batzuk oholtzara igoko dira, besteak audio edo bideo baten bidez egonen dira presente. Ordubate inguruko saioa izanen da eta herriko musikariek ere parte hartuko dute. Saioa Sagastibel-tza izanen da aurkezlea eta Miren Fagoagak prestatuko du ekitaldiko kartela. Dohainik izanen da».

Antzerkiak eta zinemak tokia izanen dute datozen asteetan Herri Aretoan

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 10ean Julio Cesar antzezlan eskainiko du Compañia do Chapitrek kolektiboak. Emanaldia 19:00etan hasiko da sarrerak zazpi eurotan eskura daitezke Internet bidez edo egunean bertan zortzi eurotan.

Hilabeteko hirugarren aste-buruan zinemaren bueltan osatuko dute Herri Aretoan proposamena. Martxoaren 16an eta 17an, *Negu hurbilak* proiektatuko dute 17:00etan eta segidan, 19:30etik aurrera, *Pobres Criaturas* filma izanen da ikusgai.



Herriarren babes zabala du Arkiskil futbol zelaiko proiektuak. EIRAOLA

Futbol zelaiko proiektua «elkarrekin bultzatzeko» deia egin du udalak

TTIPI-TTAPA

Arkiskil futbol zelaiaren egoera zein den argitu eta eman beharreko pausoak azaltzeko, batzarra egin zuten otsailaren 26an. Jakin-mina handia zen eta Aurrera Elkarteko ordezkariak, jokalaria eta taldeko kideen gurasoak bertaratu ziren.

Lehentasunezko proiektua

Udalarentzat lehentasunezko proiektua dela nabarmendu zuen alkateak: «gure esku ditugun bitarteko guztiak erabiltzeko prest gaude». Hala ere, azken erabakia ez da beraiena: «800.000 euro inguruko inbertsioa beharko litzateke belar artifiziala jarri, argiteria aldatu eta aldagelak berritzeko. Diru kantitate handia da eta hori egin ahal izateko ezinbestekoak dira Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak».

Oinarrizkoa litzateke, «aurrekontuetan Arkiskilgo proiektuarentzat partida bat zehaztuta egotea».

Momentu honetan, Nafarroako Parlamentuko aurrekontuetako aurreproiektuan ez dute sartu: «dena den, etorkizunean lortu daitekeen zerbait dela uste dugu». Proiektuak herriarren babesa duela bistakoa da, horregatik, orain: «denek norabide berean, presioa egiteko indarrak batuta, lan egiteko garaia da. Iruñean arazoaren neurria zenbatekoa den argi erakusten asmatu behar dela» azaldu zuten. Asko dira landu daitezkeen bideak: sinadura bilketak, Parlamentuan agerraldiak... Udalak eta Aurrerak hitzartuko dute hori nola egin eta herriar guztiei eskatu diete orain arte bezala, egiten diren ekimenean parte-hartze aktiboa izatea.



«Herritarron artean eraman behar dugu aurrera herria»

UDALEKO KUDEAKETA BATZORDEKO KIDEAK

ENERITZ IRAOLA

Bi hauteskunde deialdi eta hamaika bileraren ondotik, herritarrek osatutako kudeaketa batzorde baten esku gelditu daiteke Aresoko Udala. Aingeru Etxaidek, Irantzu Alustizak, Alaitz Olanok, Igaro Baldak, Olatz Telleriak eta Bea Murok osatu dute taldea eta Nafarroako Gobernuaren erantzunaren esperoan dira lanean hasi ahal izateko.

Azken aukera

Herria «atzera bueltarik ez zuen puntura» ailegatu zela ikustean eman dute pausoa. Azaldu dute udala galtzeko aukera ere mahai gainean egotera iritsi zela: «herri bezala funtzionatu edo beste herri baten menpe egon nahi genuen erabaki behar genuen». Beraiek argi zuten: «herritarron artean eraman behar dugu aurrera herria. Herri ttiki bat handiago baten esku gelditzen denean, beti ttikia ateratzen baita galtzen».

Alkategaia topatzea izan zen hauteskundeetan arazoa: «inork ez zuen ardura hori bere gain hartu nahi eta horrek eragiten zuen blokeoa». Kudeaketa ba-

tzordea osatzerakoan ere horixe zen gakoa. Orain, izena aldatuta, batzordeko lehendakaria izateko «konpromisoa» hartuko luke bere gain Bea Murok eta «taldearen babesean, bertigoa zertxobait ttikiagoa» dela dio.

Erronka

Kudeaketa batzordea sortuta, momentuan arazoari «irtenbide» bat eman nahi diote, «baina herri bezala landu behar dugun zerbait» dela azpimarratu dute. Ongi gogoan dute azken hauteskundeetan egingako «eskapada haundia. Aurkeztu zen taldeak ez zuen kargua hartzeko asmorik, baina beste talde bat aurkeztu izan balitz... akabo Aresoko Udala eta herritarrentzat aukera».

Aukera horri heldu eta «zerotik» hasiko dira beraiek lanean: «talde gaztea gara, gehienok ez dugu inolako esperientziarik udalean. Bea da aurreko udal taldetik segiko duen bakarra. Badakigu dena ez dugula ongi egingo, dena gaizki ere ez... Egiten duguna baloratu eta ez daitezela oso gogorrak izan gurekin».



Ezkerretik eskuinera, Aingeru, Bea, Irantzu, Alaitz, Igaro eta Olatz. E.IRAOLA

Elkarlanerako deia

Hasieratik elkarlanerako deia egin nahi diete herritarrei: «sei pertsona hartuko genuke kargua, baina denak ezin du gure gain gelditu». Taldeka banatu eta jendeak lan zehatzak hartzea planteatu dute: «auzolana indartu nahi dugu. Falta den taldeko zazpigarren kidea herritar guztien artean osatzea da gure asmoa».

Taldekan egiteko asmoaren atzean arrazoï garbia dago: «ez

dugu jendearen atzetik ibili nahi, laguntza edo fabore eske ariko bagina bezala. Jendeak konpromisoa hartzea nahi genuke, bere herriaren alde lan egiteko prest egotea. Taldeak osatu, jendea inplikatu eta hitzetatik ekintzetara pasa daitezela».

Horretarako, «herritarrek beraien herria bere sentitzea» izango da lortu beharreko erronka nagusia, «herritarrek konturatzea herriarentzat lanean ari direnean, beraiarentzat ari direla lanean; ez beste inorentzat». Bakoitzak duenetik eman ez, «denok gara onak zerbaitetan, baliatu dezagun hori herriaren alde. Denon artean landu ditzagun herria hobetzeko aukerak».

«JENDEAK KONPROMISOA HARTZEA NAHI GENUKE»

Euskal Herriko Mus Txapelketako ordezkariak

Herriko bi elkarteetan kanporaketak jokatu zituzten otsailaren 24an. Atxukarro eta Arretxe eta Ibai Otermin eta Hodei Garmendia izanen dira Nafarroako finalean ariko diren Aresoko ordezkariak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lanaldi jarraiaren alde egin dute eskolan

Nazabal Eskolan datozen bi urteetako lanaldia erabakitze-ko bozketak egin dituzte. Parte-hartzea ehuneko ehunekoa izan da; haur bakoitzeko boto bat zuten gurasoek, 25 dira denera eta lanaldi jarraiaren aldeko 24 boto jaso dituzte eta kontrako bat.

Korrikarekin bat egiteko aukera martxoaren 19an

Leizatik Uitzirako bidean bi kilometro erosi dituzte herritarrek: bat eragileen artean (Usoa, Guraso Elkarte, Lagunartea, Pake Toki eta Larrea) eta bestea udalak. Erosi soilik ez, korrika egiteko deia ere luzatu dute eta bukaeran, afari merienda egingo dute elkarrekin.

Korrikarako girotzeko hainbat ekitaldi prest

Goizuetarren eta aranoarren artean erosi dituzte bertatik pasatzen diren 28 kilometroak

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 19an, 18:30 aldera, ailegatuko da Korrika Goizuetara. Umore Ona Elkarte-ko kideen eskuetan eginen ditu lekukoak lehenbiziko kilometroak eta eskuz esku, goizuetar eta aranoarren artean ibiliko da Leitzatik Hernanirako bidean dauden 28 kilometroetan. Marka hautsi dute aurten Goizueta eta Aranon eta Korrikako 29 kilometro erosi dituzte. Horren, ondorioz, 800 metroko kilometroak osatu behar izan dituzte azkenean. Festa ziurtatuta dago.

Aurretik, Korrika Kulturala ere antolatu dute. Aranon Korrika festa egitekoa dute martxoaren 9an, larunbatean, eta martxoaren 10ean, igandean, *Enperadorearen kondairaitza* len bidez egindako antzezlanaz gozatzeko aukera izanen dute Herriko Etxeko ganbaran 17:00etatik aurrera.

Martxoaren 15ean, mahaia- ren bueltan bilduko dira eta bertso zaharren afaria antolatu dute. Imanol Kamio eta Unai eta Eñaut Agirre ariko dira kantuan 21:00etatik aurrera Umore Ona Elkartean.

Estankoa hartuko duen norbaiten bila dabilta

Duela hogeita zortzi urte ireki zuen Elenak estanko eta arropa denda. Bizitzan beste fase bati hasiera emateko momentua dela erabaki eta denda uztea erabaki dutela jakinarazi dute. Herritarrak zerbitzurik gabe gelditu ez daitezen, estankoa saltzeko asmoa dute.



Ekainera arteko epea eman du.

Ignazio Bergara herritarraren gutunak hizpide beste behin ere

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 24an, *Ignazio Bergara goizuetarraren gutunak. Arranbide (Arano) eta Elama (Artikutza). 1787-1811. Edizioa eta Hizkuntza Azterketa* liburua aurkeztu zuten Goizuetako Herriko Etxeko ganbaran. Juan Joxe Zubiri eta Patxi Sa-

laberri egileak bertan izan ziren eta azalpen interesgarriak eskaini zituzten. 2019an Pas-kualuzenea etxeko kutxa batean topatu zituzten izkribuetan oinarrituta osatu duten bigarren liburua Euskaltzaindiako Iker sailean argitaratu dute.



FELIX LOIARTE

Kantuz goxatu zuten arratsaldea

Umore Ona eta Bilboko Kirikiño abesbatzen kontzertuaz gozatzeko aukera izan zen otsailaren 24an. Arratsaldean eskaini zuten emanaldia eta doinu goxoz bete zuten eliza. Gonbidatuak herrira etortzen diren gehienetan bezalaxe, elkarrekin ere abestu zituzten kantu batzuk.

Goizutrail lasterketan parte hartzeko izen-ematea ireki dute

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 18an eginen dute Goizutrail lasterketaren berderatzigarren edizioa. Beste behin ere korrikalariz beteko dira herriko txoko berezienak. Lasterketan parte hartzeko bi ibilbide jarri dituzte aukeran: ibilbide motza eta luzea. Ibilbide motzak 10,6 kilometro izanen ditu eta bakarka edo bikoteka parte hartzeko aukera eman dute. Ibilbide luzea egitea aukeratzen dutenek, Artikutzan barrena egin beharko dute lasterka eta 25,6 kilometroko ibilbidea osatu behar-



lazo parte hartzaileak. ARTXIBOA

ko dute. Izen-emateko epea dagoeneko zabalik dagoela jakinarazi dute antolatzaileek eta interesa duenak *herrikro-sa.eus* atarian sartu beharko du.



Liburuaren egileetako bi izan ziren aurkezpenean. F. LOIARTE

Lozy'seko langileak hitzarmenaren alde borrokan

Otsailaren 20an hasi zituzten greba jardunaldiak eta martxoaren 4tik aitzinera greba mugagabea deitu dute

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Lozy's Pharmaceuticals enpresako langileak greban dira, hitzarmen propio bat lortzearen alde. ELAko Nerea Sainz Rodriguezek azaldu duenez, «joan den urtean langile batzuk sindikatuarengana hurbildu ziren, enpresak nahi zuena egiten zuela erranez: egutegiarekin, lizentziekin, batzuei gauza batzuk emanez eta bertzeieiz... Haien egoera antolatu nahi zuten, eta enpresak zortzi urte bertzerik ez dituen arren, langileek uste zuten nahiko egonkortua zela eta haien baldintzak hobetzeko garaia zela».

Hori dela eta, bortz laguneko komitea sortu zuten, ELAko delegatuekin, eta hitzarmen propioa egitea proposatu zioten enpresari. «Izan ere, estatuko kimiketako hitzarmena aplikatzen zaie eta soldata baxuez gain, ez dituzte eskubide arrazabak». Hala ere, «enpresak ezezkoa eman zigun. Hainbat alternatiba planteatu dizkiogu baina ez daude solastatzeko prest».

Azaldu duenez, «nahiko plataforma xumea eta ttikia egin dugu, nonbaitetik hasteko. Soldatak hobetu nahi ditugu, lanaldiak murriztu, ordu estrak erregulatu, plus batzuk eta lizentziak hobetu, opor egunak eta kontratazio baldintzak zehaztu...».

Horren aitzinean, «enpresaren jarrerak aunitz harritu gaitu. Ez dute negoziatorik nahi. Sinadura bilketa egin genuen hitzarmena nahi dugula erakusteko, eta langileak sinatzeko engainatu genituela erran ziguten».

Greba mugagabea

Otsailaren 20an abiatu zituzten greba jardunaldiak, eta enpresako 77 langileetatik 60k egin zuten bat deialdiarekin, «beraz, segimendu zabala izan du».

Enpresaren aitzinean elkarretaratzeak egiteaz gain, kotxe karabanak eta eltze-jotzeak egin dituzte langileek. Otsailaren 22an, berriz, manifestazio deialdia egin zuten eta 250 lagun inguru bildu ziren Elizondon. Eguraldia lagun ez bazuten ere, ozen oihukatu zuten herriko karrketan lan hitzarmena nahi dutela, eta plazan akitu zuten ibilbidea.

Bertan, langileek beren aldarrikapenak plazaratu zituzten: «gure asmoa negoziaketa propioa egitea da, gure baldintzak hemen negoziatu behar ditugulako. Baina enpresak hasiera-hasieratik ezezkoa eman digu». Gainera, salatu zuten, «greba hasi dugunetik enpresa gure greba eskubidea urratzen ari da, langileen ordezkapenekin. Ez dute negoziatu nahi, ezta gure eskubideak errespetatu ere».

Hori dela eta, martxoaren 4tik aitzinera grebamugagabea egiteko deialdia egin zuten. Lerro hauek idazterakoan, langileek grebarekin segitzeko asmoa dute, haien borrokak fruituak emanen dituen esperantzarekin.

«ENPRESAK EZ DU KOMITEAREKIN SOLASTATU NAHI»

NEREA SAINZ RODRIGUEZ, ELA



Otsailaren 20an hasi zuten langileek grebaldia. R. OSKARIZ



250 lagun inguru bildu ziren Elizondoko manifestazioan. R. OSKARIZ



«Enpresak langileen greba eskubidea urratu izana» salatu zuten. R. OSKARIZ



% 78ko babesa izan du greba deialdiak langileen artean. R. OSKARIZ



Bertsorik ez zen faltatu sagardotegiko ekitaldian. UTZITAKOA

Nafarroako Bertsozale Elkartearen 40. urteurrena Lekarozen

Ekitaldiaren aitzinetik, elkartearen urteroko Batzar Orokorra egin zuten Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 24an Nafarroako Bertsozale Elkartearen 40. urteurrena ospatu zuten Laraldea sagardotegian.

Ekitaldia hasteko, Lesakako lau dantzarik aureskua dantzatu zuten. Ondotik, Nerea Bruño lehendakariak hartu zuen hitza; elkartea sortu zutenei esker ona adierazi, joan direnak gogoan hartu, eta 40 urteetan egindako aurrerapausoak nabarmendu zituen. Ondotik, bederatzi bertsozale kopla saioa egin zuten, panderoa eta dantzariak lagun zituztela.



Gitarrekin kantuan ere aritu ziren.

Bazkalondoan Julen Zelaie-tak, Ekhiñe Zapiainekin gitar-rran, espresuki sortutako bertso sorta kantatu zuen. Akitzeko, Lesakako Hor gu taldeko kantariak bertso sorta musikatua kantatu zuten.



MIKEL HUALDE

Irurritako duatloian izena ematea irekia

Irurritako IV. Mendi Duatloiak badu dagoeneko data: maiatzaren 1ean izanen da. Izena emateko epea apirilaren 29ra arte dago zabalik kirolprobak.com webgunean, eta bi modutan parte hartzen ahalko da: banaka (20 eurotan) edo erreleboka (30 eurotan).

Lágrimas de Sangreren kontzertua eta 'Furgonologo' bakarriketa Lur Aretoan

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Lur Aretoak bi ekitaldi prestatu ditu hilabete honetarako.

Larunbatean, martxoaren 9an, Lágrimas de Sangre taldeak kontzertua emanen du 00:00etan. Hilaren 23an, berriz, Julen Axpe umoristak *Furgonologo* bakarriketa aurkeztuko du 20:00etan. Ate irekie- ra 19:00etan izanen da.

Bi ekitaldietako sarrerak salgai daude dagoeneko, 15 eurotan bakoitza, Mendi os- tatuan eta luraretoa.com web- gunean.

Gau elektronikoa 16an

Martxoaren 16an, aldiz, tekno musika gustuko dutenek hitzordua izanen dute diskote- kan, Lurrikara besta izanen baita.

23:00etan hasiko da ekitaldia eta berotzeko, Inaxiø, b2b eta Ugutz DJak girotuko dute bes- ta. Ondotik Aimar Oskariz, DVS, Dorian eta RED3R izanen dira oholtzaren gainean, eta 06:00ak arte iraunen dute tek- no musika saioek.

Bestako sarrerak salgai dau- de luraretoa.com webgunean zortzi eurotan.

OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43

www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

@oteizaarquitectos

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK • HEGAZTIEN KONTROLA

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

Oharritz Auzoa z/g - LEKAROZ

T. 948 452 143 - 948 452 449

info@harrilan.com www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

Martxoko agenda kulturala ekitaldiz gainezka

Martxoaren 8aren harira, solasaldia eta elkarretaratzeak antolatu dituzte eragile feministek

TTIPI-TTAPA

Hilabetero bezala, Baztango Kultura Zerbitzuak martxoko jarduera guztiak bildu ditu agendan.

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8ko bezperan, ortzegunean, mintzaldi berezia prestatu du Baztango Berritasun Batzordeak Esti Linaresekin: *Manosfera. Zer da? Matxismo antolatua! Eta zer egin dezakegu?* solasaldia aurkeztuko du Arizkunenean 18:00etan.

Emakumeen Nazioarteko Egunean, berriz, bi hitzordu izanen dira. 12:00etan elkarretaratzea egingen dute Baztango udaletxearen parean *Isilarazi matxismoa* lemapean. Ilunabarrean, berriz, Mugimendu Feministak mobilizazioa antolatu du, 19:00etan Elizondoko plazatik abiatuko dena.

Azokak

Baztango Artisauak eta Baztango Zaporeak elkarteak merkatuak egiten hasiko dira

berriz ere larunbatetan Elizondon. Hilaren 9an, 16an, 23an, 29an eta 30ean herriko plazan izanen dira 10:00etatik 14:00etara.

Bailableak

Dantzatzea gustuko dutenek muxikoak, jotak eta larrain dantzak izanen dituzte martxoaren 10ean, 12:30ean, Elizondoko plazan. Elizondoko Gaiteroek antolatu dute hitzordua eta hurrengo hilabeteetan Almandozen eta Berroetan ere izanen dira.

Korrika kulturala

Martxoaren 15ean pasatuko da aurreko Korrika Baztandik, eta prestatzen hasteko, hainbat hitzordu antolatu dituzte Korrika kulturalaren barnean. Hilaren 9an Korrika besta izanen da Elizondon: goizean bizikleta martxa, ondok bazkaria, bertso poteoa, eta akitzeko kontzertua.

Martxoaren 10ean, igandean, Jon Plazaolak Tu-tum, Platz! helduendako antzerkia aurkeztuko du Iruritako Gizarte Bilgunean 18:00etan.



Elkarretaratzea eta mobilizazioa egingen dituzte martxoaren 8an. ARTXIBOTIK

Hilaren 15ean, berriz, Bide-nabar taldearen kontzertua eta pintxo-poteoa izanen da Amezti Elkartearen.

Ipuin kontalaria

Haizea Loira musikoterapeutak haurrentako bi saio emanen ditu martxoaren 17an Erratzuko elkartearen. 16:30ean *Ipuinen kulunka* aurkeztuko du 3 urte arteko umeendako, eta 18:00etan *Letrekin dantzan*, 3-8 urte arteko haurrei zuzen-

dua. Aitzinetik izena eman beharko da, 667 807 810 telefonoan edo kultura@baztan.eus helbidean.

Musika entzunaldiak

Baztango Musika Eskolako ikasleek kontzertuak emanen dituzte Arizkunenean, martxoaren 25ean eta 26an. 16:00etan eta 18:00etan izanen dira emanaldiak.

Liburutegikoak

Hilabetero bezala, Baztango Liburutegi Publikoak hainbat ekitaldi izanen ditu: asteazken sortzaileak, mahai-jokoak ortziraletan, komiki eta poesia irakurleen taldea... informazio osoa Telegrameko [@baztan_golibupubli](https://t.me/baztan_golibupubli) kanalean.

MARTXOAREN 15EAN PASATUKO DA KORRIKA BAZTANDIK

ANZABAL
INMOBILIARIA
ZURICH ASEGURUAK

www.anzabal.com

Santiago, 15 ELIZONDO
+ 34 948 580 804

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
Ferreteria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta mailetak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 46 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

XX. Errugbiaren Gaupasa apirilaren 13an Larraintzarren

BRTk Errugbiarren Gaupasa antolatu du apirilaren 13an Larraintzarren. Edizioa berezia izanen da aurreko bestaren XX. urteurrena baita. Jardueraz betetako egitaraua izanen dute: Los Zopilotes Txirriaos, BRT zirkua, txaranga, Rugby Seven, zozketa, bokatak...



Iriarte frontoian egin zuten aurkezpena eguraldi kaskarragatik. ONDIKOL

Txirrindu-Triziklo proiektua aurkeztu du Bidelagunek

Adinekoei bizikleta elektriko egokitan ibiltzeko aukera ematea du helburu, eta laguntzeko boluntarioak behar dituzte

TTIPI-TTAPA

Bidelagun elkarteak Txirrindu-Triziklo proiektua aurkeztu du berriki. Europan eta baita gure inguruan ere, Donostian eta Corellan zehazki, garatutako proiektuetan oinarritzen da egitasmoa. Helburua argi dute: adinekoei bizikleta elektriko egokitan ibiltzeko aukera ematea, «beren bizi-kalitatea hobetzeko, gizartearen parte sentiarazteko naturaz gozatuz, eta gure ibarreko adineko ahulenen zaintza aldarrikatzeko».

Proiektu honekin omenaldia egin nahi izan diote Txuma Eugi elkarteko boluntarioari, 2020an hil zena. Bizikleta zalea zen Eugi, «eta adinekoeiko sentiberatasun bikaina zuen. Hasierako proiektuarekin bat egin zuen eta berari eskainia dago».

Boluntario bila

Bizikleta maite dutenei eta Baztango txirrindulariei dei egin diete boluntario izatera anima daitezzen, «beren denbora pixka bat eman ahal izateko adineko pertsoneri laguntzeko».



Adinekoei zuzendua dago egitasmoa.

Interesa dutenek bidelagun@hotmail.com helbidera jo dezakete, izen-abizenak eta telefonoa utzita, eta elkarte jarriko da haiekin harremanetan.

Boluntarioak prestakuntza izanen dute, hiru zutabetan oinarrituta: lehenbizikoa txirrindula-triziklo elektriko ezagutzeko saioa teorikoa izanen da, bigarrena ibilbideak ezagutzeko saio praktikoa, eta hirugarren saioa «eskarmentu haundiko boluntario batekin».

Honez gain, erantzukizun zibileko eta boluntarioaren aseguruua egingen zaie, eta irteeren egutegia izanen dute, erabiltzaileekin koordinatuta eta asteroko maiztasunarekin.

Lur Julen Axpe presenta
FURGONOLOGO
 Una vida en furgoneta
15€
20:00 H
 Ate irekiera 19:00h
SARRERAK:
MENDI OSTATUA
WWW.LURARETOA.COM

Julen Axpe presenta
FURGONOLOGO
 Una vida en furgoneta

2024-03-23
DATUALDE 7. ELIZONDO

Lur

LDS
 LÁGRIMAS DE SANGRE

LÁGRIMAS DE SANGRE

-ELIZONDO-

15€

SARRERAK:
MENDI OSTATUA, ELIZONDO
WWW.LURARETOA.COM

2024
MARTXOAK
9
00:00 H

Txirrindulariak denboraldia hasteko prest

Baztandarra Txirrindularitza Taldeak martxoaren 12an hasiko du denboraldia BTTko entrenamenduekin

TTIPI-TTAPA

Pedalei eragiteko prest daude Baztango neska-mutikoak, denboraldi berria hasiko baitute martxoan. Baztandarra Txirrindularitza Taldeko Iñaki Zelaieta Erasunekin solastatu da TTIPI-TTAPA, aurtengo aurreikuspenei buruz.

Hilaren 12an hasiko dituzte entrenamenduak eta ekainera arte arituko dira. Udan atsedean hartuko dute, eta irailean eta urrian segituko dute. Hala ere, «batzuk pista-ko entrenamenduak hasiak dituzte Tafallan, eta neguan ere ziklo-krosean arituak dira». Hortaz, «orain BTTra bideratuko ditugu entrenamenduak, eta apiriletik aitzinera errepideko bizikletekin hasiko gara».

Denboraldi jendetsua izanen du aurturteneko taldeak: «pandemia ondotik jende aunitzek

eman zuen izena, eta geroztik kopurua jautsi bada ere, finkatzen hasia da». Aurturten 40 txirrindulari inguruk hasiko dute denboraldia; «gehienak ttikienak dira (2016koak), hamabi guztira, hasiberriak hamar, kimuak zortzi, haurrak sei eta kadeteak, 15-16 urtekoak, lau. Neskei dagokionez, 17 ditugu aurturten».

Hala ere, «gurekin aunitzek entrenatzen duten arren, lehiatzen gutti joaten dira, eta gehiago animatu nahi ditugu». Horrez gain, «kadete mailakoak bertze taldeetara joaten dira lehiatzen, ez baitugu azpiegiturarik».

Probaz proba

Martxoaren 23an izanen dute lehen BTT proba Arizkunen, eta ttikienek, hasiberriek, kimuek eta hurrek parte hartuko dute. Maiatzaren 11n, berriz, errepideko eskolartekoa eginen dute Elizondon, «eta ekainaren 8an aspaldian egin ez genuen proba berreskuratuko dugu Lekarozen: kadete mailako errepideko lasterketak».

«MARTXOAREN 23AN EGINEN DUGU LEHEN BTT PROBA ARIZKUNEN»

Erdizko proiektuaren kontrako alegazioen sinadura bilketa martxan da

TTIPI-TTAPA

Erdiz Bizirik plataforma proiektuaren kontrako alegazioen sinadura biltzen hasi da. Herriz herri ibili dira, eta mahaiak paratu dituzte Elizondon. Asteburu honetan ere sinatzeko aukera izanen da Elizondoko plazan: larun-

batean 18:00etatik 21:00etara eta igandean 11:30etik 14:30era. Digitalki sinatzeko aukera ere bada.

Horrez gain, elkarretaratzeak egin dituzte astero, eta Elizondon eta Arizkunen izan ondotik, aste honetan Anizen izanen da: martxoaren 7an 19:00etan.



40 bat neska-mutilek hasiko dute denboraldia. FOTO MENA, SAIZ PHOTOS ETA UTZITAKOAK

Horrez gain, «Nafarroako Itzulia, Sub 23 eta elite mailakoa, Urdazubitik sartu eta Baztandik pasatuko da maiatzaren 25ean, eta talde bezalagu ere laguntzen ari gara».

Azkenik, «babesleei eskerrak eman nahi dizkiegu: Mariezkurrena, Josenea eta Malkorra. Baita Baztango Udalarri eta herriei ere, beti laguntzeko prest daudelako».



Elizondoko elkarretaratze irudia.

Gaztetxoaren errugbi jardunaldia larunbatean

Nafarroako Kirol Jokoen 4. jardunaldia eginen dute martxoaren 9an Lekarozen. Nafarroako bostz errugbi taldeek parte hartuko dute, tartean BRTk, eta sub 8, sub 10, sub 12 eta sub 14 kategoriako jokalariek arituko dira 10:30etik aitzinera.

Kantu herrikoien eta baratzeko mamuen tailerrak Baztanen

Izena emateko epea zabalik da bi ikastaroendako martxoaren 15era arte

TTIPI-TTAPA

Baztango Kultura Zerbitzuak bi tailer antolatu ditu hurrengo hilabeteetarako.

Alde batetik, Kalakan taldeko Thierry Biscaryk kanta herrikoien ikastaroa emanen du berriz ere, hasiberriei zuzendua. Euskal kanta ikasteaz eta interpretatzeaz gain, horien testuingurua eta ezaugarriak aztertuko dituzte. Apirilaren 10ean, 17an eta 24an, maiatzaren 8an, 15ean, 22an eta 29an eta ekainaren 5ean, 12an eta 19an izanen dira klaseak, 18:30etik 20:30era, Arizkune-

nean. Guttienez 10 eta gehienez 15 laguneko taldea izanen da eta matrikulan 60 euro ordaindu beharko dira.

Ekainaren 8an, berriz, Bir-bira kolektiboko Amaia Zinkunegik baratzeko mamuak egiteko tailerra emanen du Oronozko plazan (frontoian denbora txarra eginez gero). 10:00etatik 13:30era izanen da ikastaroa, doan.

Martxoaren 15era arte eman daiteke izena bi jardueretan; Arizkunenean, 667 807 810 telefonoan edo kultura@baztan.eus helbidean.



Baztango Zaporeak elkarteko produktuen loteak. BAZTANGO UDALA

San Anton eguneko zozketan banatu ez ziren sariak zahar etxearendako

TTIPI-TTAPA

Francisco Joaquin Iriarte zahar egoitzaren alde San Anton egunean egin ohi den zozketan, Baztango Zaporeak elkarteko kideek ekoiztako loteak zozketatu dituzte aurten. Baina epea agortuta, lehenbiziko eta hirugarren sarien jabeak ez dira agertu. Ondorioz, 500

euroko eta 150 euroko lote bana ez dira banatu.

Udalak azaldu duenez, «zozketaren helburua Francisco Joaquin Iriarte zahar etxea laguntzea da» beraz, produktu loteak zahar egoitzari ematea erabaki du. Otsailaren 19an helarazi zizkioten loteak zahar etxeari.

AURREMATRIKULA

Martxoaren 18tik 22ra

Elizondo Ikastetxe Publikoa

Bilera Informatiboa

Martxoak 14
16:45 euskaraz

Martxoak 13
16:45 erdaraz



ELIZONDO IKASTETXE PUBLIKOA



Lezeko ateko aparkalekua kendu eta apaintzeko errotarriak ekarri dituzte. Hiru mahain emanen dira. **MARIFA ETA KORO**

Leze inguruetan berrikuntza lanetan ari dira asteotan

Komunetako fosa septikoa aldatu dute eta ateko aparkalekua kendu eta hiruhain emanen dira

MARIFA ETA KORO

Leze inguruan berrikuntzetan ari dira. Jadanik finitu da komunetako fosa septikoa aldatzea. Orain jarri denak arras sistema eraginkorra omen du, eta ixuriak ia-ia garbiak atezaten omen ditu.

Bertzalde, lezeko atean dagoen aparkalekua kenduko da (autoak debekatuak direlako, eta beraz, ez da horren beharrik), eta toki horretan hiruhain emanen dira, errostatik erretiratu harriekin. Harriak ia ekarri dira, eta Aste Saindurako emanak izanen dira mahainak ere.

Hondakina, bakoitza bere ontzian

Herriko Etxetik bi ohar hauek jakinarazten dituzte: hondakin bakoitzak bere ontzian sartzea arras inportantea dela, eta batez ere, eskonbroak, zimenta, eta lurra kontenedorerat botatzea debekatuta dela. Hondakin bereziak direnak Senpereko hondarkintegirat eraman behar dira.

Baserrietako postontziak herriko etxean

Bertzalde, baserrietako postontziak herriko etxean jarriko dira, eta horretan makurrik

ez izateko, bakoitzak berea eskatzea da egokiena. Telefonoz egiten ahal da eta baita e-mailez ere (*idazkaritza@zugarramurdi.es*).

Xerman Arburua hil da

Otsailaren 22an hil zen Xerman Arburua Apeztegia, 51 urte bertzerik ez zituela. Herriko lehen intsumitua izan zen eta Baztan-Bidasoaldeko talde antimilitaristaren sustatzaileretako bat. Bertze hainbat xaltxatan ibilia, berrikiago Korrikaren lekukoa eramaten edo pastoraletan artzainarena egiten ikusi genuen. Doluminak.



Xerman, erdian, intsumitu garaian.



Sahatsa kapetatua.

Elizargietetako sahatsa kapetatu eta gero zer egin baloratzen ari dira

MARIFA ETA KORO

Joan den udaberrian malobra egin zen Elizargietetan, baina sahatsa kapetatuta gelditu zen. Orain tresneria egokiarekin egin ahal izan dute lana eta adar bolumen handia kendu diote. Hala ere, badirudi erroak luzeegiak dituela eta bere inguruko tuberiak arriskuan daudela. Zuhaitz honekin zer egin beharko den baloratzen ari da herriko etxea. Erabakia- ren berri emanen dute.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

KATEA BIKE

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kantillonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

ORBEA PINARELLO [moustache] MONTY
BERGAMONT BH LAPIERRE MERIDA



Azken edizioan herritik pasa zen Korrika, baina aurten ez. ARTXIBOKOA

Korrikako laguntzaile bila Dantxarinean

Martxoaren 15ean, 16:33ean hartuko dute lekukoa Artesiagan Gauiñarak, Ugaranak, Urdazubiko gazteriak eta eskolek

ARANTXA ETA IRAIA

Xaretako Korrika batzordea lanean dabil azken asteotan. Lan horietako bat Korrika laguntzaileak bilatzea izan da. Bertze edizioetan bezala, Dantxarineko bentetan eta herriko ostatuetan ibili ziren joan den otsailaren 21ean korrika laguntzaile izateko eskaera zabalduz. Azken edizioan herritik pasa zen eta herritar anitzek euskararen aldeko lekukoa eraman eta korrika egiteko aukera izan zuten. Aurten berriz, urrunxeago pasako da Korrika: martxoaren 15ean Gauiñara elkaratek,



Korrika ttikia eskolan.

Ugarana emakume elkaratek, Urdazubiko gazteriak eta Urdazubi-Zugarramurdiko eskolak elkarrekin erositako kilometroa 16:33ean pasako da Artesiagatik.

Urteko lehen kinto besta otsailaren 24an egin zuten


Otsailaren 24an, larunbatarekin, Zugarramurdiko Graxiana ostatuan 1954-1958 bitartean sortutako Urdazubiko eta Zugarramurdiko gizon-emakumeen kinto besta izan zen. 20 bat lagun elkartu ziren otordu goxo baten gozatzeko. Giro ederrean bazkaldu zuten.



20 bat lagun bildu ziren.

Martxoaren 8rako elkarretaratzea deitu du Ugaranak

Martxoaren 8ko emakumearen nazioarteko egunaren kari, elkarretaratzea egingen dute, Ugarana emakume elkaratek deiturik. Ortziralean 17:30ean udaletxe aitzinean elkartu eta kalejira bat egingen dute herrian barna, berriz ere udaletxean bururatuz ibilbidea.



'Eukalyptus' antzezlan.

'Eukalyptus' antzezlan martxoaren 9an Sarako Lur Berrin

TTIPI-TTAPA SARA

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak ekimen kulturalaren bigarren edizioaren kari, Jon Ander Urrestiren Eukalyptus antzezlan taularatuko dute martxoaren 9an, larunbatean, 20:00etan Sarako Lur Berri aretoan. Sartzea doan izanen da. *Eukalyptus* proiektuari esker, Jon Ander Urresti bermeotar sortzaileak 2022ko Durangoko Azokaren Sormen Beka irabazi zuen. Matxalen de Pedrok eta Jon Ander Urrestik zuzendu dute lana, beraiek, Nerea Ibarzabal bertsolari eta idazleak eta Beñat Urrutiak zortzi eskutara idatzitako testu batean oinarrituta, eta Urresti eta Urrutia bera arduratzen dira testuok agertoki gainean gorpuzteaz.

Laburpena

Lan harreman toxiko baten istorioa da. Lurjabea eta langilea. Inbaditzailea eta exotikoa. Handinahakeria eta zuhurtzia. Hiria eta herria. Industria eta paisaia. Botera eta beharra. Pertsona eta arbola. Paternalismoz jositako harreman absurdo bat. Elkar ulertzen saiatzen dira, elkarrekin lan egiten dute, elkarrekin sortzen dute historia baina elkarri mina ematen diote. Noiz arte?

GEHAGO EMATEN DITUZU

BARDIN BEHOIA LUZAIDE DANTXARINEA
 31780 Bera 20305 Iruin 31660 Luzaide 31712 Urdax

Egunero irekia,
 astelehenetik
 igandera arte
 *Abenduaren 25^a eta
 urtarrilaren 7^a izan egin

Jantzi-dendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak
 Harategiak · Jabetxeak · Ostatuak · Sugardotegia

www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)



Laborde Lavignette eta Agesta txapeldun hirugarren mailan. UTZITAKOA

Union Basque Batasuneko trinketean txapeldun

Hirugarren mailan txapeldun izan ziren Laborde eta Agesta eta gazte mailan Agirre eta Semerena

GANEX

Union Basque Batasunak antolatutako trinketeko eskuz binakako txapelketako finalak jokatu zituzten otsailaren 10ean Baigorriko Herriarena trinketean eta horietarik bitan txapeldun izan ziren Sarako Izarrako pilotariak. Hirugarren mailan, Sarako Izarrako Mikael Laborde Lavignette eta Joan Agesta bikoteak 40-21 irabazi zion finala Amikuzeko Ewen Moal Darrigade eta Xan Errandonea bikoteari.

Gazte mailan, berriz, Sarako Izarrako Arkaitz Agirrek eta Eneko Semerenak 40-20 ira-



Agirre eta Semerena gazte mailan.

bazi zieten finala Kanboko Xalbat Martinon eta Julen Escutaryri.

Bi bikoteek txapelketa ederra jokatu dute eta garaile bueltatu dira herrira.

Kukusu eta jostailu erakuketa martxoaren 17an

Eskuen Lana elkarteko Brigitte Sasia lehendakariak jakinarazi duenez, kukusu eta jostailuen erakusketa bat antolatu dute martxoaren 17an, igandez, egun guzian Lur Berri gelan. Ohi bezala, hainbat tresna ikusteko eta erosteko aukera izanen da.

Martxoaren 8ko ospakizuna prest Bostanka taldeak

Sortu berria den Bostanka emakume taldeak martxoaren 8rako ekitaldiak antolatu ditu: 19:00etan elkarretaratzea egingen dute plazan, idatzia irakurri eta kantatuko dute. Segidan kantu poteoa egingen dute. Aitzinera egiteko gogoz, atek zabalik ditu taldeak.



Erretretatuak direnak kontent, tripotx bazkarian. GANEX

Erretretan daudenek tripotx bazkaria egin dute lezeetako jatetxean

Erretretatuek izan dute tripotx bazkaria otsailaren 17an lezeetako jatetxe gelan. Ehun bat lagun bat baziren etorriak harategiko Tristan eta Mariane Sagek prestatutako bazkari horretarat. Jaki guztiak onak gainera eta kontseiluko hamar hautetsik bero-bero zerbitzatuak. Bazkaria ongi pasatu da,

euskaldun kanta artean. Sophie Garbiso, gai sozialetako axuanak ongi etorria eta eskerrak eman dizkie denei; Ganex Etxeberrigarai, Beti Gazte elkarteko lehendakariak, bere taldearen partez, eskerrak eman dizkie sukaldariei eta hautetsiei eta orai bezala segitzea galdetu du.



GANEX

50 talde Sarako Izarrako mus txapelketan

Errugbi taldeak antolaturik txapelketa iragan da otsailaren 24an Lur Berri gelan. 50 talde baziren eta irabazlea Eyharbide aita semeak izan dira, Maeva eta Lorearen kontrako finalean. Final ttikiko irabazleak Hegoa Oberson eta Maxime Urrutia izan ziren, Antton Etxeberri eta Oihan Iribarreni irabazita.

Euskal Herriko Orkestrak kontzertua emanen du Larrekon

Martxoaren 8an, ortziralean, 20:00etan hasiko den saioan, Mellits, Chostakovitch eta Ravelen lanak aurkeztuko dituzte

JL BESSONART

Martxoaren 8an, ortziralean 20:00etan, *La Boite à Rêves* (Ametsen kutxa) izenburua-rekin, ikusgarri gaitza eskainiko dute Larreko kultur-gunean. Euskal Herriko orkestrak aurkeztuko du *Fruity Pebbles*, Marc Mellitsen obra, ondotik *Trio n1*, Dimitri Chostakovitch-en sorkuntza, eta hondarrera *Trio*, Maurice Ravel ziburutar musikari ospetsuaren obra. Balio ote du oroitaraztea azkeneko hau Bolero elebrearen sortzailea zela. Denen buru, oren batez mu-

sika ederrez gozatzeko aukera ezin ederragoa.

Bi aldiz pasatuko da aurten Korrika

Ez zen halakorik gertatu noski, baina aurten bi aldiz pasako da Korrika herritik. Euskararen aldeko lasterketaren lehen pasatzea martxoaren 14an, ortzegunean, 20:30 aldera, izanen da, Intermarché biribilgunean Karrika nagusiaren zeharkatzea, Kattalin Elizalde kolegioa 21:00etan. Bigarren pasaldia, martxoaren 24an, goizez izanen da.

Umerez betetako emanaldia izanen dute martxoaren 14an Inharrian

JL BESSONART

Bons mots et esprit de répartition (Hitz onak eta banaketa-espiritua) goiburupean, umorez eta bizipozez bezainbat kulturaz eta historiaz betetako ordu eta erdiko emanaldia izanen da martxoaren 14an, ortzegunean, 19:00etan hasi-

ta Inharrian. Senpereko Kultura eta Ondareak antolatutako emanaldira sartzea urri-rik izanen da. Generoko maisu handiak (Guitry, Arletty, Churchill, Voltaire...), baina baita hitz famatuekin ezezagunak direnak ere (Le Gall, Rateau...) ezagutzeko aukera.

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria mediatekan

6-9 urteko haur euskaldunei zuzendutako animazioa izanen dute martxoaren 14an, ortzegunean, 17:30ean Mediatekan, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariaren eskutik. Ipuinak eta hitz jokoak izanen dira Euskal Kultur Erakundeak antolatutako emanaldian.



Ixabel Agirresarobe.



80 lagun bildu ziren mahain inguruan. JL BESSONART

SPUC errugbi elkarteko bilkuraren ondotik lidergoa sendotu du taldeak

JL BESSONART

Aitzineko igandean (otsailaren 14an), egonaldi gozoa izanik halako besta giro senti zen kirol-zelaia inguruetan. Alabaina, SPUC taldearen errugbi lehiaketaren aitzinetik, klubak gomitatuak zituen partaide guziak. 80 bat bildu ziren mahain inguruan. Clément Ozcoidi lehendakariaren hitzaldian, ongi azpimarratu zuen elkarteak beharrezkoak dituela betiko kirolari eta hezitzaileak, baita diru laguntza emaleak ere.

Beraz, esker ematearen eta bazkari bikainaren ondotik,



Errugbi taldeak lidergoa sendotu du.

errugbiko jokolariek zafraldi ederra pasatu dute Nord Bearneko taldeari, 71-18 irabazi baitzuten senpartarrek. Sailkapenean azkartu dute beren lehen postua.



JL BESSONART

Iziaga eta Jauregi txapeldun trinketean

Gantxiki trinketeak otsailaren 14an errezebitu zituen esku-
huskako Federazioko final handiak gazteen mailetan. Oihan Iziagak eta Jokin Jauregi senpartarrek, kimuak mailan, 40-31 irabazi zieten Noizbaiteko Irola-Amestoy eta Bonebeltcheri. Esperantza handia dago bikote honen baitan.

Munduko ziklo-kros txapelketa Beran jokatu zela 50 urte

1974ko otsailaren 24an antolatu zuten Gure Txokoak eta Berako udalak eta Van Damme belgikarra izan zen txapeldun


TTIPI-TTAPA BERA

1974ko munduko ziklo-kros txapelketa Beran jokatu zuten. Urte hartako otsailaren 24an antolatu zuten Gure Txokoa elkarteak eta Berako udalak, beraz, joan den hilabete honddarrean, 50 urte, mende erdia, bete ziren egin zenetik. Txapelketa hartako irudiak, agiriak, sailkapenak eta bertze hainbat informazio eskura eman dizkigute Berako Jose Antonio *Totono* eta Rosa Errandonea anaia-arrebek.

Berako herriarentzat nahiz Gure Txokoa elkartearentzat erronka handia izan zen mundialaren antolaketa, baina bikain atera zen guztia, «perfektu», garaiko egunkariak publikatu eta UCI elkarteak berak onartu zuenez.

Van Damme belgikarra munduko txapeldun

23,800 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten txirrindulariek eta, gaur egun gertatzen den bezalatsu, Belgikako txirrindulariak gailendu ziren. Lasterketa nagusian Albert Van Damme belgikarrak ira-



Munduko txapelketako kartela.

bazi zuen, Roger Van de Vlaeminck herrikidearen aitzinetik. Peter Frischnechtsuitzarrak osatu zuen podiuma. Juan Jose Gorostidi donostiarra bederatzigarren izan zen. Nazioarteko lehiaketa ere Belgikak irabazi zuen. Afizionatu mailako lasterketa ere belgikar batek irabazi zuen, Robert Vermeirek, garai hartako Alemania Federaleko Klaus Peter Thaleren eta Ekkehardt Teichreber-en aitzinetik.



Herriko neska-mutikoak, herrialdeetako karteekin.



Altzateko plazatik abiatu ziren txirrindulariak.



Zelaia etxearen barreetik zuten ibilbidea.



Txapeldunorde izan zen Roger Van de Vlaeminck eta Juan Jose Gorostidi.



Bi txirrindulari Illeketako zubira ailegatzten.



Korrikalari bat Frain igotzen iazko Lesakako mendi lasterketan. BETI GAZTE

Mendi lasterketak asteburu honetan Lesakan eta Senperen

Larunbatean 80, 42 eta 10 kmko ibilbideak dituzte Senperen, igandean Senpere Trail eta Lesakako V. mendi kasterketa

TTIPI-TTAPA SENPERE/LESAKA

Gure inguruan hastear dago mendi lasterketa denboraldia eta asteburu honetan bi hitzordu izanen dira, Senperen eta Lesakan.

Senperen, SPUC Lasterka taldeak mendiko lasterketen 12. edizioa antolatu du, martxoaren 9an eta 10ean. Larun-

batean, 05:00etan abiatuta Tontorrez Tontor, 80 kilometroko lasterketa egingen dute; 08:00etan Gotor-Lekuen Itzulia (42 kilometro); 10:00etan Ibar Run trail (10 km). Igandean, Senpereko Trail, 21,5 kilometroko proba ezagunena egingen dute, 09:00etan abiatuta, baita haurren lehiaketa

(09:15) eta oinezkoen ateraldia ere (07:00-08:30). Aurtengo, oinezkoen ibilaldiak berezitasun bat badu, 5 euroko parte hartzea osorik emanen zaio PACS1 sindrome elkarteari. Eritasun genetiko honek hunkitzen du Senpereko neska bat, honen gurasoak ongi inplikatuak dira herriko elkarreetan.

Lesakako V. mendi lasterketa igandean

Beti Gazte elkarte antolatutako Lesakako Mendi Lasterketaren laugarren edizioa martxoaren 10ean egingen dute. Igandean 10:00etan abiatuko da 14 kilometro luze eta 900 metroko desnibela duen lasterketa nagusia plazatik eta Frain (455 metro) eta Unanue (650 metro) igo beharko dituzte berriz ere plazan helmugaratu baino lehen. Izena emateko epea martxoaren 8an bukatuko da, 20:00etan, www.kronoak.com webgunean eta soilik online egiteko aukera izanen da. Izena eman dutenek dortsalak lasterketa bezperan hartzeko modua izanen dute, baita egunean berean ere. Izena ematearen prezioa 22 eurokoa izanen da, 19 eurokoa Beti Gazteko bazkideentzat.

Iruñeko Alde Zaharreko X. erremonte txapelketa abian

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 16an hasiz Iruñeko Alde Zaharreko X. Erremonte Txapelketa. Lau bikote ari dira eta tartean dauden Uterga eta Otxandorena doneztebarrak eta Saldias oiztarrak. Lehenbiziko jardunaldian Utergak jokatu zuen, eta Otxandorenak eta Saldiasek otsailaren 23an izan zuten estreinako partida, elkarrekin bikotea osatuz. Lehen bi partidak galdu egin zituzten. Txapelketa bildutako dirua Adano elkartera bideratuko dute. Ligaxkan martxoaren 8an, martxoaren 14an eta martxoaren 22an jokatu behar dute oraindik. Finalerdia martxoaren 29an jokatu dute, ligaxkan bigarren eta hirugarren sailkatu direnen artean, eta final handia apirilaren 5ean izanen da. Ligaxkan lehenbiziko postuan sailkatutako bikotea eta finalerdia irabazi duen bikotea ariko dira. Partida guztiak Iruñeko Labriten jokatu dituzte, 19:00etan.



UTZITAKOA

Umore Ona Nafarroako paleta txapeldun

Nafarroako klub arteko paleta goma txapelketako finalak jokatu zituzten otsailaren 24an Labriten. Hirugarren mailan, Umore Onako Narbartek eta Bernaldok 25-20 irabazi zieten Txarutako Elizegi eta Maritorenari. Laugarren mailan ere txapeldunorde izan ziren Txarutako Casillas eta Mendiburu.



UTZITAKOA

Ane Elzaurdia garaile Oibarko Trailean

Oibarko VII. Trail lasterketa egin zuten otsailaren 25ean. Lohi eta putzu artean egindako 10,5 kilometroko ibilbide laburrean Soronea-Ammako Ane Elzaurdia beratarrak irabazi zuen (58.03). Ilargi Perez bigarren izan zen (58.41) eta Denak Bat taldeko Elisa Gonzalez hirugarren (1.02.43).

AGENDA

MARTXOAK 7 - 21

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



AEK

ARANO Korrika festa

Bigarren eskuko azoka, kantu bazkaria eta argazki subasta.
Martxoaren 9an, 12:00etatik aurrera.

MUSIKA

SENPERE

Euskal Herriko Orkestra

Larrekon, martxoaren 8an,
20:00etan.

ELIZONDO

Lágrimas de Sangre

Lur Aretoan, martxoaren 9an,
00:00etan.

Bailableak

Plazan, martxoaren 10ean,
12:30ean.

LESAKA

Musika bandaren kalejira

Martxoaren 15ean, 20:00etan.

Tantirudantza jaialdia

Martxoaren 16an.

LEITZA

Jeiki abesbatza, Aizaga abesbatza eta Sinfonia Navarra orkestra

Elizan, martxoaren 17an,
19:00etan.

AZOKAK

BERA

Bertako ekoizleen merkatua

Berlandetan, martxoaren 9an,
10:30etik 13:30era.

ELIZONDO

Artisauak eta ekoizleak

Plazan, martxoaren 9an eta
16an, 10:00etatik 14:00etara.

PROIEKZIOAK

ARANTZA

'Bizkarsoro' filma

Baskulan, martxoaren 15ean,
19:00etan.

LEITZA

'Negu hurbilak eta 'Pobres criaturas'

Herri Aretoan, martxoaren 16an
eta 17an, 17:00etan eta 19:30ean.

LESAKA

'Bizkarsoro' filma

Harriondoan, martxoaren 17an,
18:00etan.

IKUSKIZUNAK

SARA

'Eukalyptus' antzezlan

Lur Berri gelan, martxoaren 9an,
20:00etan.

ARANTZA

Bakarrizketa

Antton Telleria, Asier K eta Iker
Plazaolarekin.
Aterpean, martxoaren 9an,
13:00etan.

'Erdaldun berrien kluba'

Eskolan, martxoaren 9an,
19:00etan.

GOIZUETA

'Enperadorearen kondaira'

Herriko Etxeko ganbaran,
martxoaren 10ean, 17:00etan.

IRURITA

'Tu-tum, Platz!'

Jon Plazaolarekin.
Gizarte Bilgunean, martxoaren
10ean, 18:00etan.

LEITZA

'Julio Cesar' antzezlan

Companhia do Chapitre
kolektiboaren eskutik.
Herri Aretoan, martxoaren
10ean, 19:00etan.

Literatura errezitaldia

Herri Aretoan, martxoaren 20an,
20:00etan.

SENPERE

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria

Mediatekan, martxoaren 14an,
17:30ean.

ERRATZU

Haizea Loira ipuin kontalaria

Elkartean, martxoaren 17an,
16:30ean eta 18:00etan.

BERA

Gurasoentzako solasaldia

Berlandetan, martxoaren 18an,
17:30etik 19:00etara.

DONEZTEBE

'Los finales no escritos'

Liburutegian, martxoaren 21ean.

BERTZELAKOAK

ITUREN

Haurrentzako tailerrak eta Trikidantz

Martxoaren 9an.

ETXALAR

Bortzirietako Emakumeen XIV. Mendi Itzulua

Martxoaren 10ean.

ARANTZA

KorrikArantza

Martxoaren 10ean.

SARA

Kukusu eta jostailu erakusketa

Lur Berri gelan, martxoaren
17an.

«Kalkuluak egitea eta formulak ikastea baino gehiago da matematika»

ANDONI ZOZAIA URSUEGI URROZKO MATEMATIKARIA



Momentuan Eslovenian bizi den matematikaria da Andoni Zozaia Ursuegi urroztarra. Denbora librean «lasai» pasatzea du gustuko: «liburu edo film on bat, mendira bueltaxka, bertso batzuk... erantzun tipiko guztiak!».

Matematikaren bidetik

Betik izan du gustuko arlo zientifikoa, eta aitortu duenez, «karrera bat baino gehiago eduki nuen buruan aukeratu behar zenean, ez nekielako sobera ongi matematika ikasteak zein irtenbide zituen». Baina hori aukeratu zuen, «gehien gozatzen nuen arloa baizen, eta irakasle onak edukitzeko zortea izan nuelako».

Azaldu duenez, «matematika sobera fama txarra du, akaso ttikitan ez delako behar bezala erakusten. Ematen du dena kalkuluak egitea dela».

Aitzitik, «karreraren formulak buruz ikasi baino gehiago, modu ordenatuan pentsatzeko eta kontzeptu abstraktuak imajinatzen gaitasuna behar da». Eta «berezko pixka bat» behar bada ere, «hori praktikatzen da, eta gauza guztietan bezala, esfortzu kontua da. Matematikak gustatzen zaizkion edozeini gomendatuko nioke karrera».

Ikasketez gain, ikerketa teorikoan ere aritu da Andoni: «ematen du matematika guztia aspaldi asmatu zela, eta jada ezin dela deus berririk sortu, baina ez da hala».

«MATEMATIKAK SOBERA FAMA TXARRA HARTU DU»

Jende aunitz dago, ni tartean, teoria berriak sortzen ari dena. Ikerketa praktikoan aritzen direnek, berriz, lortzen diren emaitzak erabiltzen dituzte optimizazio problemetarako, proiektzio estatistikoak egiteko... lehenbizikook gure lana eginen ez bagenu, bigarrenek ez lukete zer aplikatu izanen».

Beraz, matematikari teoriko baten lana zein den argi du: «pentsatzea. Nire kasuan aljebra aritzen naiz lanean, matematika teoriko puruan. Lana, batik bat, erreferentziak irakurtzea, teorema berriak topatzea, eta horien frogapen formalak idaztea eta argitaratzea da. Gero, emaitzak kongresuetan zabaltzen dira».

Esloveniara lanera

Aurtengo ikasturtean Esloveniara joan da Andoni, Ljubljana Unibertsitatean klaseak ematera. «Komunitate matematikoan hartu-eman handia dago, eta kongresu aunitzetara bidaiatzen da. Gai berdintsuan lanean ari garen guztiok elkar ezagutzen dugu, eta ikerlari horietako bat Eslovenian dago finkatuta. Harekin lan egiteko aukera suertatu zitzaidan, eta ona iruditu zitzaidan profesionalki garatzeko eta esperientzia berriak bizitzeko».

Azaldu duenez, «lehenago ere Europako ekialdean egona nintzen, eta dena nahiko antzekoa da. Ez dago halako alderik Euskal Herriko hiriekin». Hala ere, «esperientzia arront positiboa izaten ari da. Atzerrian bizitzean jendea ezagutu eta bizimodu berriak ikusi eta ikasten dira. Pentsamen-

duak zabaltzen dira, eta norbere kabuz moldatzen ikasteko ere balio du. Hori beti da aberasgarria».

Klaseak ematen esperientzia zuen lehenagotik Leioan, «eta han edo hemen, antzekoa da. Hasieran klase oso baten aitzinean ingelesez aritu beharrak ematen zidan beldur gehien, are gehiago beraien ama hizkuntza eslovenierara denean. Baina ez da arazorik egon».

Hezkuntza sistemak iduritsuak badira ere, «ezberdintasun nagusia irakasleen eta ikasleen arteko harremana da. Izan ere, klaseetan jende guttiago dago, eta beraz, parte hartze haundiagoa. Ikasleak aunitzez gehiago ateratzen dira arbelera, irakasgai guztietan ahozko azterketak egiten dituzte, eta aunitzetan gaitetia eta erritmoa ikasleen interesetara moldatzeko aukera dago».

Etzetik kanpo

Urroz eta Ljubljana artean alde handia ikusten du; «Ljubljana hiriburua da, hiri ttikia baina hiria azkenean, eta aisialdirako aukera gehiago daude gure eskualdearekin konparatuta. Bertetik, herrialdea ttikia da eta ordu pare batez Alpeetara edo kostara adriatikora joan daiteke».

Hala ere, Urroz gogoan du; «lasaitasuna eta natura Eslovenian ere topa daitezke, baina etxea etxea da; familia eta lagunak han daude, eta batzuetan haien falta nabaritzen da».

Bere asmoak dagokionez, «momentuz atzerriko egonaldia aprobetxatu nahi dut: hizkuntzak ikasi eta praktikatzen, profesionalki garatzeko... baina hau etapa bat da, eta etorkizunean Euskal Herrira bueltatzea gustatuko litzaidake, hango unibertsitatearen batean ikertzen segitzeko».

«ESLOVENIAKO EGONALDIA APROBETXATU NAHI DUT»

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

Eraikuntza enpresa batek urte baterako pisua hartu nahi du Beran, Lesakan, Igantzin edo Etxalarren. 700 euro ordaintzeko prest. Bankuko bermearekin. ☎693 69 49 76 (Jose Mari).

SALGAI



OIZ. Etxe galanta salgai, bi familia-koa, 300m² eta 342m²ko lorategia. 325.000 euro. ☎687 63 27 37.



LEGASA. Pisu polita salgai, berritua 94m², balkoiarekin. 120.000 euro. ☎687 63 27 37.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Eroskiko arrandegia errentan emateko. ☎948 63 72 64.

LANA

ESKARIAK

Bezeroarentzako arreta eskaintzen duten banaketa enpresetako agente lanean esperientzia duena lan bila. ☎624 50 27 31 / 624 16 97 18.

Pertsona arduratsua lan bila. Pinturan, serigrafian, mural dekoratiboak egiten edo garbiketarako egiten ariko litzateke. Berehala hasteko prest. Posible bada Beran. ☎624 74 31 57.

ESKAINTZAK

DANTXARINEA. Mas por menos denda langile bila. 8 orduko lanaldia (astelehenetik-igandera). Frantsesa jakitea kontuan hartuko da. Ahalik eta agudoen lanean hasteko pertsona behar dute. ☎687 73 92 40.

IGANTZI. Irrisarri landen martxotik azarora aritzeko zerbitzari bila. Lanaldi osoan eta astegunez. Taldeei zerbitzua emateko. Zerbitzari lanetan esperientzia izatea eta gida baime-na izatea kontuan hartuko dituzte. Euskaraz jakitea derrigorrezkoa. CVa

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

bidaltzeko: rrhh@irrisarriand.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

DONAMARIA. Herriko ostatuan sukaldari laguntzailea behar dute. ☎948 45 08 90.

IGANTZI. Irrisarri Landen martxotik abendura mantentze lanetan aritzeko laguntzaile bila. Lanaldi osoan. Garbiketako, zamalanetako, espazioak egokitzeko eta oinarriko konponketak egiteko. Gidabaimena derrigorrezkoa. CVa bidaltzeko: rrhh@irrisarriand.com. ☎948 92 89 22.

IGANTZI. Irrisarri Landen martxotik azarora ontzi garbitzaile aritzeko langile bila. 32 orduko lanaldia. Gida baimena izatea eta % 33ko desgaitasun ziurtagiria izatea kontuan hartuko da. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13. rrhh@irrisarriand.com.

BERAn dagoen enpresa batean fre-sadora eta CNC mekanizatu zentroan aditua den langilea behar dute. Interesatuak CV bidali: administracion@ubela.net. Esperientzia kontutan hartuko dute.

ZUGARRAMURDI. Sanoki Ostatuan bi langile behar dituzte: Sukaldari bat eta edari zerbitzari bat. Jardunaldi osoa, martxoaren 20tik aurrera azarora arte. Deitu. ☎633 35 94 13. sanokiostatua@gmail.com.

ZERBITZUAK

DENETARIK

Ezkontza eta bertzelako ekitaldi-erako dantzaria eta txistularia. Deitu edo idatzi konpromisorik gabe. ☎659 82 66 09.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,33 €
- 1.koa 5,21 €
- 2.koa 5,09 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,44 €
- 1.koa 5,30 €
- 2.koa 5,19 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 150,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,00/8,10 €
- 8-10 kilokoak: 8,10/8,80 €

ZERRI-AZIENDAK

- Zerrikumea (19 kilo): 93 €
- Zerri gizona 1,035 €
- Zerramak 0,360€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua otsailaren 16tik 23ra bitarteko prezioak)

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Ama Border Collie duten zakurkume emeak opari. Azaroan jaiok. ☎698 15 46 44.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

BERA. Volkswagen auto baten giltzak aurkitu dituzte Santa Barbara mendian, Meakako lepotik hurbil. ☎665 75 27 24.

SALEROSKETAK

Belarra fardo txikitari salgai. ☎618 96 27 74.



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Kotxerako bi aukeri eta lotzeko oinarria salgai, BeSafe etxekoak. 0 eta 1 taldekoak (haurrak hiru urte izan arte erabiltzeko). Oso ongi zainduak. Guztia 300 eurotan. ☎679 31 62 07.

SANTESTEBAN TAILERRAK



**RENAULT CLIO
1.5 DCI 90CV
2018 urtekoa
41.600 kilometro**

AUKERA PAREGABEA!


www.talleressantesteban.com

DONOSTIA - T. 948 450 282
info@talleressantesteban.com

URTEBETETZEAK



Zorionak **Xune** eta **Maidar**, bereziki Aioraren partetik!!! Prestatu postre goxo-goxoa!!!




Arantzako **Ibai Mendizabal Maizek** 7 urte bete ditu otsailaren 19an. Aunitz urtez, **Ibai!** Muxu haundi bat familia guziaren partez!



Sunbillako **Malen Oskoz Apeztegiak** 4 urte beteko ditu apirilaren 1ean. Zorionak etxeko printzesari! Tarta eder batekin ospatuko dugu!



Sunbillako **Naira Oskoz Apeztegiak** martxoaren 15ean urtea beteko du. Zorionak etxeko tikiari familia guziaren eta bereziki Malenen partez!



Pagoa Iribarren Elizalde martxoaren 22an 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu aunitz gure *preziosari* familia guziaren partez, eta bereziki Intza ahizparen partez.



Arantzako **Intza Sorli Lizardi** 3 urte beteko ditu martxoaren 8an. Zorionak eta aunitz urtez etxeko partetik, eta bereziki Suhar eta Xuneren partetik! Besarkada eta muxu potoloak zuretzako polita!

Aunitz urtez!

Zoriondu lagunak eta senideak!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

Bulegoan eta postaz

Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA helbidera etorrita edo bidalita.

Whatsapez 744 48 43 61 zenbakira idatzita.

SORTZEAK

- **Saioa Migeltorena Arretxea**, Berroetakoa, otsailaren 15ean.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58ra deitu edo 744 48 43 61era edo info@ttipi.eusera idatzi beharko du.

Herencias y Gestión



Herentziaren zorrak eta inbentario-onura.

Herentzia bat onartzeak, ondasun edo eskubide batzuk eskuratzeaz gain, kausatzaileak bete gabe utzi zituen betebeharrak ere oinordekoak bere gain hartzea dakar. Oinordekoek herentziaren zorretan duten erantzukizuna mugatzeko, Kode Zibilak aurreikusten du herentzia inbentario-onuraren arabera onartzeko aukera.

Hau da, kausatzaileak herentzian utziko duenaren balioa gainditzen duten zorrak baldin baditu, oinordekoek zor horiei aurre egin beharko diete, baita beren ondasunekin ere, saldo zordun osoa estali arte.

Hala ere, legeak formula bat ahalbidetzen du oinordekoek herentziaren egoera eta zorrak ezagutu ahal izateko. Horri «inbentario-onura» deitzen zaio. Herentzia inbentario-onuraren arabera onar daiteke notario baten aurrean edo, idatziz, testamentu edo abintestato-prozeduraren arduraduen epaile baten aurrean.

Herentzia inbentario-onuraren arabera onartzearekin batera, herentzia osatzen duten ondasun eta eskubideen inbentarioa egiten da, baita dauden zorren inbentarioa ere. Inbentarioa egiten den bitartean, oinordekoek edo haiek izendatutako pertsonak administratuko dute herentzia, eta dagoen ondarea administratzeaz eta likidatzeaz arduratuko dira. Dauden zorren arabera, zor horiek hartzekodunei ordainduko zaizkie herentziaren ondasunekin.

Formula horren bidez, oinordekoen erantzukizuna mugatuko da, eta zorrek herentzian emandako ondasunei bakarrik eragin diezaiokete (eta ez ondare pertsonalari). Zorrak likidatzen direnean bakarrik banatu ahal izanen dute oinordekoek herentziaren ondoriozko ondarea.

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidades
www.kulturkari.com

Etiketak eta pegatinak
Paperean edo biniloan
(opakua edo gardena)
Bobinan edo soltean,
formarekin moztuak...

URTEURRENA

Zuhaitz BALEZTENA AGIRRE
 Donezteben, 2019ko martxoaren 11n
V. urtemuga



Ta denboraren oneritziak erakusten du ondoen, gure bihotza zure neurria nola egina dagoen.

ZURE ETXEOAK

OROIGARRIA

Arroxa TELLETXEA AROZENA
 Donezteben, 2024ko otsailaren 11n,
 93 urte zituela.



Amatto, amatxi, ez kezkatu gurekin, joan lasai, zure airera, zure begien dirdirak erakutsiko digu xuxeneko bidea, noizbait elkartuko gaituen bidea.

MATTE ZAITUGU

URTEURRENA



Zuhaitz BALEZTENA AGIRRE
V. urteurrena

Oraindik baditugu egunak zuretzat jantzita iraganeko irrifarrez...

ERATSUNGO ETA SUNBILLAKO FAMILIAK

OROIGARRIA


Arrosa TELLETXEA AROZENA
 Donezteben, 2024ko otsailaren 11n,
 93 urte zituela.




BORDABERRIKO FAMILIA

OROIGARRIA

Xerman ARBURUA APEZTEGIA
 Zugarramurdin, Iparreko-bordan
 2024ko otsailaren 22an, 51 urte zituela.



Partitua zarela erran daukute, bainan guk badakigu, ongi jakin ere, hemen zaudela oraino. Presentzia hilkorrean baino gure barne-barne etemalean, inguruko erreka garbietan, iratze berdeetan, lertxoïn saldoetan, gitarra akordeetan, mendi-oihaneko basapiztien arrastoetan, llunabarreko argizari arrosean, maitasun, besta, borroka kantueta eta behatz puntten fereketan.

ZURE FAMILIA ETA LAGUNAK Familiak jasotako maitasun keinuak bihotzez eskertu nahi ditu.

URTEURRENA

Asier ARANGUREN ERRAZKIN
 Lesakan, 2021eko otsailaren 27an
III. URTEURRENA



Hiru urte pasa dira joan zinenetik Ezta errea izan zu kentzea egunerokotik. Egun tristeak alde batetik, aurrera egin dugunaren esperantza bertetik. Axi, zure bizipozaren eskutik, muxu haundi bat bihotz-bihotzetik.

MAITTE ZAITUGU

ETXEOAK

IRACHE
 tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
 Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
 www.tanatoriosirache.es



BAZTAN BIDASOA
Herritako Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
 BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
 MALERREKA: DONEZTEBEN Aparan ind. 1-3
 web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
 365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

OROIGARRIA

**Kontxi
VERGARA LARRALDE**

Narbarten, 2024ko otsailaren 15ean

*Gure gau ilunak argituko dituen izarra,
buruan bueltaka dabilen
irriaren oihartzunaren islada.
Zu gure bihotzean beti
altxatuko dugun Kontxi,
ama eta amatxi maitea izanen zara.*

ZURE FAMILIA



OROIGARRIA

**Juanito
ALEMAN MASKOTENA**
Eneko

1934ko urtarrilaren 28an - 2024ko otsailaren 15ean
Mendialdea Etxea - Amaiur

*Txori eder bat Enekoneko
bordan kantuan da ari
oihandutako bidean doan
Amaiurko semeari
errekastoak harrotu ditu
ur jauzi eta emari
bertso berri bat atera zaio
odolaren mintzoari*

*gasna puxka bat hartuta zoaz
irrifartsu, ibiltari
agurtu euskal zeruetako
artzain eta bertsolari
gasna puxka bat hartuta zoaz
irrifartsu, ibiltari
Agur Joanito, zure doinuan
segiko dugu kantari!!*

ZURE FAMILIA



OROIGARRIA

**Jesus Mari
ALMANDOZ TELLETXEA**

Igantzín, 2024ko otsailaren 26an

*Ez negarrik egin, onak izan
eta segi ezazue elkaturik.
Ni hil arren,
nire maitasunak bizirik iraunen du,
zerutik maiteko zaituztet
lurrean maite izan zaituztedan bezala.*

ZURE FAMILIA





IZARRA

HENAI, ZURE OLAGORRI
AGUA & TV-LABO

Gure larra,
gure jendea,
gure sustaiak

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com





TANATORIOAK

• ELIZONDO



• BERA



• DONEZTEBE



• ARANTZA



• IGANTZÍ

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira





KULTURKARI
Deustu grafikoa | Fotolizatas

www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

HILBERRIAK

- **Fernande Durecu**, Sarakoa, urtarrilaren 21ean.
- **Helene Txapartegi**, Sarakoa, urtarrilaren 25ean, 85 urte zituela.
- **Jeanne Beadecot**, Sarakoa, otsailaren 4an, 97 urte zituela.
- **Kontxi Vergara Larralde**, Narbartekoa, otsailaren 15ean, 73 urte zituela.
- **Juanito Aleman Maskotena Eneko**, Amaiurkoa, otsailaren 15ean, 90 urte zituela.
- **Anunciacion Lumbreras Fernandez**, Lesakakoa, otsailaren 15ean, 87 urte zituela.
- **Esperanza Irazoki Aranibar**, Berakoa, otsailaren 17an, 91 urte zituela.
- **Adela Zozaia Soto**, Berakoa, otsailaren 18an, 70 urte zituela.
- **Antonio Aranburu Mikeo**, Berakoa, otsailaren 19an, 89 urte zituela.
- **Xerman Arburua Apeztegia**, Zugarramurdikoa, otsailaren 22an, 51 urte zituela.
- **Esteban Almandoz Mitxelena**, Lesakakoa, otsailaren 24an, 83 urte zituela.
- **Mª Consuelo Lasaga Telletxea**, Donamariakoa, otsailaren 24an, 66 urte zituela.
- **Miguel Mª Etxeberria Grajirena**, Beintza-Labaiengoa, otsailaren 25ean, 79 urte zituela.
- **Jose Telletxea Legarreta**, Leitzakoa, otsailaren 25ean, 75 urte zituela.
- **Carmen Basilio Garcia**, Donamarian, otsailaren 25ean, 92 urte zituela.
- **Jesus Mari Almandoz Telletxea**, Igantzíkkoa, otsailaren 26an, 72 urte zituela.
- **Maria Zabaleta Telletxea**, Leitzakoa, otsailaren 26an, 38 urte zituela.
- **Fco. Javier Pacheco Azkarate**, Elizondokoa, otsailaren 27an, 63 urte zituela.

PLAZAN BAZAN

OSATU

Merraztu Zangotxo gure maskotari galtzerdiak eta oinetakoak. Ondoren, osorik margotu.



ZEEERR?!!

Eman irudiño bakoitzari bere hizkia, eta esandakoa deskubrituko duzu. Erabili beheko alfabetoa.

ESAN BOST HITZ ITSUSI



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



Marrazkiak: Garbitze Ubedas (Aizuri)



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

INTERNETEN ERE BAI!

<http://plazanbazan.eus/>



Hau kiratsall! Arrautza ustelen bat hautsi da? Paper fabrikan lanean ari dira? Arranopola, zer gertatu da hemen?! Bete itzazu hutsuneak KIRATS hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (K, I, R, A, T, eta S). Kontuan har hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

MARRAZTU

SUDOKUA

	I			R	
K					A
	A	K		T	R
	R		A	K	
A					T
	T			A	

Zure ustez kiratsaren iturria izan litekeen hori marraz ezazu laukian.

Ttipi Txartelaarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 63 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipi.eus/ttipi-txartela

848 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Cipriano Telletxea Etxeberria | EZKURRA

Onddo ta punto - Kamiseta bat
Inaki Elizondo Juanikotena | GARTZAIN

Ez kexa - Kamiseta bat
Mertxe Txueka Intxusta | IRUÑEA

BKZ Abentura - Sarrera bat
Eduene Urroz Agesta | SUNBILLA

Kimetz - Saski bat
Ines Matxiarena Aldalur | BERA

Salting Iruñea - Bi sarrera
Irati Lazkano Alcaraz | LEITZA

Martiko - Lote bat
Aintzane Egui Agerre | ELIZONDO

Izar Park - Sarrera bat
Izaskun Zubieta Apeztegia | LESAKA

Bagu-Bigu - Lau CD
Mikel Zelestino Muniz | ZUMAIA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumos.com



Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Poltsa bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

OKILLE TAILERRA
okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

ANIKOTE
AnikoteLeitza



Spinning saioa

SALTING IRUÑEA
www.saltingcenters.com



Bi sarrera

MARTIKO
www.martiko.com



Lote bat

IZAR PARK
www.galaxypark.eus



Sarrera bat

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipi Txartelak eskaintzen dizkizun abantailak, Ttipi Txartela onartzen duten denda eta zerbitzuetan erosiz.

LIBURUAK

Hiru liburu



Deskontuak eta zozketa: Ttipi-Ttapa aldizkari guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun deskontuak oroitaraziz!

elkar
www.elkar.eus